

# Euskadin COVID-19aren eraginari buruzko hurbilketa



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco  
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea





## AURKIBIDEA

1.	SARRERA .....	5
	AURKEZPENA .....	6
2.	ERAGINAK.....	11
2.1.	<b>KOIUNTURA ETA EKOIZPEN-SEKTOREAK .....</b>	<b>11</b>
2.2.1.	Eskaria .....	13
2.2.2.	Eragina enpresa sarean .....	18
2.2.3.	Ekoizpen-sektoreak eta haien jardueraren bilakaera .....	21
2.2.4.	Sektore publikoa.....	45
2.2.	<b>LAN-MERKATUA .....</b>	<b>51</b>
2.2.1.	BJAren (EUSTAT) eta EPAn (EIN) emaitzak .....	51
2.2.2.	Gizarte Segurantzako afiliazioa.....	57
2.2.3.	Erregistraturiko langabezia .....	59
2.2.4.	Kontratazioa .....	61
2.2.5.	ABEEEk.....	62
2.2.6.	EINen Lan Kostuen gaineko Hiru Hilean Behingo Inkesta (LKHHBI) .....	64
2.2.7.	Laneko osasuna osasunaren sektorean.....	66
2.2.8.	Langabeziaren aurreko lan-jarduera etetearen aurreko babesa .....	67
2.3.	<b>GIZARTE-ESPARRUA .....</b>	<b>71</b>
2.3.1.	Eragin demografiko/asistentziala.....	71
2.3.2.	Mendekotasunaren Arretarako Sisteman (SAAD) izandako eragina .....	77
2.3.3.	Gizarte prestazioa: diru-sarrerak bermatzeko errenta .....	77
2.3.4.	Genero-arrakalak pandemiaren testuinguruan.....	79
3.	<b>EPE MOTZEKO ERANTZUNAK PANDEMIAREN SHOCKAREN AURREAN: LARRIALDIKO NEURRIAK ETA TRESNAK .....</b>	<b>80</b>
3.1.	<b>EUROPAKO ERAKUNDEEK HARTUTAKO LARRIALDI-NEURRIAK ETA -TRESNAK.....</b>	<b>80</b>
3.1.1.	Europako Banku Zentralaren esku-hartzea .....	81
3.1.2.	Aurrekontu- eta zerga-esparrua eta estatuko laguntzak malgutzeko ekimenak.....	82
3.1.3.	Segurtasun-sare hirukoitza langileentzat, enpresentzat eta estatuentzat .....	83
3.1.4.	Suspertzerako tresna europarra: “Next Generation EU” eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa .....	87
3.2.	<b>ESTATU MAILAN HARTUTAKO NEURRIAK ETA TRESNAK .....</b>	<b>90</b>
3.2.1.	Sare ekonomikoari eta enpleguari eusteko neurriak .....	90
3.2.2.	Neurri sozialak, lanekoak eta zaugarritasun-egoeran dauden pertsonak babestekoak .....	98
3.2.3.	COVID funtsa Autonomia-erkidegoei likidezia injektatzea, pandemiak irauten duen bitartean zerbitzu publikoak eman ditzaten .....	104
3.3.	<b>EUSKADIN HARTUTAKO NEURRIAK ETA TRESNAK .....</b>	<b>106</b>
3.3.1.	Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak eta tresnak .....	106
3.3.2.	Foru aldundiek hartutako neurriak eta tresnak .....	113
4.	<b>LABURPENA.....</b>	<b>119</b>
4.1.	<b>ERAGINAK .....</b>	<b>119</b>
4.1.1.	Koiuntura eta ekoizpen-sektoreak.....	119
4.1.2.	Lan-merkatua .....	124
4.1.3.	Gizarte-eremua .....	127
4.2.	<b>EPE MOTZEKO ERANTZUNAK PANDEMIAREN SHOCKAREN AURREAN .....</b>	<b>130</b>
4.2.1.	Europar Batasuna .....	130
4.2.2.	Estatua .....	130
4.2.3.	Euskadi.....	132



# 1.SARRERA

COVID-19ak eragindako pandemia historia hurbileko munduko krisirik garrantzitsuenetako bat da, eta eragin handia du osasunaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik.

Ekimen propioko txosten honek COVID-19aren pandemia EAeko ekonomia- eta gizarte-esparruetan 2020. urte honetan izaten ari den eraginaren lehen hurbilketa bat aurkezten du, bai eta eragin negatibo horiek arintzeko maila instituzionaletatik hartu diren epe motzeko erantzunen bilduma bat ere.

Eragin ekonomiko eta sozialaren azterketa egiteko, eremu horietako adierazle garrantzitsuen multzo bat berrikusi dugu, irailetik aurrera eskuragarri dagoen informazioarekin, eta Batzorde honek urtero egiten duen memoria sozioekonomikoaren eskemari jarraituz. Lehenik eta behin, aldagai ekonomikoen jarraipena egin dugu, egoeraren adierazle nagusiak oinarri hartuta, bai eskariaren ikuspegitik, bai eskaintzaren ikuspegitik. Era berean, pandemiak enpresa-demografian duen eragina aztertu dugu, bai eta gehien kaltetutako sektoreetako batzuetan ere, hala nola turismoan eta merkataritzan. Azkenik, finantza publikoen datu orokorrak aurkeztu ditugu, eta, zehazki, zerga-bilketaren bilakaera.

Bigarrenik, pandemiak lan-merkatuan duen eragina aztertzeko, hileko bilakaeraren (afiliazioa, kontratazioa, langabezia) eta hiruhileko bilakaeraren (dagozkion inkesta nagusiekin) adierazleak aztertu ditugu, eta arreta berezia jarri diogu, zehazki, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE) okupazioari eusteko mekanismo gisa erabiltzeari. Halaber, soldatetan eta langabezia-prestazioetan gertatutako eragina aztertu dugu, baita osasun-langileen lan-osasuna zertan den ere. Hirugarren multzo bat pandemiaren balantze sozialak osatutakoa da. Eragin asistentzial eta demografikoaren zifra nagusiak aurkeztu ditugu, mendekotasunaren sistemari bereziki begiratuta, pandemiak eragin handia izan baitu hartan. Gizarte-babesa eta genero-arrakala bi interes-eremu dira, eta oraindik ez da aipatzeko moduko joera argirik hauteman horiei buruzko adierazleetan.

Erakundeek epe laburrean eman dituzten erantzunak biltzen hasteko, lehenengo eta behin Europako Erkidegoko ekimenak berrikusi ditugu, Europako Banku Zentralaren lehen esku-hartzeetatik hasi eta suspertze- eta erresilientzia-mekanismoraino, aurrekontua eta zergak malgutzeko hainbat ekimen eta langileentzako, enpresentzako eta estatuentzako segurtasun-sarea barne. Ondoren, Estatuak hartutako neurriak eta tresnak jasotzen dira, bai ekonomia- eta enpresa-sarearen eta enpleguaren ikuspegitik, bai gizartearen eta kalteberatasun-arrisku berezia duten pertsonen babesaren ikuspegitik. Horien artean, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera berria nabarmendu behar dugu.

Azkenik, EAeko erakundeek hartutako neurrien bildumak barne hartzen ditu, bai Eusko Jaurlaritzarenak (sozialak, enpresa txikiak eta autonomoak finantzatzekoak, merkataritzarako eta turismoarako sektorialak...), bai foru-aldundienak, zerga-arlokoak (hiru lurraldeen arteko sintesia- eta konparazio-ariketa bat egin da) eta horietako bakoitzaren neurri espezifikoak.

Orrialde hauek ez dute sakontzeko asmorik, eta EGABen 2019ko eta 2020ko memoriaren arteko zubi izan nahi dute. 2020ko Memoria Sozioekonomikoan egin ahal izatea espero dugun azterketa lasaiago eta osoago baten aurrerapena da, zalantzarik gabe azterzea egokitu zaigun urterik konplexuena izan baita hau, ziurgabetasunak ugari daudelako eta errealitatea oso aldakorra delako.

Kontuan hartu behar da, dokumentu hau itxi den egunean, pandemia betean gaudela eta informazio mugatua dugula (ia datu koiunturaletak baino ez), eta informazio horrek ikuspegi oraindik ere partziala ematen digula osasun- eta gizarte-krisi larri honek epe laburrean zein luzean izango dituen ondorioei buruz.

# AURKEZPENA

Txinako agintariek 2019ko abenduaren 31n jakinarazi zituzten jatorri ezezaguneko pneumonia baten lehen kasuak, horietako batzuk larriak. Kaltetutako pertsonak, itxura batean, lotura bat edo beste zuten Wuhan hiriko (11 milioi biztanle zituen metropoli handia) merkatu batekin. 2020ko urtarrilaren 7an, gaitzaren arrazoia koronabirus berri baten gisara identifikatu zuten. Hilgarriagoa zenez eta gripearen moduko beste birus batzuk baino azkarrago zabaltzen zenez —hasiera batean horrekin alderatu baitzen—, SARS-CoV-2 izendatu zutena berehala hedatu zen mundu osoan zehar; horrenbestez, OMEk martxoko lehen egunetan pandemia globala deklaratu zuen.

Espanian, gaixotasunaren hedapenaren ondorioz, osasun-agintariek ezohiko neurriak hartu behar izan zituzten, eta martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu zuten, autonomia-erkidego guztietan mugikortasuna eta jarduera ekonomikoa murrizteko neurri garrantzitsuekin; alarma-egoera hori, hurrengo asteetan, sei aldiz luzatu behar izan zen. Aldi horretan hartutako euspen-neurri gogorrei esker (herritarren konfinamendu orokorrara eta ekoizpen-sistema geldiaraztea, funtsezkotzat jotako jardueretan izan ezik), birusaren hedapen-adierazleak nabarmen eta modu iraunkorrean murriztea lortu zen.

Epidemiaren hedapenari eutsi eta aste gogor batzuk iraganda osasun-sistemak egonkortzea lortu zenean, maiatzean deseskalatze-prozesu bat hasi zen, eta, hainbat fase gaindituta, ekainean "normaltasun berria" deitu den horretara iritsi ginen. Normaltasun horrek, gaixotasunari eraginkortasunez aurre egiteko irtenbide posibleak (txertoa, tratamendua edo gizartearen immunizazio handia, adibidez) oraindik eskura ez daudenez, berekin ekarri zuen eguneroko bizitzan neurriak eta murrizketak ezarri behar izatea, kutsatzeak prebenitzeko eta gaixotasunaren berragerraldietarako aukerak minimizatzeko; horren helburua zen, hain zuzen ere, berriz ere arriskuan ez jartzea osasun-sistemen erantzun egokia eta, horrekin batera, gure gizartearen osasuna eta ongizatea. Izan ere, irailetik aurrera, autonomia-erkidegoek beren lurralde-eremuetan izandako berragerraldien arabera murrizketa-neurriak hartu dituzte, eta Estatuak neurri horiei sendotasun juridikoa eman die, urriaren 25etik alarma-egoeraren adierazpen mugatu berri bat deklaratu baitu.

Eta, une honetan, hainbeste ziurgabetasun dituen egoera honetan, geure ekimeneko txostenaren aurkezpena egiterakoan, **zenbait gogoeta** jaso nahi ditugu, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea garen aldetik adostu ditugunak, txostena irakurtzeko gonbidapen gisa balioko dutelakoan.

- ✓ Lehenik eta behin, pandemia honen giza kostua aipatu behar dugu. Lehenengo kasuak agertu zirenetik bederatzik hilabete igaro direnean, birusak hedatzen jarraitzen du, kutsatutako pertsonak milioitan zenbatzen dira eta 500.000 hildako baino gehiago izan dira. Asian pandemia kontrolatu dutela dirudien arren, munduaren erdian badaude oraindik agerraldi aktiboak, zeren eta bigarren boladari baten aurrean baikaude. Irailaren 28an gaixotasunak eragindako heriotzen kopurua milioi bateko mugarri tristera iritsi zen, Latinoamerika eta Karibea hildakoen kopuruaren buruan daudela. Data horretan, guztira, 35 milioi pertsona baino gehiago zeuden COVID-19a diagnostikatuta 186 herrialdetan, eta horietatik 24 milioi bizkortu egin dira. Agintariek kalkulatzeko Espainian 800.000 pertsona baino gehiago diagnostikatu direla (PCRen bidez), eta horietatik 150.000 sendatu eta 32.000 baino gehiago hil direla. Hala ere, oro har, kopuru horiek benetako datuak baino askoz txikiagoak direla uste da, hilkortasuna monitorizatzeko sistemaren arabera hildakoak 44.000 baino gehiago izan baitaitezke.

Euskadin, zeina Estatuan COVID-19ko kasuak kaltetutako lehenengo erkidegoetako bat izan baita, irailaren 28rako (Osakidetzaen datuak) ia 50.000 pertsona kutsatuak ziren; horietatik 1.900 hil dira. Gaixoen % 54,8 emakumeak dira eta % 45,2 gizonak. Gainera, birusa bereziki kaltegarria izaten da adineko pertsonen artean, eta gurea gizarte zahartua da; hori dela eta, hilkortasun handia gertatu da adin aurreratuenetan, 80 eta 89 urte bitarteko gaixoen artean (% 20tik gorako hilkortasuna), bai eta 90 urtetik gorako gaixoen artean ere (% 28tik gorakoa). Hori larriagotu egin da egoitzetan dauden adinekoen artean, haien osasun-baldintza ahulak direla eta. Horren ondorioz, heriotzak izan dira (martxotik uztaile bitartean 600 pertsona baino gehiago hil dira), sufrimendua izan da familiengan eta zaintzaileengan, eta gure gizartearen erraz sendatuko ez diren zauriak izan dira.

- ✓ Krisi honen inpaktu ekonomikoak ez du aurrekaririk, eta nazioarteko shock bat eragin du, bai eskaintzari dagokionez, bai eskaerari dagokionez. Hasieran Txinan kontzentratutako afekzio bat izan zena —zeinak balio-kate globaletan eragin baitzuen, munduko zentro logistiko nagusietako batean plantillak eta ekoizpen-gaitasuna murriztea ekarri—, beste herrialde batzuetara hedatu zen berehala, eta hornidura-kateei zailtasun handiak ekarri zizkien eta esportazio-eskarian ere eragin zuen, batez ere turismoaren sektorean, bai eta eragileen inbertsio-erabaketan ere, hain zuzen ere ziurgabetasun handiko ingurunea sortu zelako.

Gainera, hartutako euste-neurriek eragin zuzena izan dute etxeetako eskarian eta jarduera ekonomikoan. Gaixotasunaren progresioari eusteak denbora-mugak jarri zizkion zirkulazio askeari, eta, gainera, lan-eskaintza murriztea eragin zuen. Inguruabar horien ondorioz, ekonomiarako eskaria eta eskaintza batera nahasten dira, eta horrek enpresen salmentak ukitzen ditu, eta kaudimen-arazoak eta enplegu-galerak sortzen ditu, nahiz eta premiazko egonkortze-neurriak hartu ziren.

Horren ondorioz, martxotik aurrera negozioak ixten joan dira eta langabeziak nabarmen gora egin du, nahiz eta hori nabarmen moteldu den ABEEE-en eta beste tresna batzuen erabilera masiboaren ondorioz. Izan ere, enplegua egonkortzeko mekanismo horien ondorioz, lehen aldiz, enpleguaren beherakada txikiagoa izan da ekonomiarena baino, epe laburrean behintzat.

- ✓ Krisi honek agerian utzi ditu osasuna eta mendekotasuna bezalako funtsezko zerbitzu publikoetan dauden arazoak, eta gorabehera horiei aurre egiteko behar den kalitatea duten zerbitzu publikoen aldeko kontzientzia-maila areagotu du herritarrengan. Bestalde, estatuetatik eta nazioz gairako egituretatik, gobernuek eta administrazio publikoek baliabide publiko izugarri handiak txertatu behar izan dituzte herritarren ongizatea bermatzeko, jarduera suspertzeko eta ekonomiaren epe ertaineko eraldaketa sustatzeko, eta lehentasuna trantsizio ekologikoan eta eraldaketa digitalean jarri dute.
- ✓ Bestalde, gure ongizate-sistema probaldian jarri da. Alderdirik nabarmenena osasun-krisia bada ere, zeina orokorra baita eta pertsona guztiei eragiten baitie, eragin negatiboak, neurri handiagoan, adinekoren artean gertatzen dira. Gainera, pandemiaren irradiazioa zabala izan da, eta eragina izan du esparru ekonomiko eta sozial guztietan, eta, horregatik, "*sindemia*" gisa definitu da, gizarte-desberdintasunak areagotzeko duen eraginagatik.
- ✓ Pandemia honek, gainera, planeta osoan denbora-zedarria markatuko duen puntu bat adierazten du. Krisi hau aurretik hasitako sakoneko prozesuak bizkortzen ari da (digitalizazioa, deskarbonizazioa, eraldaketa berdea, berdintasuna, etab.). Prozesu horiek eskatzen dute erkidego gisa ekonomian eta enpleguan bilatu behar dugun susperraldiak ekoizpen-eredu osoaren eraldaketa berritua izan behar duela oinarria. Baina eredu berri hori ezin da edonolako izan. Hazkunde inklusiboa ahalbidetu behar du eta ingurumen-mugak errespetatu behar ditu. Hori guztia, trantsizio justu eta aberasgarria ahalbidetuko duen adostasun sozial zabal baten klabea.
- ✓ 2020ko balantze ekonomikoa egiteko goiz den arren, argi dago euskal ekonomiaren adierazle nagusietan 2019ko datuak baino okerragoak izango direla. Datu ekonomikoek objektibotasunez islatzen dute zein unetan gauden, baina modu aseptikoan egiten dute islatze hori. Horiek behar bezala interpretatzeko, bi fokuko irakurketa behar dugu, datu ekonomiko horiek eskaintzen diguten erretratutik urruneko ikuspegia eta unean uneko errealitate sozialak biluzten digun hurbileko ikuspegia konbinatu ahal izateko. Ez dugu ahaztu behar gure gizartea osatzen duten pertsonak direla babestu beharreko ondasun handiena, eta gure gizarte-aurrerapena benetakoa eta eraginkorra izango dela aurrerapenak batera egiten badira, inor bere kasa ez abandonatzen saiatuz.

Ekonomia eta Gizarte Kontseilua garen aldetik, badakigu adierazle sozialen irakurketa ez dela ekonomiaren adierazleenetik bereizi behar, eta adierazle horien irakurketa ez dela erabatekoa izango, ez bada gizartearen ikuspegitik egiten. Interpretazio integral horrek bideratu behar du, hain zuzen ere, politika publikoen norabidea. Kontseiluaren egitekoa erabakiak hartzen laguntzea da, gure erakundean dauden eragile ekonomiko eta sozial guztien hausnarketa eta ekarpen adostuen bidez. Hori dela eta, irakurketa integral, holistiko, kritikoa eta arretatsu bat behar bezala egiteak duen garrantzi berezia nabarmentzen dugu. Irakurketa horrek akatsez eta gabeziez ohartaraziko digulako, arriskuez ohartaraziko digulako eta aukerak deskubrituko dizkigulako, pandemiak planteatzen dizkigun erronkei aurre egiteko norabidea birbideratu ahal izateko. Eta une horietako batean gaude.

- ✓ Gainera, COVID-19aren osasun-krisiak erakutsi digu zer-nolako abiaduraz sakondu daitekeen krisi ekonomiko-sozial batean, eta etorkizunean antzeko egoeretarako prestatu behar dugula. Izan ere, pandemia ez da amaitu, eta, ziurrenik, txertoa berandu iritsiko da; beraz, denbora-tarte batez bizi beharko dugu birusarekin. Horrek berekin ekarriko du hautematen diren kalteberatasunak berrikusi behar izatea.

Testuinguru horretan, eratzten ari den hazkunde-eredu berriak hainbat erronka ditu:

## 1. OSASUN- ETA MENDEKOTASUN-SISTEMA

Koronabirusaren hedapenak zalantza jarri du guztiok konpartitu dezakegun baliorik preziatuena, bizitza, alegia. Herritarren osasunean eragin handia izaten ari da, eta osasun-sistematan presio egiten du sekula ezagutu ez dugun mailaraino. Epe labur eta ertainean hartutako neurriek arindu egin dute presioa babes-material mediko espezifikoen eskuragarritasunari dagokionez, baina ez, ordea, denboran luzatzen delako, osasun-ekipoen presioari dagokionez.

Egoera horrek aurrekontu publikoan jartzen du arreta, eta bereziki erreparatzen die prebentzio sanitarioan eta ospitale-azpiegituran egindako inbertsioan giza baliabideak indartzeko funtsen behar den gehikuntzari eta kutsatutako pertsonen epe luzeko osasun-ondorioei.

Gainera, pandemiak agerian utzi ditu mendekotasuna artatzeko sistemaren gabeziak eta, zehazki, egoitzen arloarenak. Horregatik, badirudi beharrezkoa dela, epe laburrean, koordinazio-mekanismo eraginkorrak sortzea foru-aldundien eskumeneko adinekoen egoitza-sistemen eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko osasun-zerbitzuen artean, eta, epe ertain eta luzera, egoitza-eredua birpentsatzea, gerta litezkeen shock sanitarioei eraginkortasun handiagoz aurre egin ahal izateko. Gainera, ezinbestekoa da gogoeta sakonagoa egitea gure gizartean zahartze-egoeretarako ematen diren irtenbideei buruz.

## 2. SISTEMA EKONOMIKOA

Euskal ekonomiaren funtsezko erronka sare ekonomikoaren biziraupena erraztea da, herritar guztien ongizate-maila altuez gozaten jarraitzeko.

Administrazioek berehala jarri zituzten martxan hainbat neurri (finantzarioak, fiskalak, langabeziarako neurriak, ABEEak, etab.), epe laburrean jardueraren eta enpleguaren gaineko eragina minimizatzea ahalbidetu dutenak. Pandemiaren eta neurri horien ondorioak desberdinak izan dira sektorearen arabera, eta horrek, epe ertainean, aurreratzen du ekoizpen-ehunaren zati baten suntsipena gerta daitekeela.

Horregatik, sektore publikoak erronka bikoitza du esparru ekonomikoan: epe laburrean, enpresei laguntzea, eta epe ertainean gizartearentzat aberastasuna dakarten proiektu berriak sortzen laguntzea. Hori guztia, gainera, enpleguari laguntzeko konpromisoari eutsiz eta egokituz.

Bestalde, susperraldiaren luzatzeak laguntza publikoen politika mantentzeko eta birbideratzeko erronka dakar, pandemiaren eraginaren arabera. Ez dakigu pandemiak zenbat iraungo duen, eta, beraz, behaketa- eta ikaskuntza-

jarrera etengabea izan behar dugu, gertatzen ari dena ulertu eta, behar izanez gero, zuzendu ahal izateko, une bakoitzean ahalik eta diagnostiko zehatzena eginez.

### 3. GIZARTE BABESERAKO SISTEMA

Pandemia probaldian jartzen ari da Euskadiko kohesio sozialaren maila, eta administrazio guztien erronka da lortutako ongizatearen murrizketa eragozte. Epidemiak agerian utzi bermatu egin behar dela larriagotu dituen desberdintasun ekonomikoei, generokoei, hezkuntzakoei eta abarrei behar adinako aurrekontu-baliabideekin aurre egingo zaiela.

Ilido horretan, pentsio-sistema publikoaren eta, oro har, gizarte-babeseke sistemen jasangarritasuna eta nahikotasuna bermatzearen garrantzia azpimarratzen dugu, sistema horiek une bakoitzean pertsona guztiei beharrezko estaldura eman diezaieten.

Era berean, azpimarratu nahi dugu bizitzeko gutxieneko diru-sarrerera berriak aukera ematen duela DSBEa indartzeko eta estalduran eta prestazioetan aurrera egiteko.

### 4. FINANTZA PUBLIKOAK

Krisialdiak ekarri dizkigun erronka ekonomiko eta sozialen ondorioz, gobernuek aurrekontu-ahalegin handiak egin behar izan dituzte, eta, ondorioz, kontu publikoak hondatu egin dira, eta zorpetzea dakarten defizit handiak eragin dira. Krisiaren aurreko abiapuntua oso garrantzitsua da gertatutako narriadura-maila ebaluatzeko, eta saihestezina da pandemia amaitzen denean kontu publikoak finkatzeari ekitea, bai gastuaren ikuspegitik, bai diru-sarreraren ikuspegitik. Hori guztia dela eta, gogoeta egin behar da finantza publikoei eusteari buruz eta zerga-sistema eraginkor batez hornitzeko erronkari buruz.

Hala ere, azpimarratzekoa da EBko NEXT GENERATION funtsak eskuratzeko aurrekontu-aukera. Funts horiek euskal ekonomia suspertu eta berriz bultzatzeko izaera desberdineko proiektuetara bideratu ahalko dira.

Era berean, laguntza publikoen kontabilitate, trazabilitate eta koordinazio onaren garrantziaz ohartarazi nahi dugu. Beharrezkoa da administrazio publikoetatik ematen ari diren baliabide ekonomiko (dirulaguntza eta laguntza guztiak, zerga-salbuespenak) eta ez-ekonomiko guztiak ezagutzea. Hori dela eta, informazioaren gardentasunik handiena eskatu behar da, erabakiak hartzen lagunduko duen etengabeko ebaluazioa egin ahal izateko.

### 5. LANKIDETZA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Azaldutako erronkek guztion ahalegina eskatzen dute, eta, horregatik, beharrezkoa da erakunde publiko eta eragile sozial eta ekonomiko guztien erantzunkidetasuna, bai eta herritarrena ere. Gizartea agortzeko arriskuak eskatzen du botere publikoek adostasunez transmititu behar dutela pandemia kolektiboki gainditzeko gaitasuna, COVID-19aren ondorengo etorkizun "sendoa" marraztuz.

Gainera, hain zuzen krisi-egoeretan izan behar dute garrantzi handiena gizarteko sektore guztien lankidetzako eta jarrera oneko jokabideek. Kontzertazioak eta elkarrizketa sozialak —krispazio egoerei kontrajarri beharrekoek— garrantzi handiagoa hartu behar dute, ahal bada, une honetan, eta haien mekanismoak indartu behar dira, bizi dugun egoeratik ahalik eta irtenbiderik bidezkoena lortze aldera.

Azken batean, trantsizio sozioekonomiko sakon-sakon baten erronka handia dugu aurrean, zeinak nahi dugun herrialdea bistararazten baitigu, eta hori arrakastaz lortzeko beharrezkoak diren **konpromisoak** hartzeko erantzukizunari aurrean jartzen baikaitu. Honako hauekiko konpromisoak, besteak beste:

- Zientzia eta I-G-b delakoa, zeinak funtsezko elementuak baitira prozesu guztiak eraldatzeko: prozesu produktiboak, sozialak eta ingurumenekoak.
- Hezkuntza, zeinak, beste batzuekin batera, berdintasuna eta hazkundea sustatzen baititu.
- Habitat naturala eta hirikoa, eta haien garapen orekatu eta jasangarria.
- Sistema sozio-sanitarioa, zeinak pertsonen zaintza merezi duen lehentasunezko tokian kokatuko baitu.
- Gazteak eta haien etorkizuna, herrialdearen etorkizuna baitira.
- Genero-arrakalak murriztea eta aukera-berdintasuna.

Etorkizuna eraikiko duten konpromiso horiek guztiek eskatzen dituzte herrialde-itun bat egitea, inbertsio-ahalegin handia eta gizarte- eta produkzio-sare lehiakorra, bai eta gizarte gisa animoz berrarmatzea ere. Konpromisoak identifikatu eta lehenetsiko dituen herrialde-itun bat egitea, konpromisoen garapena adostez gain. Zerbitzu publikoak indartu eta birdimentsionatuko dituen eta lankidetzaz publiko-pribatuaren aukera kontuan hartuko duen inbertsio-ahalegina egin beharra dago. Eta, azkenik, esperientzia gogor horrek ematen digun erresilientziatik abiatuta, erronka gisa ditugun proiektuek eman ohi duten energiarekin eta bultzadarekin begiratu behar zaio etorkizunari.


## 2. ERAGINAK

### 2.1. KOIUNTURA ETA EKOIZPEN-SEKTOERAK

2020ko martxoko bigarren hamabostalditik aurrera COVID-19aren ondorioz hartutako ezohiko neurriek jarduera ekonomikoaren beherakada larria ekarri dute, eta horrek BPGd-aren murrizketa ekarri du, zeinak aurrekaririk ez baitu serie estatistikoetan<sup>1</sup>.

Konfinamendua hasi zenetik deseskalatzea hasi arteko aldiak zazpi aste hartzen ditu, eta horietatik soilik lehenengo biak dagozkio lehen hiruhilekoari; gainerakoak, berriz, bigarrenari dagozkio. Funtsezkoak ez diren jardueren etenaldiaren zatirik handiena, produktuaren beherakada nabarmenagoa izan zena, bigarren hiruhilekoan gertatu zen.


GRAFIKOA 2.1.1. EAE-KO BPGD-AREN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASEN BILAKAERA. BOLUMEN KATEATUA



Iturria: EUSTAT. CET

Epigrafe honetan hainbat adierazleren bilakaera aztertzen da, eta horiek oinarri hartuta, COVID-19ak gure erkidegoko jarduera ekonomikoan duen eragina ikus dezakegu. Dokumentuaren itxiera-data kontuan hartuta, eta jarduera ekonomikoaren arteko homogeneotasuna erakusteko, hiruhilekoka erakusten diren datuak 2020ko bigarren hiruhilekoan

2.1.2. GRAFIKOA. EAEko BPGd-a. ALDAKUNTZA-TASAK BOLUMEN KATEATUAN. 2015-EKO OINARRIA



Iturria.- EUSTAT HKE

<sup>1</sup> Martxoaren 15ean indarrean sartu zen alarma-egoera, COVID-19ari aurre egiteko ezarritakoa, ekainaren 21era arte egon da indarrean. Gizartea konfinatuta eta jarduera ekonomikoa ia erabat geldiarazita egon diren hasierako aldi baten ondoren, apirilaren 14an deseskalatze-prozesua hasi zen, eta horri esker, jarduera ekonomikoa pixkanaka itzuli egin da, eta bide horretan jarraitzen dugu gaur egun ere.

Egoera oso korapilatsuak zaildu egiten du zenbatespen ekonomiko ororen oinarri den informazioa biltzea, are gehiago sisteman adierazle batzuen iragarpena sartzen denean. Horregatik guztiagatik, zuhur aztertu behar dira EUSTATEk gure erkidegoko jarduera ekonomikoari buruz aurkezten dituen zenbatespenak, non gizartearen konfinamendu-aldia jasotzen baita.

amaitzen dira, eta hilabeteka argitaratzen direnak, berriz, 2020ko abuztuaren, Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresen kopurua izan ezik; izan ere, datu hori irailera arte iristen da, aurrerago azalduko diren arrazoiengatik.

EAE, EUSTATen “Kontu Ekonomikoak” dokumentuaren arabera, BPGd-a % 3,2 uzkuritu zen, urte batetik bestera eta termino errealean, 2020ko lehen hiruhilekoan; bigarreanean, berriz, askoz gehiago uzkuritu zen, % 19,5 murriztu baitzen, egutegiaren eraginak deskontatu ondoren. Hiruhileko batetik bestera, uzkuritzea % 4,7koa izan zen 2020ko lehen hiruhilekoan, eta % 16,4koa bigarreanean, egutegiaren eta urtaroen eraginak kenduta.

Konfinamenduak berak eragindako barne-eskariaren beherakadarekin, enpleguen galerarekin eta ziurgabetasunarekin batera, eskaintza murriztu egin da eta hornikuntza-kate batzuk eten egin dira, ekoizpen-jarduera ugari aldi baterako nahitaez gelditzearen ondorioz.

EAEko BPGd-aren urte arteko uzkuritzea Espainiako ekonomiarena baino txikiagoa izan da; izan ere, bigarren hiruhilekoan, urte arteko jaitsiera % 22,1koa izan da. Eurogunea (-14,7 %) eta Europar Batasun osoak (-13,9 %), berriz, portaera hobea izan dute.

Europako herrialde garrantzitsu guztiak atzeraldian sartu dira; bakarrak ere ez du % 10etik beherako jaitsierarik izan. Agertoki horretan, mugak Alemaniak (-% 11,3) eta Espainiak (-% 22,1) markatu dituzte. Espainiako Estatuan turismoak pisu handiagoa izateak eta agintariak atzerrira bidaiatzeko ezarritako murrizketek, oro har, zerbitzuekiko mendekotasun handiena duten herrialdeak zigortu dituzte.


Ogasun eta Ekonomia Sailaren informazioaren arabera, euskal ekonomiaren termometroa <sup>2</sup> (2.1.3. grafiko) 37. baliora jaitsi zen martxoan eta 27,5era 2020ko apirilean, eta beheranzko eremuan sartu zen bete-betean (< 50eko balioa).

Maiatzetik aurrera, termometroa pauso txikiak ematen hasi zen suspertze-prozesuan, baina beheranzko bidean jarraitu du.

2.1.1. TAULA BPGd-aren BILAKAERA					
	EAE		URTE ARTEKO EGIAZKO ALDAKUNTZA (URTAROAREN ETA EGUTEGIAREN ERAGINAK ZUZENDUTA)		
	EUROAK, MILAKA	URTE ARTEKO EGIAZKO ALDAKUNTZA (ZUZENDUA)	EUROGUNEAK	ESPAINIA	
2008	68.575.133	2,5	0,4	0,9	
<b>2009</b>	<b>65.143.327</b>	<b>-5,0</b>	<b>-4,5</b>	<b>-3,8</b>	
2010	66.569.372	2,2	2,1	0,2	
2011	67.022.320	0,7	1,7	-0,8	
2012	65.763.202	-1,9	-0,9	-3	
2013	64.923.009	-1,3	-0,2	-1,4	
2014	66.378.235	2,2	1,4	1,4	
2015	68.496.577	3,2	2	3,8	
2016	71.239.291	4,0	1,9	3	
2017	73.697.375	3,5	2,6	3	
2018	76.888.235	4,3	1,8	2,4	
2019	79.445.517	3,3	1,3	2	
2019	I	19.621.714	2,4	1,5	2,2
	II	19.802.003	2,3	1,2	2,0
	III	19.917.431	2,1	1,4	1,9
	IV	20.104.369	2,2	1,0	1,8
<b>2020</b>	<b>I</b>	<b>19.103.757</b>	<b>-3,2</b>	<b>-3,2</b>	<b>-4,1</b>
	<b>II</b>	<b>15.857.881</b>	<b>-19,5</b>	<b>-14,7</b>	<b>-22,1</b>

*Iturria: EUSTAT. EUSTATen eta Espainiako Bankuaren Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak*

2.1.3. GRAFIKOA. EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROAREN HILEKO BILAKAERA



<sup>2</sup> Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak egin berri duen adierazle sintetiko bat da. EAEko BPGd-arekin korrelazio handia duten hileko ehun aldagai inguru konbinatzen ditu. Serieak leundu egin dira, eta, beraz, haien ibilbidea aldagaiaren joeratzat har daiteke.


## 2.2.1. Eskaria

2.1.2. TAULA EAEko EGOERA MAKROEKONOMIKOAREN BILAKAERAREN AURRERAPENA. ESKARIA										
	EUROAK, MILAKA			BOLUMEN KATEATUA 2015eko OINARRIA DATU ZUZENDUAK						
				URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA			HIRUHILEKO ARTEKO ALDAKUNTZA TASA			
	IV 2019	I 2020	II 2020	IV 2019	I 2020	II 2020	IV 2019	I 2020	II 2020	
<b>BARNE ESKARIA</b>	<b>20.593.630</b>	<b>19.640.047</b>	<b>16.747.849</b>	<b>1,9</b>	<b>-3,1</b>	<b>-17,2</b>	-	-	-	
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	15.598.224	14.944.319	12.979.313	1,6	-3	-15,4	0,3	-4	-12,5	
-Gastua azken kontsumo pribatua	11.873.852	11.299.749	10.580.363	1,5	-4,8	-20,3	0,3	-5,9	-15,9	
-Administrazio publikoen azken kontsumoaren gastua	3.284.262	3.353.639	3.317.538	2,3	4,1	3	0,4	3	-0,6	
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	4.995.406	4.695.728	3.768.536	2,7	-3,6	-23	1,3	-5,4	-20	
-KFEGd-a ekipa-ondasunetan	1.823.121	1.686.206	1.242.038	2,5	-5	-30,1	2,8	-5,8	-26,7	
-Kapitalaren eraketa gordinaren gainerakoa.	3.172.284	3.009.522	2.526.497	2,8	-2,8	-18,8	0,5	-5,2	-16,2	
<b>KANPO-ESKARIA</b>										
<b>ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK</b>	<b>12.997.721</b>	<b>11.744.849</b>	<b>9.274.523</b>	<b>1,4</b>	<b>-7,5</b>	<b>-30,1</b>	<b>2,5</b>	<b>-9,3</b>	<b>-22,4</b>	
<b>ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK</b>	<b>13.486.982</b>	<b>12.281.139</b>	<b>10.164.491</b>	<b>1</b>	<b>-7,2</b>	<b>-26,4</b>	<b>2,5</b>	<b>-8,7</b>	<b>-18,8</b>	
<b>BPGd</b>	<b>20.104.369</b>	<b>19.103.757</b>	<b>15.857.881</b>	<b>2,2</b>	<b>-3,2</b>	<b>-19,5</b>	<b>0,5</b>	<b>-4,7</b>	<b>-16,4</b>	

*Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak*

### a) Barne eskaria: kontsumoa eta inbertsioa

Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua izan ezik, 2020ko lehen bi hiruhilekoetan, barne-eskariaren agregatu guztiek izan dituzte beherakadak, bai urtetik urtera, bai hiruhilekotik hiruhilekora. Hartara, Barne-eskariak, oro har, -% 3,1eko urte arteko aldakuntza izan du 2020ko lehen hiruhilekoan, eta beherakada areagotu egin da bigarrean, -% 17,2ko aldakuntzarekin (2.1.2 taula).



Bi osagai nagusien (azken kontsumoko gastua eta kapital-eraketa gordina) bilakaera negatiboa izan da, eta bigarren hiruhilekoan beherakada areagotu egin da. Hala ere, azken kontsumoko gastuaren kasuan, bi jokabide kontrajarri ikusten ditugu. Kontsumo pribatuko gastua nabarmen jaisten den bitartean, kontsumo publikoko gastua handitu egiten da.

Zehazki, familien azken kontsumoko gastua eta Etxeen Zerbitzuko Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen arlokoa

(kontsumo pribatua) uzkurto egin da Euskadin % 4,8 lehen hiruhilekoan eta % 20,3 bigarreanean. Bestalde, administrazio publikoen azken kontsumoko gastua (kontsumo publikoa) % 4,1 hazi da lehen hiruhilekoan eta % 4,1 bigarreanean. Gastu publikoaren eta pribatuaren bilakaera bateratuaren ondorioz, azken kontsumoko gastua % 3 jaitsi da lehen hiruhilekoan eta % 15,4 bigarreanean.

Kapital-eraketa gordinak (Inbertsioa) beherakada izan du 2020ko lehen hiruhilekoan, eta areagotu egin da bigarreanean, aldakuntza-tasak  $-3,6\%$  izan baitira lehen hiruhilekoan eta  $-23\%$  bigarreanean. Ekipamendu-ondasunetan egindako inbertsioaren bilakaerak portaera negatibo nabarmena izan du:  $5,0\%$  jaitsiera-tasa da lehen hiruhilekoan, eta  $30,1\%$  bigarreanean. Gainerako kapital-eraketa gordinean, eraikuntzaren sektorearen bilakaerari lotuagoa, urtetik urterako beherakadak eduki handiagoa izan du, baina baita nabarmena ere; izan ere, lehen hiruhilekoan  $-2,8\%$  aldakuntza-tasa izan du, eta bigarreanean  $-18,8\%$ .

### Kontsumoko erreklamazioak


Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren informazioaren arabera (XI. legegintzaldia), Kontsumobiden, Kontsumorako Udal Bulegoetan eta elkarteetan 2020ko lehen bost hilabeteetan erregistratutako kontsulten eta erreklamazioen kopurua aurreko urteko aldi berekoa baino txikiagoa izan bada ere, nabarmena da garraioarekin eta bidaiekin lotutakoetan izan den igoera.

Zehazki, *Kontsumobiden*, *Kontsumorako Udal Bulegoetan* eta *elkarteetan* % 210,5 eta % 72,5 igo dira 2020ko lehen bost hilabeteetan **garraioekin eta bidaiekin lotutako** kontsultak eta erreklamazioak, hurrenez hurren, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Hala, 2019an bi gai horiei buruzko 1.642 kontsulta eta 737 erreklamazio jaso ziren; 2020an, berriz, 5.099 kontsulta eta 1.271 erreklamazio zenbatu dira.

### b) Kanpoko eskaria

Merkataritza-trukeen atzerakada oso nabarmena izan da. Ondasunen merkataritzak aldaketa oso larriak jasan ditu salgaien garraioa partzialki etetearen eta hornikuntza-kate globalen hausturaren ondorioz. Zerbitzu turistikoaren kasuan, pertsonen mugimenduen mugak itxi diren eta aire-trafikoa eten den testuinguru batean, fluxuen etenaldia ia erabatekoa izan da kasu batzuetan.

**2.1.5. GRAFIKOA. AMAIERAKO KONTSUMOAREN BILAKAERA (PUBLIKO ETA PRIBATUA) ETA KAPITAL FINKOAREN ERAKETA GORDINARENA (KFEG) ONDASUN-EKIPOETAN. BOLUMEN-INDIZEAREN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK**




Termino nominaletan, "Kanpo Merkataritzaren Estatistikak" (aduana-erregistroetan oinarritua) eskaintzen dituen atzerritarrekiko ondasunen kanpo-merkataritzari buruzko behin-behineko datuek (Estatuko gainerako lurraldeak ez ditu barne hartzen) kanpo-merkataritzaren beherakada berresten dute; beherakada horrek eragin handiagoa izan

2.1.3. TAULA KANPO-MERKATARITZAREN HILEKO BILAKAERA EAEn				
	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	EUROAK, MILAKA	AURREKO URTEKO HILABETE BERAREKIKO ALDAKUNTZA	EUROAK, MILAKA	AURREKO URTEKO HILABETE BERAREKIKO ALDAKUNTZA
2020-URTARRILA	1.968.561	1,4	1.573.842	-5,9
2020-OTSAILA	1.902.315	-7,9	1.549.824	-13,6
<b>2020-MARTXOA</b>	<b>1.697.592</b>	<b>-21,8</b>	<b>1.440.665</b>	<b>-14,9</b>
<b>2020-APIRILA</b>	<b>1.042.008</b>	<b>-53,2</b>	<b>985.942</b>	<b>-43,2</b>
2020-MAIATZA	1.560.278	-36,0	1.069.263	-43,8
2020-EKAINA	1.890.628	-14,4	1.214.734	-25,5
2020-UZTAILA	1.857.204	-13,4	1.339.218	-16,7
2020-ABUZTUA	1.279.107	-17,1	1.095.827	-26,2

Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.-ECOMEX.

du martxoan, apirilean eta maiatzean. Esportazioen urte arteko jaitsiera % 21,8koa izan zen martxoan, % 53,2koa apirilean eta % 36koa maiatzean. Inportazioen kasuan, jaitsiera-ratioak % 14,9koak izan ziren martxoan, % 43,2koak apirilean eta % 43,8koak maiatzean.

Ekainean eta uztailean, esportazioen eta inportazioen beherakada nominalak jarraitzen du, baina jaitsierak moteldu egin dira. Abuztuan, berriz, beherakadak areagotu egiten dira, 2.1.3. taulan eta 2.1.6. grafikoan ikus daitekeen bezala.



Hala, esportazioen urte arteko jaitsiera % 9,9koa izan zen 2020ko lehen hiruhilekoan, eta % 34,7koa bigarreanean. Euskaditik esportatzen diren produktuen hiru multzo nagusiek (metal arruntak eta horien manufakturak, 2019ko esportazioen % 21,6, makinak eta aparatuek % 19,8 eta garraio-materiala % 29,5) beherakada nabarmenak izan dituzte. Hala, metal arruntek eta horien manufakturen salmentaren balioa % 14,6 murriztu zen lehen hiruhilekoan, eta % 32,2, berriz, bigarreanean; beraz, sei hiruhilekotan jarraian behera egin du. Makinetan eta aparatuetan, % 14,3 egin zuen behera salmenten balioak lehen hiruhilekoan, eta % 24,3 bigarreanean; aurreko aldietan ere ahulezia-zantzurik bazeukaten. Azkenik, garraio-materialak eten egin zuen 2019. urtearen zatirik handienean erakutsitako martxa onak, automobilgintzan arazoak birbideratzen hasi zirenez geroztik, eta % 13,6 egin zuen behera lehen hiruhilekoan, eta % 46,3 bigarreanean.

Gainerako muga-zergen ataletatik —guztiek ere aipatutakoek baino pisu txikiagoa duten—, nekazaritzako produktuen esportazioa nabarmentzen da. Funtsezko ondasuntzat hartzeak jarduera horren bilakaera positiboa ahalbidetu du.

2.1.4. TAULA EAE-REN ONDASUN ETA ZERBITZUEN ATZERRIAREKIKO ESPORTAZIOAK (MUGA-ZERGEN ATALEN ARABERAKO SAILKAPENA)										
		PISUAK	2019				2020		Aldea	
			EUROAK, MILIOITAN				EUROAK, MILIOITAN		I	II
			I	II	III	IV	I	II		
<b>Guztira</b>		<b>100</b>	<b>6.177,6</b>	<b>6.877,3</b>	<b>5.820,5</b>	<b>6.521,5</b>	<b>5.568,5</b>	<b>4.492,9</b>	<b>-9,9</b>	<b>-34,7</b>
1. Animalia bizidunak eta animalia-erreinuko produktuak	Nekazaritzako produktuak	1,0	51,9	74,4	67,9	68,3	55,4	59,9	6,8	-19,4
2. Landareen erreinuko produktuak		0,3	11,6	12,6	19,8	31,4	26,8	20,7	131,8	64,0
3. Gantz eta olio mineral edo begetalak		0,3	9,5	15,2	21,6	30,7	60,6	38,3	537,4	151,2
4. Elikagaien industrietako produktuak eta tabakoa		2,5	147,5	162,0	157,5	177,0	159,4	151,7	8,1	-6,3
5. Produktu eta mineral energetikoak*		8,3	421,1	626,0	517,4	547,4	379,8	233,5	-9,8	-62,7
6. Produktu kimikoak		2,8	176,3	182,7	168,2	172,5	158,8	137,3	-10,0	-24,9
7. Plastikoak eta kautxua		6,3	433,3	398,4	393,4	377,2	409,4	325,6	-5,5	-18,3
8. Larruzalak, larruak, larrugintza eta horien manufakturak		0,0	1,7	2,0	1,6	2,0	3,6	3,1	111,5	56,9
9. Egurra, egur-ikatz, artelazkia eta horien manufakturak		0,4	25,5	31,2	29,9	24,8	21,5	21,4	-15,5	-31,6
10. Papera		2,5	174,2	156,8	151,6	157,1	161,5	137,9	-7,3	-12,0
11. Ehungintzako gaiak eta horien manufakturak		0,5	31,2	30,7	29,9	33,4	34,5	24,5	10,7	-20,4
12. Oinetakoak eta jantzi-osagarriak		0,1	3,2	3,3	4,4	3,0	3,7	2,6	15,6	-22,3
13. Eraikuntzako materialak, zeramika eta beira		1,4	82,5	87,7	89,6	85,2	87,1	49,5	5,6	-43,5
14. Bitxigintza eta imitaziozko bitxiak		0,1	3,3	5,1	5,6	8,1	3,2	2,6	-2,2	-48,7
15. Metal komunak eta horien manufakturak		21,6	1.414,5	1.534,7	1.144,4	1.403,8	1.207,5	1.041,3	-14,6	-32,2
16. Makinak eta gailuak	Ekipamendu-ondasunak	19,8	1.236,2	1.320,1	1.135,7	1.331,8	1.059,3	998,8	-14,3	-24,3
17. Garraio-materiala		29,5	1.799,3	2.072,8	1.716,9	1.901,0	1.558,1	1.112,6	-13,4	-46,3
18. Optikako eta doitasunezko tresnak eta aparatuak		0,9	52,3	56,7	47,7	60,9	49,4	38,7	-5,6	-31,6
19. Armak eta munizioak, horien atalak eta osagarriak		0,4	23,7	27,7	23,8	24,3	20,5	22,1	-13,4	-20,0
20. Salgaiak eta era askotako produktuak		0,8	47,5	54,1	48,2	56,6	44,5	41,1	-6,2	-24,1
21. Artelanak, bildumak edo antzinako gauzak		0,1	16,4	0,7	0,2	0,8	0,5	0,1	-97,1	-86,1
Sailkatu gabeak		0,4	14,9	22,5	45,3	24,5	63,1	29,7	324,3	31,9

\* Muga-zergen atalen arabera, 5. atala "Produktu eta mineral energetikoak"-da, eta bolumena ez dator bat TARIC kodeko 27. kapituluarekin.  
Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.-ECOMEX.

Inportazioen bilakaera esportazioenaren antzekoa izan zen. Hala, erosketen jaitziera % 11,5ekoa izan zen lehen hiruhilekoan eta % 37,9koa bigarreanean.

Esportazioetan gertatu zen bezala, aipatzekoa da nekazaritza-produktuen erosketen hazkundea, bai eta Euskaditik inportatzen diren produktuen hiru multzo nagusien beherakada ere (metal arruntak eta horien manufakturak, 2019ko inportazioen % 20,2; makinak eta aparatuak, % 19,3, eta garraio-materiala, % 6,5). Hala, metal arruntetan eta horien manufaktoretan erosketen balioa urtetik urtera % 20,1 jaitzi zen lehenengo hiruhilekoan, eta % 25,8 bigarreanean; makinetan eta aparatuetan, berriz, jaitziera % 10,7koa izan zen lehenengoan eta % 33,5ekoa bigarreanean, eta garraio-materialetan % 1,2koa lehen hiruhilekoan eta % 41,2koa bigarreanean.

**2.1.5. TAULA EAE-REN ONDASUN ETA ZERBITZUEN ATZERRIAREKIKO INPORTAZIOAK**  
(muga-zergen atalen arabera sailkapena)

	PISUAK	2019				2020		ALDAKUNTZA		
		EUROAK, MILIOITAN				EUROAK, MILIOITAN		I	II	
		I	II	III	IV	I	II			
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>5.159,2</b>	<b>5.267,9</b>	<b>4.719,8</b>	<b>4.974,6</b>	<b>4.564,3</b>	<b>3.269,9</b>	<b>-11,5</b>	<b>-37,9</b>	
1. Animalia bizidunak eta animalia-erreinuko produktuak	Nekazari-tzakako produktuak 2,1	120,2	98,6	102,1	106,5	85,2	72,8	-29,1	-26,2	
2. Landareen erreinuko produktuak	1,9	67,9	99,1	99,8	116,7	101,0	124,9	48,7	25,9	
3. Gantz eta olio mineral edo begetalak	0,7	31,2	47,9	23,4	43,1	56,2	49,0	80,3	2,2	
4. Elikagaien industrietako produktuak eta tabakoa	1,8	91,7	90,1	92,2	89,4	74,1	81,7	-19,2	-9,3	
5. Produktu eta mineral energetikoak*	28,0	1.369,3	1.454,3	1.410,7	1.401,2	1.184,7	466,1	-13,5	-67,9	
6. Produktu kimikoak	6,3	361,0	333,7	315,0	257,8	283,9	235,9	-21,4	-29,3	
7. Plastikokoak eta kautxua	4,6	233,3	237,6	215,6	229,6	233,2	159,7	0,0	-32,8	
8. Larruzalak, larruak, larrugintza eta horien manufakturak	0,1	5,1	3,7	6,0	4,8	7,1	3,3	39,0	-11,6	
9. Egurra, egur-ikatz, artelazkia eta horien manufakturak	0,5	25,7	23,8	24,0	24,0	19,9	18,0	-22,5	-24,2	
10. Papera	2,3	118,9	123,5	109,5	111,4	110,7	99,8	-6,9	-19,2	
11. Ehungintzako gaiak eta horien manufakturak	1,4	73,6	58,7	81,3	65,2	76,5	73,5	4,0	25,1	
12. Oinetakoak eta jantzi-osagarriak	0,3	16,8	13,2	19,4	17,3	19,0	6,3	12,9	-52,2	
13. Eraikuntzako materialak, zeramika eta beira	0,8	43,7	43,8	39,2	42,4	44,1	36,4	1,0	-16,8	
14. Bitxigintza eta imitaziozko bitxiak	0,2	9,3	10,9	12,0	14,7	12,7	10,2	36,4	-6,4	
15. Metal komunak eta horien manufakturak	20,2	1.156,9	1.109,3	879,1	921,0	924,8	822,8	-20,1	-25,8	
16. Makinak eta gailuak	Ekipamendu	19,3	975,4	1.028,1	859,6	1.024,7	871,3	683,9	-10,7	-33,5
17. Garraio-materiala	-ondasunak	6,5	320,6	339,1	295,0	346,5	316,9	199,6	-1,2	-41,2
18. Optikako eta doitasuneko tresnak eta aparatuak	1,6	77,7	81,9	69,2	85,3	76,9	72,9	-1,0	-11,0	
19. Armak eta munizioak, horien atalak eta osagarriak	0,2	10,5	11,7	10,9	11,1	7,4	6,4	-30,1	-45,7	
20. Salgaiak eta era askotako produktuak	1,0	47,3	51,0	53,2	57,9	45,5	39,8	-3,9	-21,9	
21. Artelanak, bildumak edo antzinako gauzak	0,0	0,4	1,0	0,1	0,5	1,8	0,2	407,1	-79,4	
Sailkatu gabeak	0,1	2,7	6,9	2,6	3,4	11,7	6,7	326,2	-3,2	

\* Muga-zergen atalen arabera, 5. atala "Produktu eta mineral energetikoak"-da, eta bolumena ez dator bat TARIC kodeko 27. kapituluarekin. Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.-ECOMEX.

2020ko lehen zortzi hilabeteetan (abuztura arte), esportazioek % 21,2ko beherakada izan dute —hau da, 3.543,5 milioi euro gutxiago—, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. "Produktu energetikoen" esportazioa % 45,6 jaitsi da, eta "produktu ez-energetikoen", berriz, % 19,2.

EUSTATen datuen arabera, 2020ko lehen zortzi hilabeteetan gehien saldu diren hamar produktuek (muga-zergen partiden arabera) 5.140,9 milioi euro egiten dute, hau da, guztizkoaren % 39. Horietatik guztietatik, bakarrak ez du atzera egin aurreko urtearekin alderatuta: "Trenbideetarako ibilgailuen zatiak edo antzekoak" izenekoa izan da, zeinak % 29,5eko igoera izan baitu aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Gainerako partidak 2019ko aldi berean esportatutakoak baino txikiagoak dira. Jaitsiera gehienak 100 milioi eurotik gorakoak izan dira, eta horietatik hiruk 350 milioi eurotik gorako beherakadak izan dituzte; hirurak automobilgintzarekin lotutakoak dira. Hala, "10 pertsona baino gutxiagoko" autoek % 24,3 egin dute behera (359,3 milioi gutxiago); "ibilgailuen zati eta osagarriak", % 30 (360,3 milioi gutxiago), eta "trenbide eta tranbia autopropultsatuetarako automotoreak", % 61,9 (428,5 milioi). "Petrolio olio finduek" ere nabarmen egin dute behera (-% 30,8 eta 267,9 milioi).

2020ko lehen zortzi hilabeteetako sailkapenaren arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztien % 17,1ekin. Alemaniaren atzetik Frantzia (% 15,5), Estatu Batuak (% 6,9) eta Erresuma Batua (% 6,1) datoz: lau herrialdeen artean aldi horretako esportazioen ia % 50 biltzen dute.

Inportazioen metatua, aztertutako aldian, 10.269,3 milioi eurokoa da. Zifra horren urte arteko alderaketa eginda, ikusten da aurreko urteko epe berean baino 3.249,9 milioi gutxiago direla (-% 24). “Produktu energetikoen” inportazioa % 43,7 jaitsi da, eta “produktu ez-energetikoena”, berriz, % 16,8.

Aztertu dugun 2020. urteari dagokionez, ondasunen kanpo-merkataritzak 2.928,4 milioi euroko saldo positiboa izan du. Saldo hori aurreko urteko denbora-tarte berean erregistratutakoa baino 293,6 milioi txikiagoa bada ere, estaldura-tasa onari eusteko aukera ematen du; izan ere, tasa hori % 123,8tik % 128,5era iragan da.

2.1.6. TAULA EAE-REN ONDASUN ETA ZERBITZUEN ATZERRIAREKIKO ESPORTAZIOAK (EUROAK, MILAKA)									
	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK.			SALDOA		
	2019KO ABUZTUA	2020KO ABUZTUA	Aldakuntza	2019KO ABUZTUA	2020KO ABUZTUA	Aldakuntza	2019KO ABUZTUA	2020KO ABUZTUA	Aldakuntza
URTEKO METATUA	16.741.211	13.197.694	-21,2	13.519.251	10.269.314	-24,0	3.221.960	2.928.380	-9,1
PRODUKTU ENERGETIKOAK, METATUA	1.256.451	683.392	-45,6	3.633.414	2.044.829	-43,7	-2.376.963	-1.361.437	-42,7
PRODUKTU EZ- ENERGETIKOAK, METATUA	15.484.760	12.514.302	-19,2	9.885.837	8.224.485	-16,8	5.598.923	4.289.817	-23,4

\* Muga-zergen atalen arabera, 5. atala “Produktu eta mineral energetikoak”-da, eta bolumena ez dator bat TARIC kodeko 27. kapituluarekin.  
Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.-ECOMEX.

## 2.2.2. Eragina enpresa sarean

### a) Gizarte Segurantzaren izena emandako enpresak

Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresei buruzko datuek agerian uzten dute enpresa-sarearen suntsiketa handia gertatzen ari dela. Une honetan, nahiz eta enpresa berriak sortu, aldakortasuna, ziurgabetasuna eta informazio falta direla eta, ez gara gauza azken emaitza/saldoa ezagutzeko.

2020ko martxoan, otsailean —konfinamenduaren aurretik— baino 1.768 enpresa gutxiago zeuden erregistratuta Gizarte Segurantzaren, eta apirilean martxoan baino 339 enpresa gutxiago; horrek adierazten du COVID-19aren krisiek EAEko enpresa-sarean izan duten eragina.

2020ko maiatzean, 57.409 enpresa zeuden (apirilean erregistratutakoak, 56.786, baino 623 gehiago), baina maiatzetik aurrera joera aldatu egin da eta enpresa-kopurua jaisten hasi da abuztura arte. Abuztua eta iraila bitartean, enpresa-kopuruak gora egin du.


Hala, irailan 57.778 dira Euskadin aktibo dauden enpresak; beraz, Gizarte Segurantzaren izena emanda zeudenetatik 1.115 enpresa galdu dira otsailetik irailera bitartean. Urte arteko datuei erreparatuta, % 1,7ko jaitsiera izan da aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

Estatuan batez beste gertatzen ari denari erreparatuta, Euskadiko enpresen urtetik urterako jaitsiera txikiagoa da lurraldearen gainerakoena baino, eta osasun-krisia hasi zenetik, enpresa-kopurua nabarmenago murriztu da Estatuan Euskadin baino. Horrela, 2019ko martxotik 2020ko martxora, enpresen kopuruaren jaitsiera % 3,7koa izan zen Euskadin, eta Estatuan, berriz, % 7,4koa; 2019ko apiriletik 2020ko apirilera, % 3,9koa Euskadin eta % 7,9koa Estatuan, eta 2019ko irailetik 2020ko irailera % 1,7koa Euskadin eta % 3,1ekoa Estatuan.

2.1.7. TAULA GIZARTE SEGURANTZAN IZENA EMANDAKO ENPRESAK					
		EAE		EGOERA	
		ENPRESA KOP.	URTE ARTEKO ALDAKUNTZA	ENPRESA KOP.	URTE ARTEKO ALDAKUNTZA
2018	URTARRILA	58.645	0,4	1.312.263	1,3
	OTSAILA	58.699	0,1	1.307.311	0,9
	MARTXOA	58.993	0,3	1.321.602	1,6
	APIRILA	59.005	-0,2	1.327.859	0,7
	MAIATZA	59.418	0,4	1.334.776	1,0
	EKAINA	59.410	1,0	1.342.696	2,0
	UZTAILA	58.439	0,0	1.325.845	1,2
	ABUZTUA	57.895	0,1	1.311.299	1,0
	IRAILA	59.058	0,0	1.335.474	1,5
	URRIA	58.991	0,1	1.320.683	1,1
	AZAROA	59.170	0,2	1.324.883	1,0
ABENDUA	59.263	0,4	1.346.629	1,5	
	EGUTEGIAREN ERAGINAK ZUZENDUTA. PREZIO KONSTANTEAK			LANA DUTEN LANGILEAK  (URTORORIK GABEKO DATUAK)	EGUTEGIAREN ERAGINAK ZUZENDUTA. PREZIO KONSTANTEAK			LANA DUTEN LANGILEAK  (URTORORIK GABEKO DATUAK)
	INDIZE OROKORRA	SALMENTAK			INDIZE OROKORRA	SALMENTAK		
		ELIKAGAIK	GAINERAKO PRODUKTUAK	ELIKAGAIK		GAINERAKO PRODUKTUAK		
2019-MARTXOA	-1,1	-2	0,8	3	1,3	0,4	2,8	2,9
2019-APIRILA	3,9	6,1	-0,8	3,5	1,9	1,8	2	3,1
2019-MAIATZA	3,8	4,8	1,7	1,6	2,3	2,4	1,9	2,8
2019-EKAINA	-1,8	-1,1	-3,2	1,1	1,6	1,8	1	2,5
2019-UZTAILA	3,5	4,7	1,6	2	1,9	2,2	1,1	2,4
2019-ABUZTUA	0,9	2	-1,2	1	1,7	2,2	0,8	2,2
2019-IRAILA	0,7	-0,1	2,2	1,9	1,6	2	1	2,2
2019-URRIA	-2,9	-0,3	-7,9	-1,1	1,1	1,7	0,1	1,9
2019-AZAROA	4,5	3,6	6,4	0,4	1,5	1,9	0,7	1,7
2019-ABENDUA	-0,4	-0,8	0,3	0,2	1,3	1,6	0,6	1,6
2020-URTARRILA	-1,8	0	-4,7	1,6	-1,8	0	-4,7	1,6
2020-OTSAILA	6,5	8	3,4	1,8	2	3,9	-1,4	1,7
2020-MARTXOA	0,3	17,3	-37	1,8	1,4	8,5	-12,1	1,7
2020-APIRILA	-5,4	21	-64,4	1,1	-0,2	11,7	-23,9	1,6
2020-MAIATZA	-5,2	9,2	-35,9	1,4	-1,3	11,2	-26,3	1,5
2020-EKAINA	10,1	9,6	11,1	1,2	0,6	10,9	-20	1,5
2020-UZTAILA	2,2	3,8	-0,5	1,5	0,9	9,9	-16,8	1,5
2020-ABUZTUA	3,9	2,7	6,3	1	1,2	9	-13,9	1,4

Iturria: EUSTAT, Azalera handiko saltokietako eta elikadura-kateetako merkataritza-indizea. 2020/09/28

### 2.2.3.7. Turismoa eta ostalaritza

#### Testuingurua

Martxoaren 19ko SND/257/2020 Aginduaren 1. artikulua ezarri zuen ez direla jendearentzat irekiko Estatuko edozein lekutan kokatutako hotel eta antzeko bizitoki, turismo-ostatu eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuk, kanpinak, karabanentzako aparkalekuak eta antzeko beste establezimendu batzuk. 2. artikulua, bestalde, lehen apartatuan aurreikusitako turismo-establezimenduak jendearentzat irekitzeko aukera ematen zuen, baldin eta alarma-egoera deklaratzeko unean sasoiko bezeroak bazeuden modu egonkorrean ostatu hartuta, betiere establezimendu horietako okupatzaileek azpiegiturak badituzte beren bizitegi-espazioetan, premia biziko jarduerak egin ahal izateko, Osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan<sup>7</sup>.

Larrialdi-egoera altxatzea arinaldi bat izan zen sektorearentzat, baina Estatuko Gobernuak abuztuaren erdialdean hartutako neurriak aplikatzeak eta Eusko Jaurlaritzak berriz ere EAEko osasun-alerta egoera deklaratzeko (abuztuaren 17an) ostalaritza-sektorerako murrizketa berriak ekarri dituzte, bereziki III. eta IV. multzoentzat, nahiz eta III. multzoak, azkenean, bere jarduerari eutsi ahal izan dion II. multzoaren itxiera-ordutegia aplikatuz.

<sup>7</sup> Ez da inola ere sartzen establezimendu medikalizatuen jarduerak.

**ITXIERA-ORDUTEGI OROKORRAK, OTSAILAREN SEKO 17/2019 DEKRETUAREN ARABERA (JENDAUURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN LEGEA GARATZEKO ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUENA).**

32.2 artikulua arabera, hau da ikuskizunak eta jolas-jarduerak egingo diren establezimendu eta lekuen itxiera-ordutegi orokorra:

<b>I. multzoa: 23:00etan</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zezen-plazak eta aire zabaleko beste kultura- eta arte-establezimendu batzuk, hala nola udako edo aire zabaleko zinemak, autoentzako zinemak, edo aire zabaleko antzokiak eta auditorioak.</li> <li>• Jolas-establezimenduak.</li> <li>• Aire zabaleko jolas-atrakzioetako establezimenduak.</li> <li>• Aire zabaleko kirol-establezimenduak.</li> <li>• Zoologia-, botanika-eta geologia-jarduerak egiteko establezimenduak.</li> <li>• Dastategiak, txokolategiak, izozki-dendak, te-aretoak, zuketegiak, croissantegiak, bokategiak eta antzekoak.</li> <li>• Kiosko-tabernak.</li> </ul>
<b>II. multzoa: 01:00etan</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontzertu aretoak.</li> <li>• Zirkuak eta beste kultura- eta arte-establezimendu batzuk lokal itxietan.</li> <li>• I. multzoan sartzen ez diren kirol-establezimenduak.</li> <li>• Jolas-atrakzioetako establezimenduak, lokal itxietan.</li> <li>• Azokak eta jai herrikoiak egiteko gunek.</li> <li>• Azoka-pabiloiak.</li> <li>• I. edo III. multzoetan sartzen ez diren ostalaritza-establezimenduak.</li> <li>• Txokoak eta sozietate gastronomikoak.</li> <li>• Erretzaileen klub pribatuak.</li> <li>• Gazteen etxabeak.</li> </ul>
<b>III multzoa: 02:30ean.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pub eta taberna bereziak.</li> <li>• Aisialdi erotikoko establezimenduak.</li> </ul>
<b>IV. multzoa: 04:30ean.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak, adingabeentzako edo gazteentzako saioetarako xedatutakoari kalterik egin gabe.</li> </ul>

3. artikulua arabera, joko-establezimenduak ixteko ordutegi orokorra hau izango da:

<b>II. multzoa: 01:00etan</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Joko-aretoak, apustu-lokalak, hipodromoak, kanodromoak.</li> </ul>
<b>III multzoa: 02:30ean.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bingo-aretoak</li> </ul>
<b>IV. multzoa: 04:30ean.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Joko-kasinoak.</li> </ul>

**COVID-19aren eraginari buruzko txostenaren emaitza nagusiak. Euskadi. Turismo-sektorea 2020-3-16/2020-4-21**

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak (XI. legegintzaldia) informazio-bilketa bat egin zuen euskal turismo-sektorean, COVID-19ak turismo-industriako enpresetan izandako duen eragina neurtzeko. Informazio hori jaso zen martxoaren 16tik apirilaren 6ra bitarteko lehen olatuan eta apirilaren 7tik 21era bitarteko bigarren olatuan. 604 enpresaren erantzunean oinarrituta dago, eta, guztira, 625 inprimaki bete behar izan dira. “COVID-19aren eragina. Euskadi. Turismo-sektorea. 2020-3-16/2020-4-21” txostenean jaso da.

Hauk dira emaitza nagusiak<sup>8</sup> (apirilaren 21ean):

- Hotel-establezimenduak: orain arte 39 milioi euroko galerak izan dituzte, erantzuna eman zuten 80 hotel-establezimenduen artean (Euskadiko hotel-establezimendu guztien % 26 dira, eta eskainitako plazen % 59 hilean). Aurreikuspenen arabera, 2020ko urteko fakturazioa % 55 jaitsiko da 2019koarekin alderatuta. Erantzun zuten establezimenduen artean 1.990 enplegu deklaratu dira (hau da, Euskadiko hotel-establezimendu guztien enplegu zuzen guztien % 53). Ukitutako enpleguen artean, langileen % 60 baino gehiago ABEEE batean dauden langile finkoak dira, lanaldiaren % 100a dutenak. Hotel gehienetan erreserben % 80 baino gehiago bertan behera utzi edo aldatu ziren apirilean, maiatzean eta ekainean. Udako eta udazkeneko hilabeteetarako, berriz, hotel-establezimendu gehienetan, data aldatzeko edo bertan behera uzteko kopuruak erreserba guztien % 50era edo % 25era jaitsi ziren.
- Nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak: orain arte 933.434 euroko galerak izan dituzte, erantzun zuten 170 enpresen artean (sektorearen<sup>9</sup> % 42 dira eta hilean eskainitako plazen % 50 hartzen dute).

<sup>8</sup> Txostenaren arabera, informazioa aldian-aldian eguneratuko da osasun-larrialdiak eta haren ondorio ekonomikoek irauten duten bitartean.

<sup>9</sup> Eta Nekatur Euskadiko nekazalturismo eta landetxeen elkarteko kideen % 71.

Aurreikuspenen arabera, 2020ko urteko batez besteko fakturazioa % 71 jaitsiko da 2019koarekin alderatuta. Erantzun zutenen artean, 221 lanpostu daude ukituta, hau da, sektore horretan sortutako enpleguaren % 47. Ukitutako lanpostuen ia % 100 profesional autonomoenak dira, eta horien erdiak ezin izan dute aparteko prestazioa jaso apirilaren 21ean. % 100 horretatik, % 86k ez zuen langilerik kontratatuta. Okupazio-maila nabarmen jaitsi zen, batez ere apirilean (-% 97), maiatzean (-% 91) eta ekainean (-% 82), 2019ko aldi berdinekin alderatuta.

- Kanpinak: orain arteko galerak 542.500 eurokoak izan dira erantzun zuten 12 kanpinen artean (Euskadiko Kanpinen Federazioaren guztizkoaren % 55 eta hilean eskainitako plaza guztien % 35 dira). Aurreikuspenen arabera, 2020ko urteko batez besteko fakturazioa % 60 jaitsiko da 2019koarekin alderatuta. Kanpin horiek 111 enplegu deklaratu zituzten, eta horietatik % 70 lanaldiaren % 100a izan eta ABEEE batean dauden langile finkoak edo aldi baterakoak dira. Apirilean eta maiatzean, erreserba guztien % 75etik gorako deuseztatzeak edo aldaketak erregistratu zituzten kanpinek. 2020ko hilabete guztietan, okupazio-mailak beherakada handiak izan zituela kalkulatu zen, batez ere apirilean (-% 83), maiatzean (-% 100) eta ekainean (-% 85).
- Etxebizitza turistikoak: orain arteko galerak 3,5 milioi eurora iristen dira etxebizitza turistikoak kudeatzen dituzten enpresetan, erantzun zuten 394 etxebizitzaren arabera (Aparture Euskadiko Erabilera Turistikoko Etxebizitzaren Elkarteari lotutakoen % 83 dira). Aurreikuspenen arabera, 2020ko urteko batez besteko fakturazioa % 70 jaitsiko da 2019koarekin alderatuta. Erantzun zutenen artean 127 lanpostu daude, eta horietatik % 59 ABEEE baten pean dauden langile finkoak dira, lanaldiaren % 100 edo % 50 dutenak. Apirilean eta maiatzean, enpresa horietan erreserba guztien % 80 baino gehiago deuseztatu ziren edo data-aldaketak izan ziren. 2020ko hilabete guztietan, okupazio-mailak beherakada handiak izan direla kalkulatu zen, batez ere apirilean (-% 99), maiatzean (-% 97) eta ekainean (-% 87).
- Bidaia-agentziak: formularioari erantzun dioten tipologia guztietako bidaia-agentzia guztien (23) orain arteko galera metatuak 15,7 milioi eurokoak dira. Aurreikuspenen arabera, 2020ko urteko batez besteko fakturazioa % 81 jaitsiko da 2019koarekin alderatuta. Egoerak 820 zuzeneko lanposturi eragiten die.
- Kongresuak, azokak eta bestelako ekitaldiak (musikalak, kiroltakoak), turismo mota horretarako bi aktore nagusiren informazioa jasoz, hala nola egoitzak eta beste kongresu- eta azoka-zentro batzuk eta KAPak (kongresuen antolatzaile profesionalak).

Kongresu eta azokak hartzen dituzten egoitzak: orain arte 20 milioi euroko galerak izan dituzte, erantzun duten 18 egoitzetatik (Euskadiko guztizkoaren % 53 dira, hiri bakoitzari dagokion Convention Bureauko bazkide-kopurua erreferentziatzat hartuta). Aurreikuspenen arabera, 2020ko urteko batez besteko fakturazioa % 46 jaitsiko da 2019koarekin alderatuta. Egoerak gutxi gorabehera 311 enplegutari izango du eragina. Eragindako enplegutik, % 55 langile finkoak edo aldi baterakoak dira, neurrien eraginpean ez daudenak, eta % 29 oraindik zehaztu gabe dauden langile finkoak. Martxoan, apirilean eta maiatzean lortzen dira aurreikusitako ekitaldien behin betiko baliogabetzeen edo data-aldaketen zifra handienak. Gertakarien data-aldaketen ondorioz, ekitaldi horiek 2020. urtearen amaierarako eta 2021. urterako atzeratu dira. Biltzar eta azoketako egoitzen % 63k bertan behera utzitako ekitaldien erreserba guztien deuseztatze-gastuak itzuli zituzten.

Biltzarren antolatzaile profesionalak: orain arte, galerak 993.622 eurokoak izan dira erantzun duten biltzarren 7 antolatzaile profesionalen artean (OPCE Euskadiko Biltzar eta Ekitaldi Profesionalen Enpresa Antolatzaileen Elkartearen kide guztien % 100 dira). Aurreikuspenen arabera, 2020ko urteko batez besteko fakturazioa % 68 jaitsiko da 2019koarekin alderatuta. Jardueraren sektoreko enpresa antolatzaileen artean, 115 lanposturi eragiten die; horietatik, % 55 langile finkoak dira, lanaldiaren % 100ean edo % 50ean, eta % 22 langile finkoak edo aldi baterakoak, neurrien eraginpean ez daudenak. Kongresuen edo ekitaldien data-aldaketen deuseztatzeak baino zertxobait gehiago dira; zehazki, kasuen % 52an datak aldatu dira, eta kasuen % 47an, berriz, kongresuak edo ekitaldiak erabat deuseztatu dira. Ekitaldien data-aldaketen ondorioz, % 42 baino gehiago 2021era edo 2022ra atzeratu dira. Euskadiko biltzarren antolatzaile profesionaletatik gehienek ez dizkiete bezeroei ekitaldi

horietarako kitapen gastuak kobratu. Ezeztatutako ekitaldien erdia baino gehiagoren kasuan, Euskadiko biltzarren antolatzaile profesionalak ez dira hornitzaileei egindako gordailuen itzulketak jasotzen ari.

- Turismo aktiboa (naturako turismoa): orain arte, galerak 1,7 milioi eurokoak izan dira turismo aktiboko erantzuna eman zuten 32 zerbitzu-enpresen artean [AKTIBArekin (Euskadiko Turismo aktiboko enpresen elkarte) elkartutako turismo aktiboko zerbitzu-enpresa guztien % 64 dira]. Aurreikuspenen arabera, 2020ko urteko batez besteko fakturazioa % 80 jaitsiko da 2019koarekin alderatuta. Erantzuna eman duten enpresen artean, zuzeneko 229 lanpostu daude; horietatik, honako egoera hauek nabarmendu behar dira: % 36 berriro gabeko aldi baterako enpleguak dira, edo oraindik ez da zehaztu haien egoera; % 22 langile finkoak edo aldizkako langile finkoak dira, eta % 11k aparteko prestazioa eskatu dute; eta % 7k ez dute aparteko prestazio hori eskatu. Erreserben behin betiko deuseztatzeak (% 78) data aldatu dutenen kasuak baino gehiago dira. Udaberriko, udako eta urte amaierako hiletan lortzen dira behin betiko ezeztapenen edo data-aldaketen zifra handienak. Erreserbetan jaitziera handiak aurreikusten dira 2020ko hilabete guztietan 2019ko aldi berdinekin alderatuta, batez ere apirilean (-% 100), maiatzean (-% 93), abuztuan (-% 91) eta azaroan (-% 100).
- Turismo-gidak: orain arte 327.446 eurora iritsi da erantzun duten turismo-giden zerbitzuetan izandako galeren metaketa, erantzuna eman duten turismo-giden 26 zerbitzu-enpresen artea. Enpresa horiek, nagusiki, pertsona bakarreko enpresak dira, eta APITeri (Euskadiko Turismo Giden Elkarte profesionala) atxikitako enpresa guztiak eta laguntzaileak ordezkatzeko dituzte. Datua zehazteke badago ere, kalkulatu da 2020ko urteko batez besteko fakturazioaren jaitziera % 36koa izango dela 2019koarekin alderatuta (maiatzera arteko datua). Erantzunen arabera, 26 lanposturi eragingo diela kalkulatu da. Profesional autonomoak dira guztiak, eta horien % 90ek baino gehiagok ezohiko prestazioa jaso dute. Behin betiko ezeztapenak (% 99) ia guztiak dira, data aldatu zaien erreserben aldean. Martxotik ekainera bitarteko epean behin betiko baliogabetzeen edo data-aldaketen kopuru handienetara iristen da, baita hilabete horietako gehienetan erreserben % 100eraino ere. Erreserbak nabarmen jaitzi dira 2020ko martxotik uztaile bitartean, eta abuztutik aurrera ziurgabetasun-egoera izan da.
- Ostalaritza (Euskadiko jatetxeak, tabernak, kafetegiak eta pubak). Ostalaritza-sektoreak eragin larria izan du, zalantzarik gabe, establezimenduak nahitaz itxi behar izan direlako (SND/257/2020 Agindua). Hau da, enpresen ia % 100ek eragin handia izan dute.

Txosten horretarako, Euskadiko ostalaritzako hiru elkarteek honako hau adierazi zuten:

- ✓ SEA Ostalaritza (Arabako ostalaritza-enpresen elkarte):
  - Sea Ostalaritza 52 enpresak osatzen dute, eta 630 langile biltzen dituzte.
  - Txostenaren datan, langileen % 85 (44 enpresa) ABEEE egoeran zeuden.
  - Fakturazioa % 75etik gora jaitzi da enpresen % 100en kasuan.
- ✓ Gipuzkoako Ostalaritza Enpresaburuen Elkarte:
  - 1.050 enpresa ordezkatzeko dituzte, 8.000 langile, gutxi gorabehera. Lan-kudeaketa 466 enpresatara eramaten dute.
  - 466 enpresa horietatik, % 90 (419 enpresa) aldi baterako lan-erregulazioko egoeran edo jardueraren etenaldian (autonomoak) zeuden.
- ✓ Bizkaiko Ostalaritzako Elkarte:
  - 1.400 bazkide ordezkatzeko dituzte eta 400 enpresaren lan-kudeaketa daramate, hau da, 3.000 langilerena.
  - 400 enpresa horietatik, % 97 (388 enpresa) ABEEE baten pean zeuden.

### Turismo-sektorearen jardueraren bilakaera, EUSTATEk argitaratutako datuetatik abiatuta

EUSTATen datuek erakusten dute 2020ko martxoan EAEko 1.147 turismo-ostatuaren % 82,2 zeudela aktibo, baina apirilean ratioa % 9,5era jaitsi zela. Hau da, % 90,5 itxi zen eta, beraz, COVID-19ak eragin izugarria izan zuen EAEko sektore horretan.

Maiatzaren 9ko SND/399/2020 Agindua aldarrikatu zenetik, zeinaren bidez ezartzen baita zein muga eta baldintzatan ireki ahal izango diren berriz irekitzea eten zuten establezimenduak, jarduera pixkanaka suspertzen joan da, baina modu apalean. Hala, maiatzean establezimenduen % 34,9 ireki zituzten, ekainean % 63,6 eta uztailean % 82,3; 2019an, berriz, % 92,1 eta % 93,6 egon ziren irekita, hurrenez hurren.

2.1.26 TAULA JARDUERAREN BAT DUTEN ETA ITXITA DAUDEN TURISMO-OSTATUEN HILEKO BILAKAERA EAE-N.				
	ITXITAKO AKTIBOAK		GUZTIRA	AKTIBOEN GUZTIZKOAN ZENBAT EGITEN DUTEN (%)
2020-MARTXOA	943	204	1.147	82,2
2020-APIRILA	109	1037	1.146	9,5
2020-MAIATZA	400	745	1.145	34,9
2020-EKAINA	730	417	1.147	63,6
2020-UZTAILA	949	204	1.153	82,3
2019-EKAINA	1.031	88	1.119	92,1
2019-UZTAILA	1.047	72	1.119	93,6

*Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta. Prentsa oharrak*

2.1.27 TAULA EAE-N JARDUERAREN BAT IZAN DUTEN ETA ITXITA EGON DIREN HOTEL-ESTABLEZIMENDUEN, LANDETXEEN ETA APARTAMENTU TURISTIKOEN BILAKAERA.

	HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK (HE)			LANDETXEAK (L)			APARTAMENTU TURISTIKOAK (AT)			GUZTIRA (EH+AR+AT)		
	AKTIBOAK (%)	ITXITA (%)	GUZTIRA	AKTIBOAK (%)	ITXITA (%)	GUZTIRA	AKTIBOAK (%)	ITXITA (%)	GUZTIRA	AKTIBOAK (%)	ITXITA (%)	GUZTIRA
2020-MARTXOA	85,9	14,1	619	76,9	23,1	428	82	18		82,2	17,8	1.147
2020-APIRILA	9,0	91,0	619	7,3	92,7	427	22	78		9,5	90,5	1.146
2020-MAIATZA	30,4	69,6	618	39,1	60,9	427	45	55		34,9	65,1	1.145
2020-EKAINA	60,2	39,8	618	66,6	33,4	428	73	28		63,6	36,4	1.147
2020-UZTAILA	82,4	17,6	619	81,4	18,6	431	88	15		82,3	17,7	1.153
2020-ABUZTUA	85,8	14,2	620	83,9	16,1	428						
2019-EKAINA	94,1	5,9	614	88,6	11,4	420						
2019-UZTAILA							95,3	4,7	85			
2019-ABUZTUA	94,9	5,1	612	91,9	8,1	419						

Taulara hau egiteko EUSTATEk hileroko argitaratzen dituen prentsa-oharretan argitaratutako datuak erabili dira.

*Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta.*

Ostatu-mota bereiziz, honako hau esan dezakegu:

- Hotel-establezimenduak: erregistratutako 619 hoteletatik 2020ko martxoan % 85,9 irekita zeuden bitartean, apirileko ratioa % 9ra jaitsi zen. Hau da, % 91 jendearentzat itxi zuten. Maiatzean % 30,4 egon zen jardunean, ekainean % 60,2, uztailean % 82,4 eta abuztuan % 85,8.

Hala, EAE osoan, 2020ko abuztuan hotel-jardueraren bat izan duten hotel-establezimenduen 2020ko martxoan pandemiaren hasieran zuten maila berreskuratu dute, 2019ko abuztuan zenbatutakoan azpitik egon arren. Zehazki, 532 hotel-establezimendu egon ziren irekita 2020ko abuztuan, 2020ko uztailean baino 510 gehiago, baina ez ziren iritsi 2019ko abuztuan jardueraren bat erregistratu zuten 581eko kopurura.

- Landetxeak: 2020ko martxoan 428 landetxeen % 76,9 zeuden irekita eta apirileko ratioa % 7,3ra jaitsi zen (hau da, % 92,7 itxi zuten). Maiatzean % 39,1 egon da aktibo, ekainean % 66,6, uztailean % 76,9 eta abuztuan % 83,9.

Hala, 2020ko abuztuan ostatua eskaini duten landetxeak 359 izan dira, 2020ko uztaileko 351eko kopurutik gora, baina 2019ko abuztuko 385eko kopurutik behera.

- Apartamentu turistikoak: 2020ko martxoan apartamentuen % 82 jardunean egon ziren; apirilean, berriz, ratioa % 22ra jaitsi zen, eta 2020ko uztailean % 88 berreskuratu zen (2019ko uztaileko % 95,3aren azpitik).

2.1.28 TAULA EAE-KO HOTEL-ESTABLEZIMENDUEN ETA LANDETXEEN OSTATU-GAUAK ETA SARRERAK										
		HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK			LANDETXEAK			APARTAMENTU TURISTIKOAK		
		SARRERAK	OSTATU-GAUAK	PLAZA BAKOITZEKO OKUPAZIO-MAILA	SARRERAK	OSTATU-GAUAK	PLAZA BAKOITZEKO OKUPAZIO-MAILA	SARRERAK OSTATU-GAUAK		PLAZA BAKOITZEKO OKUPAZIO-MAILA
2019	MARTXOA	238.822	442.383	48,4	10.622	20.894	17,3	6.085	20.613	25,1
	APIRILA	276.415	538.485	58,5	15.088	37.927	29,7	8.184	26.730	33,7
	MAIATZ A	295.055	574.422	60,4	15.688	33.288	25,1	7.523	26.548	30,9
	EKAINA	298.247	581.962	63,1	16.035	37.217	28,9	9.346	29.374	34,8
	UZTAILA	328.082	692.414	71,1	21.471	64.462	46,4	10.944	39.636	45,3
	ABUZTU A	357.035	780.269	79,6	23.536	90.486	64	11.748	44.323	51,7
	IRAILA	316.931	627.884	67,3	19.311	46.000	34,3	8.157	29.319	34,9
	URRIA	296.538	575.756	59,8	14.976	30.878	22,9	8.047	26.454	29,8
2020	AZAROA	228.196	435.322	48,5	9.452	20.844	16,7	5.960	21.401	25,5
	ABE.	208.813	384.037	44,1	10.924	25.917	21,4	6.353	22.102	26,7
	URTARRILA	173.318	320.535	38,5	4.808	14.749	14,2	4.288	17.442	22,2
	OTS.	206.297	372.130	45,7	6.948	14.853	14,3	5.307	19.331	25,9
	MARTXOA	67.544	150.221	29,9	2.778	6.247	10,8	2.110	11.446	22,3
	APIRILA	1.467	13.027	34,9	230	1.784	38,4	576	6.570	18,3
	MAIATZ A	7.764	30.049	21,0	996	5.001	13	954	7.869	16,3
	EKAINA	47.669	89.823	23,1	5.063	14.847	17,3	2.854	11.022	16,3
URTE ARTEKO ALDAKUNTZA	UZTAILA	179.843	340.376	42,0	14.054	44.051	34,8	7.942	27.754	30,7
	ABUZTUA	216.967	444.267	49,8	18.355	63.740	48,8			
	MARTXOA	-71,7	-66,0		-73,8	-70,1		-65,3	-44,5	
	APIRILA	-99,5	-97,6		-98,5	-95,3		-93,0	-75,4	
	MAIATZA	-97,4	-94,8		-93,7	-85,0		-87,3	-70,4	
	EKAINA	-84,0	-84,6		-68,4	-60,1		-69,5	-62,5	
	UZTAILA-	-45,2	-50,8		-34,5	-31,7		-27,4	-30,0	
	ABUZTUA-	-39,2	-43,1		-22,0	-29,6				

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta.

Orain, sarreraren, ostatu-gauen eta plaza bakoitzeko okupazio-mailaren bilakaera aztertuko dugu, lehenik eta behin, sektorearen jardura geldirik egon zen aldian, eta, gero, maiatzaren 9ko SND/399/2020 Agindua aldarrikatu ondoren.

- Hotel-establezimenduak: 2020ko otsailean 206.297 sarrera erregistratu ziren, martxoan 67.544, eta apirilean 1.467. Horrela, % 71,7ko beherakada izan da 2020ko martxoan 2019ko martxoarekin alderatuta, eta % 99,5koa apirilean.

2020ko martxoan 150.221 ostatu-gau izan ziren, hau da, aurreko urteko martxoan baino % 66 gutxiago; hau da, 292.162 ostatu-gau gutxiago. Apirilean, ostatu-gauak 13.027 izan ziren, hau da, % 97,6 gutxiago 2020ko apirilarekin alderatuta.

- Landetxeak: 2020ko otsailean 6.948 sarrera erregistratu ziren, martxoan 2.778, eta apirilean 230. Horrela, % 73,8ko beherakada izan da 2020ko martxoan 2019ko martxoarekin alderatuta, eta % 98,5koa apirilean.

2020ko martxoan 6.247 ostatu-gau izan ziren, hau da, aurreko urteko martxoan baino % 70,1 gutxiago. Apirilean, ostatu-gauak 1.784 izan ziren, hau da, % 95,3 gutxiago 2020ko apirilarekin alderatuta.

- Apartamentu turistikoak: 2020ko otsailean 5.307 sarrera erregistratu ziren, martxoan 2.110, eta apirilean 576. Horrela, % 65,3ko beherakada izan da 2020ko martxoan 2019ko martxoarekin alderatuta, eta % 93koa apirilean.

2020ko martxoan 11.446 ostatu-gau izan ziren, hau da, aurreko urteko martxoan baino % 44,5 gutxiago. Apirilean, ostatu-gauak 6.570 izan ziren, hau da, % 75,4 gutxiago 2020ko apirilarekin alderatuta.

Maiatzaren 9ko SND/399/2020 Agindua aldarrikatzearekin batera, egoera hobetzen hasi zen, baina pixka bat besterik ez, eta urtebete lehenagoko erregistroen aldean izandako jaitsierek nabarmenak izaten jarraitzen dute. Argitaratutako azken datuen arabera, erregistro hauek ditugu:

- Hotel-establezimenduak.

2020ko uztailean 179.843 sarrera erregistratu ziren, hau da, % 45,2 gutxiago 2019ko uztailearekin alderatuta. Ostatu-gauak, bestalde, % 50,8 jaitsi dira 2020ko uztailearekin alderatuta. Plaza bakoitzeko okupazio-mailak<sup>10</sup> ere COVID-19ak sektorean izan duen eragin negatiboa erakusten du: 2019ko uztailean adierazlea 71,1era iritsi zen, eta 2020ko hilabete berean, berriz, ez da 46 izatera iritsi.

2020ko abuztuan, 2020ko uztailean baino 37.124 sarrera gehiago erregistratu ziren, hau da, 216.967 sarrera. Hala ere, magnitude-mota hori % 43,1 jaitsi da 2019ko abuztuarekin alderatuta. Ostatu-gauak, bestalde, igo egin dira 2020ko uztailearekin alderatuta, baina % 43,1 jaitsi dira 2019ko abuztuarekin alderatuta. Plaza bakoitzeko okupazio-maila 49,8koa da.

Sektorearen errentagarritasun-adierazleei dagokienez, EAEko hotelen eguneko batez besteko tarifa (ADR) 91,9 eurokoa izan da 2020ko abuztuan, aurreko urtean baino % 21,8 gutxiago. Logela erabilgarri bakoitzeko diru-sarrerak (RevPar), hotel-establezimenduen okupazio-mailaren arabera, 50,8 eurokoak izan dira 2020ko abuztuan, 2019ko abuztuan baino % 49,1 gutxiago.

- Landetxeak.

2020ko uztailean 14.054 sarrera erregistratu ziren, hau da, % 34,5 gutxiago 2019ko aldi berarekin alderatuta. Ostatu-gauak, bestalde, % 31,7 jaitsi dira 2020ko uztailearekin alderatuta. Plaza bakoitzeko okupazio-mailari dagokionez, 2019ko uztailean adierazlea 46,4ra iritsi zen, eta 2020ko hilabete berean, berriz, 34,8ra.

2020ko abuztuan 18.355 sarrera erregistratu ziren, hau da, % 22 gutxiago 2019ko aldi berarekin alderatuta. Ostatu-gauak, bestalde, % 29,6 jaitsi dira 2019ko uztailearekin alderatuta. Plaza bakoitzeko okupazio-maila 49,8koa da.

- Apartamentu turistikoak:

2020ko uztailean 7.942 sarrera erregistratu ziren, hau da, % 27,4 gutxiago 2019ko aldi berarekin alderatuta. Ostatu-gauak, bestalde, % 30 jaitsi dira 2019ko uztailearekin alderatuta. Plaza bakoitzeko okupazio-mailari dagokionez, 2019ko uztailean adierazlea 45,3ra iritsi zen, eta 2020ko hilabete berean, berriz, 30,7ra.

Datuek hotel-sektorean erakusten dute eragin negatibo handiena. Eta landa-ostatuen eta apartamentu turistikoen artean, lehenengoek jasan dituzte kalte handienak.

<sup>10</sup> Honela definitzen da: ostatu-gauen gutzitzaoren eta eskainitako plaza-kopuruaren (edo logelen, dagokionaren arabera) arteko erlazioa, erreferentziako hilabeteak duen egun-kopurua kontuan hartuta.

### 2.2.3.8. Airezko garraioa

Hegazkintza zibileko datuen arabera, 2020ko urtarrila eta abuztua artean 1.280.503 bidaiari igaro ziren Bilboko aireportutik, hau da, 2019ko epe berarekin alderatuta, % 67,5 gutxiago. Udako hiru hilabeteetan (ekainean, uztailan eta abuztuan), jaitsiera % 98koa, % 75koa eta % 61,3koa izan da, hurrenez hurren, aurreko urteko hilabete berdinekin alderatuta. Bestalde, 2020ko urtarrila eta abuztua bitartean 257.682 kg salgai garraiatu ziren guztira, hau da, % 60,3 gutxiago 2019ko aldi berarekin alderatuta.

Gasteizko aireportuaren kasuan, salgaien trafikoa ez da hain modu nabarmenean murriztu. Hala, 2020ko urtarrila eta abuztua bitartean 39.173 tona salgai garraiatu dira, hau da, % 6,5eko jaitsiera izan da aurreko urteko epe berarekin alderatuta. Izan ere, 2020ko abuztuan % 8,3ko igoera izan da 2019ko abuztuarekin alderatuta. Bestalde, 2020ko urtarrila eta abuztua bitartean 33.788 bidaiari igaro ziren, hau da, % 71,8 gutxiago 2019ko aldi berarekin alderatuta.

Donostiako aireportuan, bidaiarien trafikoaren jaitsiera-ratioa % 69,9koa izan da 2019tik 2020ra bitartean (urtarriletik abuztura).

2.1.29 TAULA AIREKO TRAFIKO ZIBILAREN BILAKAERA, KONTZEPTUAREN ETA AIREPORTUAREN ARABERA												
	ESTATUA, GUZTIRA			GASTEIZ			BILBO			DONOSTIA		
	Aireontziak	Pertsonak (milakotan)	Salgaiak (TM.)	Aireontziak	Pertsonak	Salgaiak (kg.)	Aireontziak	Pertsonak	Salgaiak (kg.)	Aireontziak	Pertsonak	Salgaiak (kg.)
2019KO URTARRILA-ABUZTUA	1.604.670	186.877	671.697,9	7.375	119.643	41.913.808	34.637	3.944.895	648.622	4.401	210.189	
2019KO EKAINA	226.357	27.289,4	77.018	1.026	16.220	5.416.843	4.874	584.053	71.035	588	31.061	
2019KO UZTAILA	241.739	29.428,1	88.393	1.130	17.565	6.281.953	4.930	603.139	77.669	652	32.933	
2019KO ABUZTUA	235.573	29.498,4	83.743	969	19.576	4.113.193	4.396	566.611	66.877	540	23.857	
2020KO URTARRILA-ABUZTUA	755.462	59.451	481.336,9	6.278	33.788	39.173.494	14.634	1.280.503	257.682	1.583	63.209	0
2020KO EKAINA	43.829	1.054,1	45.237	808	1.677	5.083.731	386	11.564	7.232	34	232	0
2020KO UZTAILA	119.301	6.995,5	59.292	1.026	6.053	5.746.236	1.955	150.866	30.357	233	3.939	0
2020KO ABUZTUA	143.684	8.957,7	59.819	962	9.878	4.454.970	2.447	219.507	31.696	268	7.848	0
<b>ALDAK. 10/20KO URTARRILA-ABUZTUA</b>	<b>-52,9</b>	<b>-68,2</b>	<b>-28,3</b>	<b>-14,9</b>	<b>-71,8</b>	<b>-6,5</b>	<b>-57,8</b>	<b>-67,5</b>	<b>-60,3</b>	<b>-64,0</b>	<b>-69,9</b>	
ALDAK. 19/20 EKAINA	-80,6	-96,1	-41,3	-21,2	-89,7	-6,1	-92,1	-98,0	-89,8	-94,2	-99,3	
ALDAK. 19/20 UZTAILA	-50,6	-76,2	-32,9	-9,2	-65,5	-8,5	-60,3	-75,0	-60,9	-64,3	-88,0	
ALDAK. 19/20 ABUZTUA	-39,0	-69,6	-28,6	-0,7	-49,5	8,3	-44,3	-61,3	-52,6	-50,4	-67,1	

Iturria: Garraio Ministerioa. Hegazkintza zibila

### 2.2.3.9. Finantza sektorea

Osasun-krisiaren ondorioz, enpresek likidezia-tentsio handiei aurre egin behar izan diete, diru-sarreren beherakadaren ondorioz, bai eskaera txikiagoagatik edo jarduera eteteagatik, bai hornidurek huts egiteagatik eta kontratuak hutsaltzeagatik. Eta jarduera ekonomikoaren beherakadak eta ziurgabetasun sozialak finantza-merkatuak astindu dituzte.

Testuinguru horretan, moneta-politikaren esparruan, erreferentziazko interes-tasetan murrizketak egin dira maila oso apaletaraino, eta, kasu askotan, aktiboak erosteko eta epe luzerako finantzaketarako programak bezalako tresnak hedatu/areagotu dira. Helburua izan da eurogunearen finantza-zatiketarako aurreikuspen ekonomikoetarako izango

lituzkeen arriskuei aurre egitea. Neurrien bidez, EDB (Ekonomia eta Diru Batasuna) osoan aldeko finantzaketa-baldintzak mantentzen lagundu nahi izan da.

Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioaren 2020ko iraileko "Adierazle Ekonomikoen Sintesian (AES)" jasotako datuen arabera, EBZk ez du euroguneko egun baterako esku-hartze mota aldatu, eta % 0,00an mantendu du. Japoniako Bankuak, bere aldetik, % -0,10ean mantendu zuen. AEBetako Erreserba Federalak % 0,25era jaitsi zuen martxoan, eta ehuneko horretan mantentzen du. Eta Ingalaterrako Bankuak, martxoan ere, % 0,10era jaitsi zuen eta bere horretan jarraitzen du.

2.1.30 TAULA MONETA-MERKATUKO ESKU-HARTZE MOTAK ETA INTERES-TASAK									
		ESKU-HARTZE MOTA (*)				DIRUZKO MERKATUAREN EUROGUNeko INTERES-TASAK. GORDAILUAK. EURIBORRA			
		EDB	AEB	JAPONIA	ERRESUMA BATUA	HILABETERA	3 HILABETERA	6 HILABETERA	URTEBETERA
2018		0,00	2,50	-0,10	0,50	-0,37	-0,32	-0,27	-0,17
2019		0,00	1,75	-0,10	0,75	-0,40	-0,36	-0,30	-0,22
2020	I. HIRUHILEKOA					-0,47	-0,41	-0,35	-0,27
	II. HIRUHILEKOA					-0,46	-0,30	-0,19	-0,11
	URTARRILA	0,00	1,75	-0,10	0,75	-0,46	-0,39	-0,33	-0,25
	OTSAILA	0,00	1,75	-0,10	0,75	-0,47	-0,41	-0,36	-0,29
	MARTXOA	0,00	0,25	-0,10	0,10	-0,48	-0,42	-0,36	-0,27
	APIRILA	0,00	0,25	-0,10	0,10	-0,43	-0,25	-0,19	-0,11
	MAIATZA	0,00	0,25	-0,10	0,10	-0,46	-0,27	-0,14	-0,08
	EKAINA	0,00	0,25	-0,10	0,10	-0,49	-0,38	-0,22	-0,15
	UZTAILA	0,00	0,25	-0,10	0,10	-0,51	-0,44	-0,35	-0,28
	ABUZTUA	0,00	0,25	-0,10	0,10	-0,52	-0,48	-0,43	-0,36

\* Aldiaren amaierako datuak

Iturria: Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa

Euroguneko moneta-merkatuaren interes-tasei dagokienez (gordailuak), honako hau da, 2020ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren arteko aldakuntza: hilabeteko Euriborra -% 0,47tik -% 0,46ra igaro da; 3 hilabeteko Euriborra -% 0,41etik -% 0,30era; sei hilabeteko Euriborra -% 0,35etik -% 0,19ra; eta urtebeteko Euriborra -% 0,27tik -% 0,11ra igaro da. Argitaratutako azken datuek, abuztukoek, tasa negatiboagoak erakusten dituzte. Izan ere, urte osoko tasarik baxuenak erregistratzen dira.

Euroguneko finantza-erakundeek EDBko etxeei ematen dieten interes-tasari dagokionez, behera egin du 2020ko otsaila eta martxoa bitartean eta martxoa

eta apirila bitartean, Espainiako Bankuaren "Buletin Estatistikoa"ren datuen arabera; ondoren, handitzen hasi da. Kontsumorako kredituei dagokionez, portzentajerik baxuena apirilean erregistratu zen (% 7,41), eta abuztuan ratioa % 8,2koa izan zen, otsailean jasotako % 8,5aren azpitik. Etxebizitza-erosketaren kasuan ere, ehunekorik txikiena apirilean erregistratu zen, % 1,89rekin; eta abuztuan % 1,98ra iritsi zen, otsailean jasotako % 2,05aren azpitik.

EAEko gordailu-erakundeek emandako kreditu osoaren saldo biziak gora egin du 2020ko lehen eta bigarren hiruhilekoen artean, 67.823 milioi eurotik 73.013 milioi eurora. Igoera hori, batez ere, administrazio publikoei emandako kredituaren (+% 24,7) eta sektore pribatuari emandakoaren (+% 4,4) gorakadak eragin du; izan ere, azken horrek ere gora egin du, gutxiago bada ere.

2.1.31 TAULA DIRUZKO FINANTZA-ERAKUNDEEK EUROGUNeko SEKTORE EGOILIARREI APLIKATUTAKO INTERES-TASA (ERAGIKETA BERRIAK)			
		ETXEEI (URTEKO TASA BALIOKIDEA)	
		KONTSUMORAKO KREDITUA	ETXEBIZITZA EROSTEA
2017		8,27	2,05
2018		8,31	2,24
2019		7,91	1,93
2020	URTARRILA	8,05	2,02
	OTSAILA	8,05	2,06
	MARTXOA	7,83	2,01
	APIRILA	7,41	1,89
	MAIATZA	7,44	1,91
	EKAINA	7,64	1,92
	UZTAILA	8,01	1,92
ABUZTUA	8,20	1,98	

Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

**2.1.32 TAULA GORDAILU-ERAKUNDEEN KREDITUA SEKTORE PUBLIKO ETA PRIBATUARI (aldiaren amaierako saldoak)**

	EUROAK, MILIOITAN							BANAKETA			ALDAKUNTZA (%) I. eta II. HIRUHILEKOA K.
	2015	2016	2017	2018	2019	2020 I. HIRUHIL EKO.	2020 II. HIRUHILE KOA.	2019	2020 I. HIRUHI LEKOA.	2020 II. HIRUHI LEKOA.	
Guztira	70.037	71.564	70.862	68.467	68.515	67.823	73.013	100	100	100	7,7
Adm. Publikoa	6.636	6.997	6.612	7.148	7.618	7.286	9.083	11,1	10,7	12,4	24,7
Sektore Pribatua (BSE)	63.400	64.566	64.250	61.319	60.897	60.538	63.210	88,9	89,3	87,6	4,4

*Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.*

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren "Buletin Estatistikoa"ren datuen arabera, IBEX-35 indizea 8.723,2 puntutik 6.785,4ra jaitsi zen 2020ko otsailetik martxora. Apirila eta ekaina bitartean hazkundera gertatu da; uztailean berriz ere behera egin du (6.877,4), eta abuztuan gora egin du (6.969,5).

Madrilgo burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa 654.761 milioi eurokoa izan zen otsailean, eta 571.861 milioi eurokoa martxoan. Martxotik apirilera, berriz, jaitsi egin da, 531.090 milioi eurokoa izateraino. Maiatzetik ekainera bitartean hazkundera izan du. Uztailean berriz ere behera egin zuen, eta 529.198 milioi eurokoa izan zen (apirileko kapitalizazio-balioaren azpitik); abuztuan, berriz, 545.580 milioi eurokoa izan zen.

Kontratazio-bolumena 55.513 milioi eurokoa izan zen martxoan, 30.661 milioi eurokoa apirilean eta 29.378 milioi eurokoa maiatzean. Ekainean 49.781 milioi euroraino igo zen, eta uztailean berriro murriztu zen, 31.792 milioi euroraino; abuztua 19.951 milioi euroekin amaitu zen.

Bestalde, Bilboko burtsaren indizeak % 22,2ko beherakada izan du 2020ko otsaila eta martxo bitartean, eta 1.060,54 puntutan kokatu zen. Erregistratutako azken datuak abuztuaren amaierakoak dira, eta indizea 1.108,25 da.

Kontratazioaren bolumenak, hileroko, 2.1.33 taulan erakusten den bezala, hazkunde nabarmenak izan ditu 2020ko martxoan eta ekainean.

**2.1.33 TAULA BALOREEN BIGARREN MAILAKO MERKATUA. MADRILGO BURTSA**

	IBEX 35	KAPITALIZAZIOA (sozietate egoiliarrek, milioi euroak)	KONTRATAZIO-BOLUMENA (euroak, milioitan)
2017	10.278,0	740.212	651.244
2018	9.510,9	630.628	587.203
2019	9.211,3	709.648	469.732
2019	UZTAILA	8.971,0	648.302
	ABUZTUA	8.812,9	639.529
	IRAILA	9.244,6	664.222
	URRIA	9.257,5	664.977
	AZAROA	9.352,0	696.199
2020	ABENDUA	9.549,2	709.648
	URTARRILA	9.367,9	699.274
	OTSAILA	8.723,2	654.761
	MARTXOA	6.785,4	571.861
	APIRILA	6.922,3	531.090
	MAIATZA	7.096,5	545.828
	EKAINA	7.231,4	551.190
	UZTAILA	6.877,4	529.198
	ABUZTUA	6.969,5	545.580

*Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa*

**2.1.34 TAULA BILBOKO BURTSA**

	Indizea	KONTRATAZIO-BOLUMENA (euroak, milioitan)		
2018	1.330,1	112.921,6		
2019	1.485,4	88.089,1		
2020	URTARRILA	1.454,94	-2 %	7.879
	OTSAILA	1.354,18	-7 %	8.215
	MARTXOA	1.060,54	-22,2 %	14.093
	APIRILA	1.085,76	% 2	6.246
	MAIATZA	1.116,06	3 %	4.499
	EKAINA	1.129,89	% 1	14.576
	UZTAILA	1.086,24	-4 %	7.890
	ABUZTUA	1.108,25	% 2	4.619

*Iturria: Bilboko Burtsa.*

## 2.2.4. Sectore publikoa

COVID-19ak eragin handia izan du finantza publikoetan, diru-sarrerak murriztu egin direlako jarduera-etenaren, kontsumoaren beherakadaren eta gastu-premia handiagoen ondorioz. Atal honetan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak 2020ko lehen bi hiruhilekoetan izan duen Aurrekontu Betearazpenaren Estatistika aztertzen da, bai eta foru-aldundiek urtariletik irailera bitartean itundutako zergengatik bildutakoaren hilez hileko xehetasunak ere.

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da 2020ko ekainaren 30ean diru-sarrera publikoek % 5,5eko beherakada izan dutela; 2019ko lehen sei hilekoan, ordea, % 0,3ko igoera izan zen. Bestalde, Euskal Sectore Publikoaren gastuak % 15,8 igo dira (-% 2,1 aurreko urtean).

Diru-sarreraren eta gastuaren bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoa 1.383,7 milioira jaitsi da negatiboan (lehen sei hilekoko BPGd-aren % 4, behin-behineko datuekin), eta 2019ko superabita (689 milioi euro) 1.628,8 milioi euroko defizita izatera iritsi da, BPGd-aren % 4,7.

2.1.34 TAULA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK.					
	ALDAK. % ITUNDUTAKO ZERGEN BIDEZ BILDUTAKOAK	ESPREN BPGD-AREN GAINEKO AURREKONTU SALDOA		ESPREN* ZORPETZEA	
		AURREZKI GORDINA	SUPERABITA / DEFIZITA	ALDAK. %	BPGD-AREN GAINEKO %
2015	+2,4	1,0	-0,4	+4,8	15,4
2016	+2,7	1,3	-0,03	+4,6	15,6
2017	+11,8	2,1	+0,6	+2,3	15,5
2018	+3,5	2,6	+1,1	-0,2	14,9
2019	+3,3	2,4	+0,9	-6,1	13,5
2020ko ekaina	-13,1	-4,0	-4,7	-8,5	:

\* Zor bizia epealdiaren amaieran.  
Iturria: EUSTATen eta Eusko Jaurlaritzaren datuekin landutakoa.

Bestalde, EAEko sektore publiko osoak (toki entitateak kontuan izan gabe) beheranzko bilakaerari eusten dio, eta % 10,2 zorpetze bizia, 11.000 milioi eurokoa, izatera iristen da sei hilekoaren amaieran.

### 2.2.4.1. Diru-sarrerak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren "Aurrekontu-betearazpenaren Estatistika"ren arabera, 2019an Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek, guztira, 17.326,9 milioi euroko diru-sarrerak likidatu zituzten, eta aurreko urtearekin alderatuta, zero aldakuntza izan zuten.

2020ko ekainaren 30ean (lehen sei hilekoko datu metatuak), diru-sarrerak 7.254 milioi eurokoak ziren, aurreko urteko data berean baino % 5,5 gutxiago. Beherakada hori foru aldundien diru-sarreraren galeraren ondorio da (-% 12,8), Eusko Jaurlaritzak balio positiboari eusten baitie (+% 4,3).

2.1.35 TAULA DIRU-SARRERA PUBLIKOEN URTEKIK URTERAKO HAZKUNDE-TASAK.			
	EJ	FF.AA.	ESP
2017	8,2	9,3	6,3
2018	3,8	2,5	4,2
I 2019	-11,3	5,9	-5,4
II	2,1	3,8	0,3
III	3,5	2,2	0,9
IV	-0,5	2,8	0,0
I 2020	3,0	1,6	1,8
II	4,3	-12,8	-5,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina.

Foru aldundien sarreraren beherakada hori, funtsean, zerga-bilketaren jaitsierak eragin du. 2020ko urtariletik irailera bitartean metatutako diru-bilketari buruzko informazioa badugu. Irailaren 30ean, foru aldundiek 9.031,1 milioi euro bildu dituzte zerga itunduen bidez, aurreko urtean baino % 16,5 gutxiago. Kopuru horretatik, % 39,5 PFEZari dagokio (2019ko aldi berarekin alderatuta, -% 7,2), % 36,2 BEZari (-% 18,5), % 8,4 Sozietateen gaineko Zergari (-% 33; hauxe da jaitsiera handiena izan den zerga) eta gainerako % 15,8a zerga berezietatik, zeinek, oro har, proportzioari eusten baitiete.

2.1.36 TAULA EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOIA.  
2019KO ETA 2020KO IRAILEAN METATUTAKOEN KONPARAZIOA. (EUROAK, MILAKA)

	EAE 2019KO URTARRILA- IRAILA	2020KO URTARRILA-IRAILA				ALDAKUNTZA (%) 19/20
		AFA	BFA	GFA	EAE	
ZUZENENKO ZERGAK	5.300.536	669.529	2.448.671	1.480.000	4.598.201	-13,3
PFEZa	3.852.957	516.459	1.843.563	1.215.029	3.575.051	-7,2
SOZIETATEEN GAINENKO ZERGA	1.128.976	105.196	506.797	144.079	756.072	-33,0
EZ EGOILEEN ERRENTA GN. ZERGA	36.143	8.137	27.912	8.426	44.475	23,1
OINORDEZAK ETA DOHAINTZAK	83.644	8.712	41.753	28.685	79.149	-5,4
ONDAREAREN GAINENKO ZERGA	164.524	24.205	1.509	70.131	95.844	-41,7
KREDITU-ENTITATEETAKO GORDAILUEN GAINENKO ZERGA	25.139	3.626	15.381	8.574	27.581	9,7
ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN GAINENKO ZERGA	9.153	3.195	11.756	5.077	20.027	118,8
ZEHARKAKO ZERGAK	5.433.796	600.051	2.565.439	1.221.676	4.387.166	-19,3
BEZa	4.009.508	453.859	1.867.194	947.990	3.269.044	-18,5
- BEZa, berezko kudeaketa	3.088.406	327.287	1.475.186	688.622	2.491.094	-19,3
- BEZaren doiketa	921.102	126.572	392.009	259.368	777.950	-15,5
OEZ	121.368	15.049	45.354	37.160	97.563	-19,6
EJDZ	36.340	4.572	11.454	9.404	25.385	-30,1
I.E. GARRAIOA	21.508	1.759	5.871	3.763	11.394	-47,0
FABRIKAZIOAREN GAINENKO ZERGA BEREZIAK, GUZTIRA	1.184.544	115.780	599.797	205.754	921.331	-22,2
ASEGURUEN PRIMEN Z.	56.163	8.079	32.351	15.516	55.946	-0,4
TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK	78.095	4.312	29.265	12.161	45.738	-41,4
JOKO TASAK	30.623	2.393	7.935	3.774	14.101	-54,0
ERREKARGUAK, BERANDUTZAK ETA ZEHAPENAK	47.472	1.920	21.330	8.387	31.637	-33,4
<b>ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA</b>	<b>10.812.428</b>	<b>1.273.893</b>	<b>5.043.375</b>	<b>2.713.836</b>	<b>9.031.105</b>	<b>-16,5</b>

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Termino metatuetan, 2020ko irailaren 30era arte zuzeneko zergapetzeak zeharkako zergapetzeak baino portaera hobea izan duela ikusten da. Zerga zuzenen multzoak 4.598,2 milioi euro bildu ditu, aurreko urteko epe berean baino % 13,3 gutxiago, PFEZaren portaera nahiko ona izan delako (% 7,2 jaitsi da, zerga nagusien arteko atzerakadarik txikiena); izan ere, sozietateen gaineko zergak % 33ko beherakada izan du. Ondarearen gaineko Zergak, bere aldetik, % 41,7raino jaitsi du bilketa (kopuru osoaren % 1,1 baino ez da), eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak % 5,4ko jaitsiera izan du. Aurreko guztiaren emaitzaz, PFEZa EAEko guztizko bilketaren % 77,7 izan zen (2019ko aldi berean % 72,7) eta Sozietateen gaineko zerga, berriz, % 16,4koa (% 21,3 2019an). Gainerako zuzeneko zerga guztiak bilketaren % 5,9 izan ziren.

Zeharkako zergei dagokienez, bilakaera, aipatu den bezala, oso negatiboa izan da bilketa osoaren aldean (guztizkoaren -% 19,3 eta -% 16,5, hurrenez hurren). Hala, BEZaren bilketa % 18,5 jaitsi da 2020ko lehen bederatziz hilabeteetan, eta fabrikazioagatiko zerga bereziak, berriz, % 22,2 jaitsi dira (bien artean zeharkako bilketaren % 95,5 egiten dute). Horrela,

2.1.37 TAULA EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOAREN BILAKAERAREN AZTERKETA:  
URTEKO BILAKAERA ETA 2020KO URTARRILA-IRAILEKOA


	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020KO URTARRILA-IRAILA
<b>ZENBATEKOA (EUROAK, MILAKOTAN)</b>								
Zuzeneko zergak	5.793.064	5.864.350	5.958.577	6.168.926	6.615.897	7.292.440	7.407.142	4.598.201
Zeharkako zergak	5.845.450	6.351.443	6.538.776	6.661.099	7.751.233	7.570.595	7.952.770	4.387.166
Tasak eta beste	113.602	103.970	115.277	120.701	106.798	118.510	109.675	45.738
<b>ZERGA-BILKETA</b>	<b>11.752.116</b>	<b>12.319.763</b>	<b>12.612.630</b>	<b>12.950.926</b>	<b>14.473.928</b>	<b>14.981.545</b>	<b>15.469.587</b>	<b>9.031.105</b>
<b>URTEKO ALDAKUNTZA (%)*</b>								
Zuzeneko zergak	1,7	1,2	1,6	3,5	7,2	10,2	1,6	-13,3
Zeharkako zergak	4,4	8,7	2,9	1,9	16,4	-2,3	5,0	-19,3
Tasak eta beste	3,5	-8,5	10,9	4,7	-11,5	11,0	-7,5	-41,4
<b>ZERGA-BILKETA</b>	<b>3,0</b>	<b>4,8</b>	<b>2,4</b>	<b>2,7</b>	<b>11,8</b>	<b>3,5</b>	<b>3,3</b>	<b>-16,5</b>

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO Ogasun eta Ekonomia Sailaren datuekin egina.

\* 2020ko urtarrila-abuztu aldiko aldakuntza-tasak 2019ko aldiari buruzkoak badira.

2020ko irailaren 30ean, zerga guztien % 48,6 biltzen dira zeharkako zergen bidez; zuzeneko bidez, % 50,9, berriz, biltzen da (gainerako % 0,5a tasei eta bestelako diru-sarrerari dagokie).

2020ko zerga nagusien hileroko bilakaeraren jarraipen batean ikus daitekeenez, joera negatiboa jada martxoan hasi bazen ere (urte arteko tasak negatiboak izan ziren BEZeetan eta ia zero PFEZeetan, baina ez sozietateen gaineko zergen), apirilean eta maiatzean agerian geratu da gainbehera orokorra dela, konfinamendu-aldi gogorrenarekin bat datorrena. Ekainean, jardura eta kontsumoa zertxobait suspertuta, PFEZaren suspertzea dator, eta aurreko bi hilabeteetan baino beherakada txikiagoak gertatu dira BEZeetan eta sozietate txikietan. Azkenik, uztailetik irailerako hiruhilekoan, narriadura orokorra egonkortu egin da, sozietateen gaineko zergen beherakada handiak izan baitira. Nolanahi ere, zergak arautzen dituen araudia eta ordainketa batzuk geroratzeko aukera kontuan hartuta, 2020ko ekitaldiaren itxieran baino ezin izango dugu egin COVID-19ak bilketan izan duen eraginaren balorazio osoa.



#### 2.2.4.2. Gastuak

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren "Aurrekontu-betearazpenaren Estatistikaren" arabera, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua (toki-erakundeak kontuan hartu gabe) 17.678,7 milioi eurokoa izan zen 2019an, eta % 6,2 igo zen 2018arekin alderatuta.

2020ko ekainaren 30ean (lehen sei hilekoko datu metatuak), gastuak 8.434,5 milioi euro egiten zuten, aurreko urtean baino % 15,8 gehiago. Gastuaren hazkundea bereziki handia izan da Eusko Jaurlaritzan (+% 15,8) eta txikiagoa, berriz, foru aldundietan (+%2,4), eta agregatuaren aldakuntza % 15,8koa da, zeren eta zenbait partida erakundeen artean konpentsatzen baitira (transferentzien zati bat, esate baterako). Hala ere, kontuan hartu behar da iguera nabarmen horiek lehen hiruhilekoko datuekin alderatuta jaso direla, orduan Eusko Jaurlaritzan, 2.1.38 taulan ikus daitekeen bezala, ia % 28ko gehikuntzara iritsi baitzen gastuetan.

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetak aldakuntzak nabarmendu beharreko zenbait berezitasun erakusten dituzte:

Azken ekitaldietako ratioen aldean oso gora egin duen lehen partida transferentzia arruntei dagokiena izan da (+% 10,9 lehen hiruhilekoan eta +% 17,3 bigarreanean —kopuru metatuak—; positiboa bai aldundietan, bai jaurlaritzan), batez

**2.1.38 TAULA GASTU PUBLIKOEN URTE ARTEKO HAZKUNDE-TASAK.**

	EJ	FF.AA.	ESP
2017	4,4	11,1	5,3
2018	4,6	1,0	3,2
I 2019	-3,6	5,1	-2,1
II	-3,9	5,8	-2,1
III	-3,9	5,8	-1,2
IV	6,4	4,5	6,2
I 2020	27,9	3,5	21,5
II	15,8	2,4	15,8

*Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina.*

ere Eusko Jaurlaritzak transferentzia horiek asko handitu dituelako (+% 10,9 seihilekoaren metaturako), ziur asko familien eta enpresen behar ekonomiko handiagoak direla eta.

#### 2.1.39 TAULA EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. MILA EUROTAN.

	2019			2020KO URTARRILA-EKAINA			Ald. % 19KO EKAI/20KO EKAI		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP
Langile-gastuak	2.161.268	393.442	2.554.710	1.116.627	393.442	1.314.546	3,9	2,4	3,7
Funtzionamendu-gastuak	3.702.055	604.118	4.306.174	1.821.641	604.118	2.056.577	9,0	0,3	7,9
Finantza gastuak (interesak)	178.698	34.443	213.141	118.289	34.443	134.123	0,7	-1,1	0,5
Transferentzia arruntak	3.486.252	14.193.096	7.186.595	1.971.604	14.193.096	3.944.516	10,9	3,0	17,3
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZTIRA	9.528.273	15.225.100	140.260.620	5.028.162	15.225.100	7.449.761	8,4	2,8	11,7
Inbertsio errealak	135.067	290.012	425.079	42.465	290.012	126.823	85,2	3,4	21,4
Kapital-transferentziak	701.507	180.842	882.129	142.698	180.842	167.667	-8,2	-41,0	-15,2
KAPITAL-ERAGIKETAK, GUZTIRA	836.575	470.854	1.307.208	185.163	470.854	294.490	3,8	-11,8	-2,6
Aldea (%) Finantza-aktiboak	314.033	117.322	431.355	40.399	117.322	69.930	-75,8	28,8	-63,2
Ald. Finantza-pasiboak (zor amortizatua)	1.359.776	319.724	1.679.500	556.772	319.724	620.336	1,529,6	-25,2	420,9
FINANTZA GASTUAK GUZTIRA	1.673.809	437.045	2.110.854	597.171	437.045	690.266	196,4	-13,7	123,2
<b>GASTUA, GUZTIRA</b>	<b>12.038.657</b>	<b>16.132.999</b>	<b>17.678.682</b>	<b>5.810.496</b>	<b>16.132.999</b>	<b>8.434.517</b>	<b>15,8</b>	<b>2,4</b>	<b>15,8</b>
% LIKIDATUTAKO GASTUA / BPGd-a	15,2	20,4	22,3						

*Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.*

Funtzionamendu-gastuek ere (ondasunak eta zerbitzuak erosteari buruzkoak) % 7,9 egin dute gora, berriro ere partida horrek Jaurlaritzaren kontuetan izan duen bilakaeraren ondorioz (+% 9); izan ere, foru-aldundiek ez dute ia igoerarik izan.

Inbertsio errealei dagokienez, 2019an % 0,6 baino ez ziren hazi, batez ere Foru Aldundien joera positiboaren sendotzearen ondorioz (+% 18,9); izan ere, Eusko Jaurlaritzak, 2018an bezala, negatiboan jarraitu zuen (-% 24,4); 2020ko lehen seihilekoan, berriz, azpimarratzeko moduko igoera izan zen, % 21,4koa, Jaurlaritzak % 85,2ko igoera nabarmena izan zuelako.

#### 2.1.40 TAULA EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUA URTEKO HAZKUNDE-TASAK INTERESEKO PARTIDETAN

	LANGILE AK	FUNTZIONAMENDUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	INBERTSIOA ERREALAK	ZORPETZEA	INTERES AK ZORRA	GUZTIRA
2015	2,0	1,1	3,9	-27,4	26,7	-12,8	1,9
2016	2,0	2,9	1,2	4,7	-11,6	-12,9	0,9
2017	2,5	2,4	7,3	-0,3	9,6	-8,1	5,3
2018	1,5	1,3	-1,4	7,1	63,4	-3,7	3,2
2019	5,6	4,9	3,4	0,6	13,2	-2,6	6,2
I. HIRUHILEKOA. 2020	4,0	5,9	10,9	49,4	727,4	-2,4	21,5
II. HIRUHILEKOA. 2020	3,7	7,9	17,3	21,4	420,9	0,5	15,8

*Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. Ogasun eta Ekonomia Saila.*

Bestalde, 2020ko ekainera arte, oso nabarmen hazi dira zorpetzearen ondoriozko gastuek, finantza-pasiboan bilakaera dela eta (zorraren amortizazioa); izan ere, % 420,9 igo dira. Bilakaera hori, neurri handi batean, Jaurlaritzaren aurrekontu-partida horren bilakaeraren ondorio da, amortizazio horren % 90aren arrazoia baita. Azkenik, finantza-gastuak (interesak) % 0,5 baino ez dira hazi.

#### 2.2.4.3. Sektore Publikoaren zorpetzea

Aurrekontu-betearazpenaren Estatistikak erakusten du EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiak) zorpetze garbiak 1.000 milioi euro baino gehiago egin duela gora 2020ko lehen sei hilabeteetan, 2019ko amaierarekin alderatuta (437,6 milioi eurora iritsi da, 2019ko amaieran ia 700.000 milioitan negatiboa izan ondoren), aurreko bost urteetan behera egin ondoren. 2019ko ekainarekin alderatuta, urte arteko tasa % 44,3 jaitsi da.

Zorpetze gordina, 2019an % 32,1 murriztu zena (Jaurlaritzan eta aldundietan antzeko bilakaerak izan dira), % 6,9 hazi da 2020ko bigarren hiruhilekoan, eta ekainaren 30ean 1.000 milioi euroko kopurua gaintu ere gaintu du (eta % 17 igo

da urte arteko tasan, 2019ko lehen sei hilekoarekin alderatuta): 1.058 milioi euro horietatik, % 83,4 Jaurlaritzari dagokio, eta gainerako % 16,6a foru aldundiei.

2.1.41 TAULA EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA. (EUROAK, MILAKA)							
	ZORPETZE GORDINA		AMORTIZAZIOA	ZORPETZE GARBIA		ZOR BIZIA ALDIAREN AMAIERAN	
	(1)	ALDAK. (%)	(2)	(1) -(2) = (3)	ALDAK. (%)	GUZTIRA	ALDAK. (%)
<b>EUSKO JAURLARITZA</b>							
2018	1.273.711	30,6	1.215.003	58.708	-81,7	9.491.653	0,6
2019	870.696	-31,6	1.359.776	-489.080	-	9.002.573	-5,2
Eka. 20	882.009	12,3*	556.772	325.237	-56,7*	9.327.810	-8,9*
<b>FORU ALDUNDIAK</b>							
2018	184.186	-1,7	268.447	-84.261	26,4	1.846.818	-4,4
2019	119.388	-31,6	319.724	-200.336	137,8	1.646.482	-10,8
Eka. 20	176.000	47,4*	63.564	112.436	226,2*	1.758.918	-6,5*
<b>EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA, GUZTIRA</b>							
2018	1.457.897	25,4	1.483.450	-25.553	-	11.384.471	-0,2
2019	990.084	-32,1	1.679.500	-689.416	2.598,0	10.695.055	-6,1
Eka. 20	1.058.009	17,0*	620.336	437.673	-44,3*	11.132.728	-8,5*

*Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika. Geuk egina.*  
\* 2019ko ekainaren 30arekiko aldakuntza.


Zorpetzearen igoera horrekin batera, gainera, lehendik zegoen 620,3 milioi euroko zorra amortizatu da (kopuru horretatik 556,8 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio), eta, ondorioz, zor bizia % 4,1 hazi da 2019arekin alderatuta, baina % 8,5 jaitsi da urte arteko saldoan. Hala, sei hilekoaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek 11.132,7 milioi euroko zorra dute. Azken urteetan gertatu den bezala, zor horren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzari dagokio (% 83,8).

#### 2.2.4.4. Aurrekontuko saldoa

2020. urtearen lehen erdian, Euskal Sektore Publikoaren (Jaurlaritza eta foru-aldundiak) diru-sarrerak % 9,1 jaitsi dira, eta izaera bereko gastuak, berriz, % 11,7. Horrek esan nahi du aurrezki gordinak behera egin duela, eta 1.383,7 milioi euroko saldo negatiboa izatera iritsi dela. Zenbateko honek gure erkidegoko BPGd-aren % 4 hartzen du ald horretan (behin-behineko datuak).

Gainera, 1.628,8 milioi euroko defizit publikoa (finantziario premia) erregistratu da (BPGd-aren % 4,7); izan ere, gastu ez-finantzarioek (aruntak gehi kapitalekoak) izaera bereko diru-sarrerak bano askoz handiagoak dira. 2019ko ekitaldian, 689 milioi euroko superabita izana zen.

2.1.13 GRAFIKOA. AURREZKI ETA SUPERABIT/DEFIZIT PUBLIKOEN BILAKAERA (GAITASUNA/FINANTZAKETA-BEHARRA) EAE-N. BPGd-AREN GAINEAN



*Iturria: EUSKO JAURLARITZAren datuekin egina.*

Aldagai finantzarioa gehituta, eta, batez ere, zorpetzeak gora egin duenez, defizit publiko hori 1.474,8 milioi euroko aurrekontu-defizita izatera iristen da, BPGd-aren % 4,2; 2019ko ekitaldiaren amaieran, ordea, 365,6 milioi euroko superabita zegoen.

2.1.42 TAULA EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA: AURREKONTU-MAGNITUDE BATERATUAK. EUROAK, MILAKOTAN					
	2019	18/19 (%)	Ekaina 2019	Ekaina 2020	Jun19/ Jun20 (%)
1.- SARRERA KORRONTEAK	16.169.965	3,3	6.673.608	6.066.000	-9,1
2.- GASTU KORRONTEAK	14.260.620	4,2	6.669.609	7.449.761	11,7
2.1.- LANGILE-GASTUAK	2.554.710	5,6	1.267.510	1.314.546	3,7
2.2.- FUNTZIONAMENDU GASTUAK	4.306.174	4,9	1.905.327	2.056.577	7,9
2.3.- FINANTZA GASTUAK	213.141	-2,6	133.507	134.123	0,5
2.4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	7.186.595	3,4	3.363.265	3.944.516	17,3
3.- AURREZKI GORDINA (1-2)	1.909.346	-2,7	3.999	-1.383.761	-
4.- KAPITAL SARRERAK	86.885	-37,2	37.420	49.396	32,0
5.- KAPITAL GASTUAK	1.307.208	3,0	302.296	294.490	-2,6
5.1.- INBERTSIO ERREALAK	425.079	0,6	104.482	126.823	21,4
5.2.- KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	882.129	4,2	197.814	167.667	-15,2
6.- FINANTZAZIO GAITASUNA (+) / BEHARRA (-) (3+4-5)	689.022	-17,2	-260.877	-1.628.855	524,4
7.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-351.352	-	-126.907	10.664	-
7.1.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA. DIRU-SARRERAK	80.002	-4,1	63.290	80.594	27,3
7.2.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	431.355	104,6	190.198	69.930	-63,2
8.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-689.416	2.597,9	785.363	347.673	-44,3
8.1.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. DIRU-SARRERAK	990.084	-32,1	904.452	1.058.009	17,0
8.2.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	1.679.500	13,2	119.089	620.336	420,9
9.- AURREKONTU SUPERABITA / DEFIZITA (6+7+8)	-351.745	-	397.579	-1.180.517	-
9.1.- ORDAINDU GABEKO OBLIGAZIOAK	1.304.860	4,4	1.468.250	2.593.925	76,7
9.2.- KOBRATU GABEKO ESKUBIDEAK	587.495	-16,5	1.753.794	2.888.212	64,7
10.- AURREKONTU-SUPERABITA / -DEFIZITA, KUTXARI DAGOKIOEZ	365.619	-70,2	112.035	-1.474.803	-

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

## 2.2. LAN-MERKATUA

COVID-19ak gure bizitzan duen eragina orokorra da, eta alderdi guztiei eragiten die. Alderdi nagusien artean, eta eskariaren beherakadaren eta ekoizpenaren murrizketen ondorioz, lan-merkatua aipatu behar dugu. Enpleguaren gaineko eragina oso garrantzitsua da pandemiaren lehen uneetatik, martxotik bertatik aлегia, eta areagotu egin da hurrengo hilabeteetan, erregistratutako afiliazio- eta langabezia-kopuruen hileko bilakaeran ikusiko denez; horiek, izan ere, irailera arte hartzen dute. Era berean, EUSTATen eta INEren hiruhilekoko inkestek, hirugarren hiruhilekoko beren emaitzetan, aurre egin behar diogun krisiaren garrantzia deskribatzen dute, eta argazkia enpleguaren beste alderdi batzuekin osatzeko aukera ematen dute; esate baterako, konfinamenduaren beraren ondorio honekin: enplegu bat duten zenbat pertsonetatik zenbatek ezin izan zuten lan egin edo zenbatek lan egin zuten etxetik.

### 2.2.1. BJAREN (EUSTAT) ETA EPAREN (EIN) EMAITZAK

2.2.1 TAULA JARDUERA TASEN HIRUHILEKOKOK BILAKAERA.								
		I/2019	II/2019	III/2019	IV/2019	I/2020	II/2020	III/2020
GUZTIRA		56,7	56,8	57,0	56,4	56,4	54,9	54,5
LURRALDEEN ARABERA	- ARABA	58,3	58,9	59,4	59,4	59,6	56,4	56,5
	- BIZKAIA	56,3	56,3	56,1	55,3	55,5	54,3	54,0
	- GIPUZKOA	56,5	56,9	57,3	56,9	56,5	55,3	54,4
SEXUAREN ARABERA	- GIZONAK	61,7	61,7	61,9	61,2	61,1	59,8	59,3
	- EMAKUMEAK	52,1	52,4	52,5	52,1	52,1	50,4	50,1
ADINAREN ARABERA	- 25 URTETIK BEHERAKOAK	28,3	27,8	29,3	24,8	28,8	25,8	27,4
	- 25-44 URTE	89,8	89,6	91,1	90,8	90,3	88,1	86,4
	- 45 URTE ETA GEHIAGO	45,1	45,8	45,4	45,3	45,1	44,4	44,4

Iturria: EUSTAT. BJA. Geuk egina.

EUSTATen Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestaren (BJA) emaitzen hiruhilekoko bilakaera aztertuta (hirugarren hiruhilekora arte eskuragarri dauden datuak), lehenik eta behin, ondorioztatzen da ezen, gaur egungo pandemiaren ondorioz, jarduera-tasak, berez, txikiak direla gure erkidegoan, eta hiru lurraldeetan nabarmen murriztu direla bi sexuetan eta adin guztietan.

2019aren amaieran (laugarren hiruhilekoko datuak), EAEk % 56,4ko jarduera-tasa orokorra zeukan, eta, 2020ko lehen hiruhilekokoan egonkor mantendu bazen ere, ia bi puntu galdu ditu gero, hirugarren hiruhilekokoan % 54,5era jaitsi arte. Nabarmentzekoak dira 25 urtetik beherakoen beherakada bereziki garrantzitsua, aurtengo iragan diren bederatzi hilabeteetan 2,6 puntu galdu baituzte: emakumeek 2 puntu galdu


2.2.2 TAULA EAEKO BIZTANLERIA LANGABEAREN ETA EZ-AKTIBOAREN HIRUHILEKOKO BILAKAERA, LANA BILATZEAREN ETA BILAKETA HORREN EZAUGARRIEN ARABERA. MILAKOTAN						
	ERABATEKO LANGABEZIA	JARDUERARIK EZ				
		GUZTIRA	EZ DU BILATZEN	EZ DU KUDEAKETA AKTIBORIK EGITEN	EZ DAGO BALIAGARRI	EZ DAGO BALIAGARRI ETA EZ DU KUDEAKETARIK EGITEN
I-2017	123,1	800,8	776,1	4,7	17,2	2,7
II	117,8	794,9	785,2	2,0	7,0	0,7
III	123,6	798,0	789,8	3,6	3,9	0,6
IV	118,5	801,8	793,8	4,4	2,6	0,9
I-2018	120,9	803,1	795,0	3,8	3,1	1,2
II	109,1	790,2	784,9	2,5	2,4	0,4
III	100,5	799,2	791,7	3,4	3,0	1,2
IV	110,0	795,5	789,3	2,4	2,3	1,6
I-2019	109,0	800,6	783,2	6,9	7,9	2,7
II	103,1	799,1	783,7	7,1	6,2	2,1
III	99,5	797,5	782,5	6,6	5,7	2,8
IV	99,5	809,2	792,0	9,3	5,3	2,7
I-2020	104,4	810,3	791,1	6,8	8,7	3,8
II	110,4	839,6	810,7	15,3	11,0	2,6
III	101,8	849,6	817,9	10,0	16,6	5,1

Iturria: EUSTAT. BJA.

dituzte eta Arabako lurraldeak, berriz, 2,9 puntu galdu ditu. Hala ere, lurraldekako ratioa handiagoa da, tasa orokorra baino bi puntu handiagoa.

Jarduera-mailen beherakada horren ondorioz, azken hiruhilekoan pertsona ez-aktiboen kopuruak gora egin du, 849.600 izateraino, hain zuzen ere 2019ko amaieran baino 40.000 gehiago. Urtetik urterako igoera, berriz, 52.100ekoa izan da (+% 6,5).

Pertsona bat langabea edo ez-aktiboa den zehazten duten enplegu-bilaketaren ezaugarrien bilakaera aztertuta (ikus 2.2.2 taula), aurtengo hirugarren hiruhilekoan, pandemiaren eta konfinamenduaren ondorioz, enplegua bilatzen ez duten pertsona ez-aktiboen kopuruak nabarmen egin duela gora erakusten du BJAk; izan ere, 2019ko amaieran baino 25.900 gehiago dira, eta 817.900 izatera iritsi dira. Enplegua bilatzen ari direla diotenen baina bilaketa aktiborako kudeaketak egiten ez dituztenen kopurua ere handitu egin da (+700), 10.000 izateraino guztira (dena den, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 5.300 gutxiago), eta lan egiteko prest ez dauden kopuruak gora egin du nabarmen (11.300 pertsona gehiago, eta 16.600 izatera iritsi dira).



Bigarrenik, **okupazioak** nabarmen egin du behera; betiere, lan-lotura mantentzeko bide gisa ABEEE-etan sartzeko aukera egon izan ez balitz gerta zitekeena baino gutxiago. Urteko hirugarren hiruhilekoan 916.300 pertsona ari dira lanean, 2018ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, 2.2.1 taulan ikus daitekeen bezala. Urte arteko aldakuntzari dagokionez, Euskadiko biztanleria landuna (zeina 2019an % 1,1 hazia baitzen) 42.000 pertsonatan murriztu da 2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (% 4,4), aurreko hiruhilekoan baino gehiago (-% 3,9), orduan hasi baitziren nabaritzen pandemiaren ondorioak lan-merkatuan. Lurraldeei erreparatuta, beherakadarik handiena Araban gertatu da (-% 5,2), pandemia hasi aurretik portaera onena izan zuena izan arren. Gipuzkoak enpleguaren % 4,1 galdu du, eta Bizkaiak, berriz, % 4,3.


Sexuaren arabera, gizonen okupazioa emakumeena baino gehiago jaitsi da bigarren hiruhilekoan (-% 4,4 eta -% 3,2, hurrenez hurren), eta hirugarren hiruhilekoan, berriz, bi sexuek beherakada bera izan dute (-% 4,4). Adin-taldea, apirila eta ekaina bitartean okupazioa galdu duten arren, hirugarren hiruhilekoan murriztu egin da gazteenen (-% 11,8) eta tarteko adinekoen (-% 8,9) enplegua; 44 urtetik gorakoen kasuan, berriz, igoera txikia izan da (% 0,5); aurreko hiruhilekoan, ordea, % 0,7 jaitsiera gertatu zen.

Jarduera-sektoreen arabera, urte arteko atzerapen handienak zerbitzuetan gertatu dira (-% 4,9rekin, alegia, bigarren hiruhilekoan, -% 4,2, baino okerrago), eta ondoren industrian (-% 2,4) (halaber, bigarren hiruhilekoan baino gehiago, orduan % 1,9 jaitsi baitzen). Eraikuntza, bestalde, % 1,4 jaitsi da. Soldatapekoak kontuan hartuta, aldi baterako enpleguan finkoan baino portaera okerragoa ikusten da: aldi baterako enplegua % 11,2 murriztu da, eta kontratu mugagabea duten soldatapekoak, berriz, % 0,3 jaitsi dira.

2.2.3 TAULA. OKUPAZIOAREN HIRUHILEKOKO BILAKAERA. URTE ARTEKO HAZKUNDE-TASAK.								
		I/2019	II/2019	III/2019	IV/2019	I/2020	II/2020	III/2020
<b>GUZTIRA</b>		<b>2,3</b>	<b>0,8</b>	<b>1,6</b>	<b>1,1</b>	<b>0,7</b>	<b>-3,9</b>	<b>-4,4</b>
LURRALDEEN ARABERA	- ARABA	1,8	0,1	1,2	2,4	4,9	-4,9	-5,2
	- BIZKAIA	2,9	0,0	1,4	0,0	-0,5	-3,5	-4,3
	- GIPUZKOA	1,6	2,4	2,1	2,1	0,8	-4,0	-4,1
SEXUAREN ARABERA	- GIZONAK	2,2	0,8	0,9	1,2	-0,1	-4,4	-4,4
	- EMAKUMEAK	2,4	0,9	2,4	0,9	1,7	-3,2	-4,4
ADINAREN ARABERA	- < 25 AÑOS	15,7	-0,5	-0,2	-14,4	2,1	-10,1	-11,8
	- 25-44 URTE	0,0	-1,4	0,2	0,7	-0,9	-6,8	-8,9
	- 45 URTE ETA GEHIAGO	3,5	3,0	3,1	2,7	2,1	-0,7	0,5
SEKTOREEN ARABERA	- LEHEN SEKTOREA	7,8	-13,0	-12,8	-19,2	-28,2	-13,0	-23,5
	- INDUSTRIA	-0,2	-2,5	-2,4	-0,9	0,4	-1,9	-2,4
	- ERAIKUNTZA	3,3	3,8	3,5	-4,3	-5,1	-5,0	-1,4
	- ZERBITZUAK	2,9	1,9	2,9	2,4	1,8	-4,2	-4,9
EGOERA PROFESIONALAREN ARABERA	- ENPLEGATZAILEAK	-13,0	-11,2	-18,2	-14,0	-6,4	-9,8	-2,4
	- AUTONOMOAK	5,5	3,7	5,0	4,8	-2,7	-3,4	-8,1
	- FAMILIA-LAGUNTZA	10,7	0,8	-8,4	-21,8	-20,2	-17,6	-19,3
	- KOOPERATIBA BATEKO KIDEAK	1,6	-3,1	2,6	1,9	0,3	-5,2	-3,5
	- SOLDATAPEKOAK Z. PUBLIKOA	0,3	-0,7	0,7	0,3	2,3	2,3	4,3
	- SOLDATAPEKOAK Z. PRIBATUA	3,2	1,7	2,7	2,0	1,8	-4,7	-5,7
SOLDATAPEKO BIZTANLEAK	- K. MUGAGABEA / FINKOA	0,6	2,1	2,9	1,8	1,5	0,3	-0,3
	- ALDI BATERAKO K. / BESTERIK	7,3	-0,5	1,0	1,3	2,8	-11,2	-11,2

Iturria: EUSTAT. BJA. Geuk egina.

Eta, egoera profesionalari dagokionez, enplegatzailerik pandemiaren aurreko hiruhilekoetako joera negatiboa arindu dute, eta % 2,4 jaitsi dira; autonomoek, ordea, goranzko saldoaren tasa negatiboak pilatu dituzte hiru hiruhilekotan: hirugarrenean -% 8,1koa izan da tasa hori. Kooperatibetako kideen artean ere, okupazioak behera egin du, % 3,5; jaitziera hori, ordea, aurreko hiruhilekoko (-% 5,2) baino txikiagoa da. Sektore pribatuko soldatapekoen kopurua % 5,7 jaitzi da, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gehiago; sektore publikoan, berriz, bost hiruhileko izan dira datu positiboekin. Gainera, azken hiruhilekoan igoera % 4,3koa izan da, aurreko bi hiruhilekoetan baino bi puntu gehiago.



Bilakaera horren ondorioz, **langabezia-tasa** % 10koa izan da 2020ko hirugarren hiruhilekoan; 2019. urtea, berriz, % 9,5eko ratioarekin amaitua zen. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, ordea, 8 hamarren murriztu da, arestian aipatu dugun biztanleria aktiboaren beherakadaren ondorioz. Gazteenen kasuan izan ezik, susperraldi txiki bat izan da


(langabezia-tasek behera egin dute) bigarren hiruhilekoarekin alderatuta; izan ere, 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, okertzea orokorra eta garrantzitsua izan zen.

2.2.4 TAULA. LANGABEZIA-TASAREN HIRUHILEKOKO BILAKAERA LURRALDEEN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. EAE.								
		I/2019	II/2019	III/2019	IV/2019	I/2020	II/2020	III/2020
<b>GUZTIRA</b>		<b>10,4</b>	<b>9,8</b>	<b>9,4</b>	<b>9,5</b>	<b>9,9</b>	<b>10,8</b>	<b>10,0</b>
LURRALDEEN ARABERA	- ARABA	11,6	10,4	10,5	10,2	9,8	11,8	11,7
	- BIZKAIA	11,5	11,4	10,5	10,7	11,3	11,9	11,4
	- GIPUZKOA	8,0	6,9	7,1	7,2	7,9	8,6	6,9
SEXUAREN ARABERA	- GIZONAK	9,3	9,0	8,9	8,8	9,2	10,9	9,6
	- EMAKUMEAK	11,6	10,6	10,0	10,3	10,8	10,6	10,4
ADINAREN ARABERA	- 25 URTEK BEHERAKOAK	19,8	20,9	20,2	22,5	23,9	27,2	28,6
	- 25-44 URTE	11,7	9,8	9,5	10,6	11,2	12,8	11,3
	- 45 URTE ETA GEHIAGO	8,3	8,8	8,2	7,4	7,3	7,5	7,0

*Iturria: EUSTAT. BJA. Geuk egina.*

Lurraldeka, Arabak eta Bizkaia puntu eta erdiko batez bestekoa gainditzen dute, eta Gipuzkoak ratio baxuagoa du, % 6,9koa. Sexuaren arabera, bigarren hiruhilekoan bi ehunekoak berdindu ondoren (% 10,9 gizonen artean eta % 10,6 emakumeen artean), hirugarren hiruhilekoan gizonen langabezia-tasa neurri handiagoan jaitsi da (-1,3 puntu) emakumeen langabezia-tasa baino (-2 hamarren); beraz, ohiko egoerara itzuli da, ratioa baxuagoa baita gizonen artean emakumeen artean baino (% 9,6 eta % 10,4, hurrenez hurren).

Adinari dagokionez, 25 urtetik beherakoen artean langabeziak gora egin du, 2020ko bigarren hiruhilekoko % 27,2tik gaur egungo % 28,6ra; aldiz, bilakaera kontrakoa da adin nagusikoen artean: % 11,3ra iritsi da 25 eta 44 urte bitartekoen taldean (+ 7 hamarren 2019ko amaierarekin alderatuta, baina -1,5 puntu aurreko hiruhilekoarekin alderatuta), eta puntu erdi jaitsi da 44 urtetik gorakoen artean, % 7raino (2019ko laugarren hiruhilekoko baino datu hobea: % 7,4).




Ikusi diren BJAREN emaitzak honako hauek baldintzatu dituzte: COVID-19aren bat-bateko agerpenak berak eta jardura murrizteko hartutako neurriek, enpresetan ABEEEak masiboki erabiltzearen ondorioz, jardura aldi baterako aldatu eta/edo etetea eragin baitute, baina ez biztanleriaren izaera, lana izateari ala ez izateari dagokienez. Izan ere, ABEEE batean dauden pertsona gehienek landunak izaten jarraitzen dute (% 98,6, EUSTATen kalkuluen arabera), 3 hilabete iragan baino lehenago lanera itzultzeko asmoa dutelako edo soldataren % 50 baino gehiago kobratzen jarraitzen dutelako (aurrerago, neurri horiek eskuratzea aztertzen da espezifikoki). Beste tresna aringarri batzuk badaude langile autonomoei eragiten dietenak, eta horiek ere ez dute zertan jarduerarekiko harremana aldatu.

BJA inkesta jarraitua denez, zenbait aldagai hilabeteka edo asteka aztertzeko aukera ematen du, eta bereziki interesgarria da erreferentziako astean **lanik egin ez zuten pertsona landunen ehunekoaren bilakaera**. Bigarren hiruhilekoei erreparatzen badiegu, kontuan hartuta 2020ko bigarren hiruhilekoan gertatzen dela konfinamendua eta apiriletik aurrera ikusten dela argien COVID-19aren eragina, ikusiko dugu azken urteetan ehuneko hori % 7,5 eta % 11 artekoa zela, baina 2020an tasa % 26,6raino igotzen dela (ikus 2.2.5 taula). Hirugarren hiruhilekoetan, ordea, alde hori ez da hain deigarria: lanik egin ez zutenen ehunekoa 2019an % 27 izatetik 2020an % 28,5 izatera igaro da (tasak, oro har, handiagoak dira, hirugarren hiruhilekoan biztanleria landunaren zati handi baten opor-asteak jasotzen baitira).

2.2.5 TAULA ERREFERENTZIAZKO ASTEAN LAN EGIN EZ ZUTEN ETA ENPLEGU JARRAITUA DUTEN 16 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA. EAE, II. ETA III. HIRUHILEKOAK.		
	II. HIRUHILEKOA	III. HIRUHILEKOA
2015	9,1	24,7
2016	6,0	26,3
2017	8,1	25,5
2018	7,5	26,7
2019	11,0	27,0
2020	26,6	28,5

Iturria: EUSTAT. BJA.


Bestalde, 2.2.4 grafikoak erakusten du, 2020ko lehen hiru hiruhilekoetako asteko bilakaeran, alarma-egoeraren deklarazioak eta konfinamenduak lanik egin ez zuten langileen ehunekoan izan zuen eragina, eta, ondoren, lan-jardueraren susperraldi progresiboa iritsi zela. Ondoren, hirugarren hiruhilekoaren bilakaera, esan bezala, udako oporren araberakoa da: maximoa abuztuaren erdialdean lortzen da (% 56,1), eta pixkanaka behera egiten du, iraileko azken astean % 8,4ra iritsi arte.



Bestalde, EINeko Biztanleria Aktiboaren Inkestak, 2020ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, **etxean bertan egindako lanari** buruzko galderak gehitu ditu, halakorik egitea ohikoa izan ez arren (normalean, azpilaginaren aldagaien barruan urteko emaitzekin baino ez dira argitaratzen), eta galdera horiek pandemiaren ondorioz lan-merkatuan, eragina duten fenomenoetatik beste bat, telelana, kuantifikatzeko aukera eman digute.

Zifra horiek erakusten dutenez, 2020ko bigarren hiruhilekoan (konfinamendu-egun gehienak hartzen dituen aldian), EAEko 32.700 pertsonak noizbehinka beren etxebizitza partikularretik lan egin zuten, hau da, biztanleria landunaren % 3,6k: 2019ko ia kopuru bera da hori. Baina, horrez gain, beste 113.100ek, % 12,6k, erreferentziako asteko egunen erdia baino gehiago etxetik lan egin zuten; 2019an, ordea, % 4,3 izan zen. Ondorioz, 145.800 pertsonak, biztanleria landunaren % 16,2k, lan egin zuten etxetik, aurreko urtekoaren bikoitza baino gehiago. Sexuaren arabera, emakumeen tasa gizonena baino zertxobait altuagoa da (% 16,5 eta % 6, hurrenez hurren), baina aurreko urtean telelanaren tasa altuagoa zuten gizonak (% 8,9 gizonak ziren eta % 6,6 emakumeak).

Hirugarren hiruhilekoan, langileen zati handi bat beren lanpostuetara itzultzean, etxetik lan egiteari buruzko tasa orokorrak 4 puntu jaitsi dira, aipatutako % 16,2tik % 12,2ra, eta, gainera, osaera aldatu egin da; izan ere, noizbehinka telelana egiten dutenen ehunekoa handitu da (% 3,6tik % 4,6ra), eta telelanaren tasa asteko egunen erdia baino gehiago murriztu da (% 12,6tik % 7,6ra). Aldaketa hori bi sexuetan gertatzen da, baina emakumeen artean intentsitate handiagoarekin, eta horien kasuan, noizbehinkako telelanak ia bi puntu egin du gora.



Datu horiek Estatuko batez bestekoarekin alderatuz gero, ikus daiteke telelana neurri txikiagoan erabiltzen dela gure erkidegoan, eta alde horrek gora egin duela 2020an. Bigarren hiruhilekoan, Estatuan 3,5 milioi pertsona baino gehiago baliatu ziren telelanaz, % 19,1ek; eta EAEn, berriz, % 16,2 izan ziren.

Hirugarrenean, Estatuko telelanaren tasa % 16,8ra jaitsi da (-2,3 puntu), osaeran EAEn izandako aldaketa berarekin: noizbehinkako telelanak gora egin du eta ohiko telelanak behera. Gainera, handitu egin da Estatua-EAE arrakala, 2020ko bigarren hiruhilekoan 2,9 puntukoa izatetik hirugarrenean 4,6 puntukoa izatera igaro baita.

**2.2.6 TAULA ERREFERENTZIAKO ASTEAN TELELANA EGIN ZUEN BIZTANLERIA LANDUNAREN EHUNEKOA. EAE ETA ESTATUA.**

	EAE			ESTATUA		
	NOIZEAN BEHIN	EGUNEN ERDIA BAINO GEHIAGO	GUZTI RA	NOIZEAN BEHIN	EGUNEN ERDIA BAINO GEHIAGO	GUZTI RA
2015	3,0	3,1	6,2	2,9	3,6	6,4
2016	3,2	2,9	6,1	2,9	3,5	6,4
2017	3,1	3,3	6,4	3,0	4,3	7,3
2018	2,9	3,7	6,6	3,2	4,8	8,0
2019	3,5	4,3	7,8	3,5	4,8	8,3
II-2020	3,6	12,6	16,2	2,9	16,2	19,1
III-2020	4,6	7,6	12,2	4,2	12,6	16,8

*Iturria: EIN. EPA.*

## 2.2.2. Gizarte Segurantzako afiliazioa

EAEk 980.592 afiliatu zituen guztira 2019an (abenduko batez besteko datua), aurreko urtean baino % 1,9 gehiago.


Pandemiaren ondorioz, afiliatuen bolumenak behera egin du apiriletik, hasiera batean zertxobait (-% 1,5 urte arteko tasan); ekainean, berriz, beherakadarik handiena gertatu da (-% 3,1). Uztailean % 2,8 jaitsi da eta abuztuan, azkenik, % 1,9. Jaitsiera-tasak murrizteaz gain, komeni da adieraztea beherakadak une oro aurreko krisialdian izandakoak baino txikiagoak izan direla: -% 4,3 2009ko uztailean eta -

% 4 2013ko otsailean. Aipatu berri ditugun ABEEE-en erabilerak markatzen du aldea; izan ere, langile horiek enpresekiko lotuta mantentzen ari dira, eta ez dira langabetzat hartzen.

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE		
				ABS.	ALD. ABS.	ALD. MODU LUA
2017	156.311	314.809	472.867	943.987	18.697	2,0
2018	158.676	321.516	481.912	962.104	18.117	1,9
2019	161.494	327.716	491.382	980.592	18.488	1,9
20KO URT.	159.713	324.219	486.039	969.971	16.447	1,7
20KO OTS.	160.016	325.418	487.719	973.152	17.354	1,8
20KO MAR.	158.415	324.475	484.499	967.389	7.113	0,7
20KO API.	154.517	318.953	475.500	948.970	-14.119	-1,5
20KO MAI.	155.106	317.685	474.095	946.886	-22.401	-2,3
20KO EKA.	154.165	316.513	472.216	942.894	-30.524	-3,1
20KO UZT.	153.799	317.878	470.854	942.531	-27.014	-2,8
20KO ABU.	152.619	316.674	469.293	938.585	-17.979	-1,9
2020KO IRA.	154.643	317.493	473.798	945.935	-15.647	-1,6

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa

2.2.6. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIAZIOA LURRALDEEN ARABERA: 2019-2020KO URTE ARTEKO HILEKO ALDAKUNTZA. DATUAK PORTZENTAJEAN



Lurraldeka, afiliazio-portzentajeen beherakada handienak Araban izan dira apirilean, maiatzean eta ekainean; ekainean -% 4ra iritsi da beherakada hori. Uztailean eta irailean bitartean, hiru lurraldeek hartzen dute parte afiliazio galeraren dezelerazioan: irailean guztiak -% 1,6ko batez bestekoaren inguruan daude.

Sexuaren araberako analisiari erreparatuta, berriz, beherakada arinagoa izan da emakumeen artean (-% 0,8) gizonen artean baino (-% 2,3), sektoreen araberako parte-hartzea desberdina delako. Industriak gizonen presentzia du gehienbat eta azken hilabeteetan ez du ia hobekuntzarik izan (-% 4,2 iraileko urte arteko tasan). Bestalde, zerbitzuetan, emakume langileen ehunekoa oso handia da, eta urtetik urterako jaitsiera nabarmen txikiagoa da (-% 1,2).

**2.2.8 TAULA GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA\*, EKOIZPEN-ADARREN ARABERA. Batez besteko DATUAK. 2020KO IRAILA. EAE.**

	2019	ALD. % 18/19	IRAILA 2020	20KO IRA.- 19KO ABE.	19KO IRA. / 20KO IRA. (%)	20KO IRA-19KO IRA
LEHEN SEKTOREA, GUZTIRA	11.781	-1,7	14.219	2.438	5,1	687
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, BASOGINTZA, ARRANTZA*	9.632	-1,8	10.338	706	-1,3	-136
NEKAZARITZAKO SISTEMA BEREZIA	2.149	-1,0	3.881	1.732	26,9	823
INDUSTRIA GUZTIRA	183.437	-0,1	177.414	-6.023	-4,2	-7.704
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	566	2,5	560	-6	-1,9	-11
MANUFATURA-INDUSTRIA	173.423	-0,1	168.883	-4.540	-4,2	-7.478
ENERGIA ELEKTRIKOAREN, GASAREN, LURRUNAREN HORNIKUNTZA	1.502	-16,3	1.532	30	-14,6	-261
URAREN HORNIKUNTZA, HONDAKINEN KUDEAKETA	6.306	5,1	6.439	133	0,7	47
ERAIKUNTZA	57.092	1,8	56.584	-508	-0,6	-328
ZERBITZUAK, GUZTIRA	728.282	2,5	697.715	-30.567	-1,2	-8.206
MERKATARITZA ETA KONPONKETAK	138.906	-0,3	135.424	-3.482	-2,1	-2.852
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	43.145	2,5	42.126	-1.019	-1,2	-521
OSTALARITZA	68.088	2,6	61.942	-6.146	-6,5	-4.296
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	23.275	2,2	23.212	-63	-0,4	-97
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	17.795	-1,3	17.341	-454	-2,9	-512
HIGIEZINEN ALORREKO JARDUERAK	4.157	4,3	4.168	11	0,9	37
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	57.301	2,2	56.009	-1.292	-0,3	-154
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	66.735	-0,1	66.356	-379	-2,2	-1.519
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	49.243	2,3	47.941	-1.302	0,6	283
HEZKUNTZA	75.999	2,9	64.357	-11.642	1,9	1.177
OSASUN-JARDUERAK ETA GIZARTE-ZERBITZUETAKO JARDUERAK	107.646	10,8	110.231	2.585	2,9	3.058
JARDUERA ARTISTIKOAK, JOLASERAKO ETA ENTRETENIMENDURAKO JARDUERAK	17.517	5,4	14.401	-3.116	-4,9	-745
BESTELAKO ZERBITZUAK	28.709	-0,1	25.609	-3.100	-4,1	-1.103
LANGILEEN ENPLEGATZAILE GISAKO ETXEAK	1.069	-3,2	1.050	-19	-5,2	-58
LURRALDEEZ KANPOKO ERAKUNDEAK ETA ORGANISMOAK	57	1,8	58	1	-1,8	-1
ETXEKO LANGILEAK	28.640	-2,6	27.489	-1.151	-3,2	-904
<b>GUZTIRA</b>	<b>980.592</b>	<b>1,9</b>	<b>945.935</b>	<b>-34.657</b>	<b>-1,6</b>	<b>-15.647</b>

*Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa. GSDN. Geuk egina.*

*\* Its. Arab. Ber. afiliazioa barne hartzen du.*

Afiliazioaren susperraldia administrazio publikoari lotutako adarretan izandako gorakadari zor zaio: osasuna, hezkuntza eta administrazio publikoa (% 2,9ko, % 1,9ko eta % 0,6ko igoerak, hurrenez hurren). Manufakturen industrian, ostalaritzan eta merkataritzan, berriz, pandemiaren ondorioak jasaten jarraitzen dira: -% 4,2, -% 6,5 eta -% 2,1 hurrenez hurren.

**2.2.9 TAULA GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA ARAUBIDEEN ARABERA EAE-N. 2020KO IRAILA.**

	ABE. 2019	ALD. % 18/19	IRA. 2020	20KO IRA.- 19KO ABE.	19KO IRA. / 20KO IRA. (%)	20KO IRA.- 19KO IRA.	
ARAUBIDE OROKORRA	OROKORRA	775.926	2,8	741.629	-33.667	-1,9	-14.174
	NEKAZARITZAREN SISTEMA BEREZIA	2.149	-1,0	3.881	1.732	26,9	823
	ETXEKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA	28.640	-2,6	27.489	-1.151	-3,2	-904
	GUZTIRA	806.085	2,6	772.999	-33.086	-1,8	-14.255
AUTONOMOAK	170.967	-0,9	164.718	-6.249	-0,6	-1.063	
MAR.	3.541	-1,7	8.218	4.678	-3,8	-329	
SISTEMA, GUZTIRA	980.592	1,9	945.935	-34.657	-1,6	-15.647	

*Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa. GSDN. Geuk egina.*

Araubideen arabera, araubide orokorrak 10 alta-afiliatitok 8 hartzen ditu: 2020ko irailean batez bestekoaren gainetik jaitsi zen, % 1,8; beraz, azken urtean galdutako 15.647 afiliatioetatik % 91,1 araubide horretakoak dira. Autonomoen afiliatioak, berriz, % 0,6 egin du behera (-1.063 afiliatio). Eta, Araubide Orokorreko kontratu-motaren arabera (nekazaritzako eta etxeke kontratu bereziak alde batera utzita), afiliatioaren beherakada handiena aldi baterako langileen

artean gertatu da, lanaldi partziala (-% 9,4, 2019ko irailarekin alderatuta) zein lanaldi osoa (-% 7,4) dutenen artean. Kontratu mugagabea dutenen alta-afiliazioak, berriz, % 1,2 egin du gora.

2.2.10 TAULA GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA (ARAUBIDE OROKORRA) EAE-N. Batez besteko DATUAK. 2020KO IRAILA.					
	ABE. 2019	IRAILA 2020	20KO IRA.-19KO ABE.	19KO IRA. / 20KO IRA. (%)	20KO IRA.-19KO IRA
MUGAGABEA, LANALDI OSOA	385.969	387.845	1.876	1,2	4.582
MUGAGABEA, LANALDI PARTZIALA	73.789	73.006	-783	1,0	756
MUGAGABEAK, GUZTIRA	459.758	460.851	1.093	1,2	5.338
ALDIZKAKO LANGILE FINKOAK	13.446	9.395	-4.051	-4,8	-471
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK, LANALDI OSOA	138.297	130.547	-7.750	-7,2	-10.198
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK, LANALDI PARTZIALA	86.597	68.122	-18.475	-9,4	-7.069
BEHIN-BEHINEKOAK, GUZTIRA	224.894	198.669	-26.225	-8,0	-17.267
BESTERIK*	77.197	72.716	-4.481	-2,4	-1.772
<b>GUZTIRA</b>	<b>775.296</b>	<b>741.629</b>	<b>-33.667</b>	<b>-1,9</b>	<b>-14.174</b>

*Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa. GSDN. Geuk egina.*  
*\*Kontraturik gabeko afiliatuak, funtzionarioak, profesionalak ez diren zaintzaileak, prestakuntza-programak eta enpresako lanekoak ez diren praktikak, eta akatsengatik edo omisioagatik fitxategian kontratu-motarik ez dutenak.*

### 2.2.3. Erregistraturiko langabezia

Gure erkidegoak 2019aren amaieran 114.162 langabe zeuzkan (abenduko batez besteko datua), 2018ko abenduan baino % 4,6 gutxiago.

Pandemiaren eta jarduera ekonomikoaren gelditzearen ondorioz (2020ko martxoan hasi zen), hilabete horren amaieran langabeziak gora egin zuen, eta urte arteko saldoa % 8,7koa izan zen. Hurrengo hilabeteetan, urtetik urterako ratioak gero eta handiagoak dira, nahiz eta, dirudienez, azken datuak, irailekoak, +% 27,4koak (aurreko hilean baino 1,2 puntu gehiago), azelerazio hori egonkortu egiten duen, aurreko hilabetearekiko saldoa negatiboa baita (-1.692). Zenbaki absolutuetan, 144.758 langabe zenbatu dira, otsailean baino 27.500 gehiago.


Hazkundearen aipaturako egonkortzea orokorra izan da, sektore guztietan izan baita. Krisiaren uneetan (martxoan eta apirilean) zerbitzuen sektorea industriarena baino gehiago hazi baziren ere, hurrengo hilabeteetan urte arteko aldakuntza-tasak berdintzen joan dira, uztailetik aurrerako jaitsierarik zertxobait behera. Abuztuan eta irailean, azkenik, bi sektore horiek, batez besteko hazkundetik gero eta gertuago dauden tasak dituzte; hala, azken hilabeteetan ratioak % 28,1 dira industriarako, % 27,1 zerbitzuetarako, eta batez bestekoa %

2.2.11 TAULA LANGABEZIAREN BILAKAERA EAE-N. 2017-2019KO ABENDUA ETA 2020KO HILEKO DATUAK.						
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE		
				ABS.	ALD. ABS.	ALD. %
2017	20.826	72.749	33.972	127.547	-8.626	-6,3
2018	19.944	68.047	31.678	119.669	-7.878	-6,2
<b>2019</b>	<b>18.722</b>	<b>65.117</b>	<b>30.323</b>	<b>114.162</b>	<b>-5.507</b>	<b>-4,6</b>
20KO URT.	19.443	67.119	31.087	117.649	-3.101	-2,6
20KO OTS.	19.339	66.875	31.025	117.239	-2.624	-2,2
20KO MAR.	21.448	72.668	34.097	128.213	10.261	8,7
20KO API.	23.403	78.061	37.179	138.643	22.999	19,9
20KO MAI.	23.782	79.616	38.317	141.715	27.842	24,5
20KO EKA.	24.343	80.967	39.138	144.448	33.105	29,7
20KO UZT.	24.164	80.133	39.063	143.360	30.276	26,8
20KO ABU.	24.987	81.641	39.822	146.450	30.372	26,2
2020KO IRA.	25.100	80.381	39.277	144.758	31.124	27,4

*Iturria: LANBIDE. Geuk egina.*

27,4 da. Azkenik, eraikuntzaren sektoreak, joera berari jarraitzen badio ere, langabeziak hazkunde apalagoak izan ditu 2020 osoan zehar, pandemiak jarduera horietan izan dituen eragin txikiagoengatik (+% 18,8 irailean).

**2.2.7 GRAFIKOA. SEKTOREKA ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. 2019-2020 URTE ARTEKO HILEKO ALDAKUNTZA. DATUAK EHUNEKOTAN**



Iturria: INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Lurraldeka, hiruren bilakaerak antzeko joera du, baina Gipuzkoa nabarmentzen da, langabeziaren igoera-tasa altuenak dituelako (ekainean +% 35 gainditzera). Arabak, bestalde, okerrera egin du azken hilabeteetan, bere urte arteko tasa (+% 32,4) Gipuzkoakoa (+% 32,2) baino handiagoa baita. Sexuaren arabera, orain arte, langabezia gehiago hazi da gizonen artean (+% 36,5) emakumeen artean baino (+% 20,7), eta, bereziki, pertsona gazteenen artean; izan ere, azken horiek langabeen % 10,1 soilik badira ere, langabeen kopuruak % 82,9 igo dira 2019ko irailarekin alderatuta.

Bestalde, 2020ko irailean langabezian ez dauden baina enplegua eskatzen duten 349.725 pertsona badaude; beraz, guztira 494.483 pertsona daude enplegu eske, 2019ko abenduan baino % 77,5 gehiago, eta iaizko irailean baino % 77,3 gehiago. Hala, 2019ko abendutik, langabeek enplegu eskatzaileen guztizkoan duten pisua % 41etik % 29,7ra jaitsi da.

**2.2.12 TAULA. LANGABEZIAREN BILAKAERA EAE-N. ALDAGAI NAGUSIAK. HILEKO BATEZ BESTEKO DATUAK.**

	2019KO ABENDUA	ALD. % 18/19	IRAILA 2020	IRAILA 20KO ABENDUA 19	ALD. % 19KO IRA / 20KO IRA.	20KO IRA. - 19KO IRA.
<b>GUZTIRA</b>	<b>114.162</b>	<b>-4,6</b>	<b>144.758</b>	<b>30.596</b>	<b>27,4</b>	<b>31.124</b>
LURRALDEEN ARABERA						
- ARABA	18.722	-5,4	25.100	6.378	32,4	6.146
- BIZKAIA	65.117	-4,5	80.381	15.264	23,7	15.514
- GIPUZKOA	30.323	-4,3	39.277	8.954	32,2	9.563
SEXUAREN ARABERA						
- GIZONAK	51.168	-3,5	65.731	14.563	36,5	17.577
- EMAKUMEAK	62.994	-5,5	79.027	16.033	20,7	13.547
ADINAREN ARABERA						
- 25 URTETIK BEHERAKOAK	7.879	5,9	14.614	6.735	82,9	6.623
- 25 URTETIK GORAKOAK	106.283	-5,3	130.117	23.834	23,2	24.474
SEKTOREEN ARABERA						
- LEHEN SEKTOREA	2.509	-7,9	2.644	135	22,1	479
- INDUSTRIA	14.326	-5,0	17.195	2.869	28,1	3.772
- ERAIKUNTZA	8.295	-8,4	9.448	1.153	18,8	1.492
- ZERBITZUAK	89.032	1,9	96.727	7.695	27,1	20.613
- AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.575	-4,1	18.744	5.169	34,1	4.768
ATZERRITARRAK	18.433	-3,4	23.837	5.404	37,3	6.477
<b>ENPLEGU ESKATZAILEAK, GUZTIRA</b>	<b>278.611</b>	<b>3,1</b>	<b>494.483</b>	<b>215.872</b>	<b>77,3</b>	<b>215.512</b>

Iturria: SEPE. Geuk egina.

## 2.2.4. Kontratazioa

Gure erkidegoak 1.008.175 lan-kontraturekin itxi zuen 2019. urtea, 2018an baino % 0,7 gehiago; hiru lurralde historikoetan bilakaera antzekoa izan da.

2020ko urtarrilean kontratuen % 4 galdu ziren aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta otsailak tasa positiboak izan zituen (+% 5,8). Pandemia deklaratzearekin eta, horren ondorioz martxoaren erdialdean izan zen konfinamenduarekin, kontratazioak behera egin du. Lehen bi asteetan gora egin duen arren, urte arteko hileko


saldoa % 25,3koa izan zen, eta bi hilabete geroago, apirilean eta maiatzean, % 60tik gorako beherakadak izan ziren. Txosten hau egin den egunean, irailera arteko datuak daude: ekainetik irailera bitartean kontratazioaren beherakada mantendu egin da, baina tasak jaitsi egin dira, eta azken hilabeteko tasa -% 21,7koa izan da.

2020ko urtarriletik irailera bitarteko datu metatua 507.641 lan-kontratukoa da, 2019ko epe berean baino % 32,1 gutxiago, hau da, 239.484 kontratu gutxiago. Gainera, urtarrila eta abuztua bitartean 44.057 kontratu mugagabe daude, guztizkoaren % 8,8; 2019an, berriz, kontratazio mugagabeen tasa % 8,3koa izan zen. Bestalde, 2020ko abuztura arte, lanaldi partzialeko kontratuen tasak guztizkoaren % 38,1 izan ziren: % 50,4 emakumeen kasuan eta % 26,2 gizonen kasuan; 2019an, berriz, % 40,3, % 53,4 eta % 27 izan ziren, hurrenez hurren.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE		
				ABS.	ALD. ABS.	ALD. %
2017	182.413	494.991	280.696	958.100	31.501	3,4
2018	192.312	516.984	291.885	1.001.181	43.081	4,5
<b>2019</b>	<b>193.720</b>	<b>520.674</b>	<b>293.781</b>	<b>1.008.175</b>	<b>6.994</b>	<b>0,7</b>
20KO URT.	15.500	41.528	23.231	80.259	-3.320	-4,0
20KO OTS.	13.361	38.017	21.326	72.704	3.986	5,8
20KO MAR.	10.250	29.397	16.045	55.692	-18.846	-25,3
20KO API.	4.855	14.054	7.685	26.594	-49.988	-65,3
20KO MAI.	7.630	17.127	8.993	33.750	-56.923	-62,8
20KO EKA.	8.934	26.492	15.205	50.631	-42.844	-45,8
20KO UZT.	11.847	31.024	20.024	63.550	-29.108	-31,4
20KO ABU.	7.766	22.948	15.060	45.774	-20.623	-31,1
2020KO IRA.	17.634	38.111	22.942	78.687	-21.818	-21,7

Iturria: LANBIDE. Geuk egina.

2.2.8 GRAFIKOA. LAN-KONTRATAZIOAREN HILEKO BILAKAERA, LURRALDEEN ARABERA. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. 2019-2020



Iturria: SEPE. Geuk egina.

2.2.14 TAULA KONTRATAZIOA EAE-N, SEXUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN (EJSN 2009). 2019-2020.					
	2019an, GUZTIRA	18/19 (%)	METATUA 2020KO URTARRILA-IRAILA		
			ABS.	ALDAK. 19-20	19/20 (%)
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	17.618	-4,5	12.685	334	2,7
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	114	-13,0	84	-8	-8,7
MANUFATURA-INDUSTRIA	144.172	-3,1	73.984	-37.684	-33,7
ENERGIA ELEKTRIKOAREN, GASAREN, LURRUNAREN HORNIKUNTZA	146	-2,0	106	11	11,6
URAREN HORNIKUNTZA, HONDAKINEN KUDEAKETA	6.259	3,3	3.793	-903	-19,2
ERAIKUNTZA	34.049	-4,2	21.311	-5.064	-19,2
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA; KONPONKETAK...	107.493	-2,7	66.774	-13.215	-16,5
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	82.453	10,4	50.703	-10.062	-16,6
OSTALARITZA	171.383	6,0	54.172	-71.320	-56,8
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	30.441	4,3	15.962	-7.891	-33,1
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	4.338	-3,5	2.355	-945	-28,6
HIGIEZINEN ALORREKO JARDUERAK	1.389	2,7	726	-314	-30,2
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	33.808	2,3	14.906	-10.114	-40,4
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	108.392	-8,1	55.836	-23.497	-29,6
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	14.395	8,5	5.924	-3.978	-40,2
HEZKUNTZA	51.030	7,3	22.058	-15.249	-40,9
OSASUN-JARDUERAK ETA GIZARTE-ZERBITZUETAKO JARDUERAK	117.203	2,1	71.441	-13.863	-16,3
JARDUERA ARTISTIKOAK, JOLASERAKO ETA ENTRETENIMENDURAKO JARDUERAK	45.069	0,5	14.939	-18.066	-54,7
BESTELAKO ZERBITZUAK	20.966	-0,6	8.428	-6.420	-43,2
LANGILEEN ENPLEGATZAILE GISAKO ETXEAK	17.218	-0,1	11.367	-1.143	-9,1
LURRALDEEZ KANPOKO ERAKUNDEAK ETA ORG.	239	-9,8	87	-93	-51,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.008.175</b>	<b>0,7</b>	<b>507.641</b>	<b>-239.484</b>	<b>-32,1</b>

*Iturria: LANBIDE. Geuk egina.*

2020ko urtarrila eta iraila arteko metatuaren eta 2019ko aldi beraren arteko konparazioan, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, manufatura-industriaren kontratazioaren beherakada: kontratuen guztizkoa % 33,7 murriztu da, batez bestekoa (-% 32,1) baino zertxobait gehiago, baina jarduera horrek EAEko ekonomiarentzat duen garrantzia kontuan hartuta (2019ko kontratu guztien % 14,3), horrek esan 37.500 kontratazio baino gehiago galdu direla aurrean eta guztizko kontratazioan puntu erdiko beherakada izan dela.

Bigarrenik, kontratazioaren beherakada handienak honako hauetan gertatu dira: ostalaritzako jardueretan (-% 56,8, 2019ko urtarrila-irailarekin alderatuta), arte, aisialdi eta aisialdiko jardueretan (-% 54,7), hezkuntzan (-% 40,9) eta Administrazio Publikoan (-% 40,2), eta, horrenbestez, guztiek garrantzia galdu dute guztizko kontratazioari begiratuta. Aldiz, gutxi murriztu dira (kontratazioen beherakada orokorra baita) eta, beraz, pisu handiagoa hartu dute guztizkoan, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak (-% 16,3), merkataritza eta garraiokoek (-% 16,5 eta -% 16,6, hurrenez hurren) eta eraikuntzakoek (horien kontratazioa % 19,2 murriztu da).

## 2.2.5. ABEEEak

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE) erabiltzeari esker, nahiz eta berez tresna berria ez izan, pandemiaren aurrean langileen babesari eutsi ahal izan zaio, eta plantillen malgutasuna erraztu da, ekonomiaren geldiarazteak berekin zekarren ziurgabetasuna dela eta.

Fenomeno hau bi ikuspuntu ezberdin baina elkarren osagarrietatik aztertuko dugu. Lehenik eta behin, **Lan Harremanen Kontseiluak** (LHK) 2020ko maiatza/ekaineko buletinean egindako azterketak, ekainaren 26ra arte metatutako espedienteetatik abiatuta (martxoaren 5etik data horretara arte erantsitako datuak), aukera ematen du ikuspegi orokorra emateko EAEko enpresek tresna hori baliatzeari eta horrek langileengan duen eraginari buruz, kontuan hartuta erreferentziako data horretan ABEEE baten pean zeuden plantillen zati handi bat berriz lanean hasia zela.

2.2.15 TAULA. 2020KO MARTXOAREN 5ETIK EKAINAREN 26RA BITARTEAN JAKINARAZITAKO (EUSKAL ADMINISTRAZIOA) ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK.					
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE, GUZTIRA
ESPEDIENTEAK, ARRAZIOAREN ARABERA	GUZTIRA	3.992	13.433	9.285	26.710
	- ARRAZOI EKONOMIKOAK	40	140	128	308
	- ARRAZOI TEKNOLOGIKOAK	485	958	877	2.320
	- EZINBESTEKO ARRAZIOIA	3.467	12.335	8.280	24.082
UKITUTAKO PERTSONAK, ARRAZIOAREN ARABERA	GUZTIRA	42.413	92.854	64.685	199.952
	- ARRAZOI EKONOMIKOAK	452	2.318	1.257	4.207
	- ARRAZOI TEKNOLOGIKOAK	12.231	21.583	14.497	48.311
	- EZINBESTEKO ARRAZIOIA	29.730	68.953	48.931	147.614
UKITUTAKO PERTSONAK, ESPEDIENTE-MOTAREN ARABERA	BEHERAPENA	8.239	21.864	18.055	48.108
	ETENALDIA	34.066	70.260	46.622	150.948
	MURRIZ.+ETETEA (ABEEE)	42.305	92.124	64.677	199.056
	AZKENTZEA	18	730	58	806

*Iturria: LAN HARREMANEN KONTSEILUA. 2020ko maiatzeko eta ekaineko informazio soziolaborala*

LHK-k nabarmentzen du, aztertutako aldian EAEko sektore pribatuko soldatapekoen heren bat, gutxi gorabehera, enplegu-erregulazioko espediente (EEE) baten eraginpean egon zela uneren batean, nahiz eta ekaina amaitzean, aipatu dugun bezala, horien % 60 beren lanpostuetan berriz hasi ziren.

Pertsona horietako ia-ia guztiak, 199.056 langile, ABEEE baten (aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente) pean egon ziren; izan ere, % 0,4 baino ez ziren izan lan-harremana azkentzeko espediente bat jasan behar izan zutenak. Ezinbesteko kasuarengatiko espedienteak guztizkoaren % 90,2 izan ziren.


ABEEE-en ondorioei dagokionez, haien pean egon diren langileen % 75,8ri lan-harremana eten zitzaien denbora batez, eta gainerako % 24,2ri, berriz, murrizketaren bat egin zitzaien lanaldian. Espediente gehienak (% 84,8) gehenez 10 pertsonako plantilla duten enpresek bidali zituzten, nahiz eta, kontuan hartzen badugu zenbat langileri eragiten dien, enpresa txikiagoetako langileak (64.790 langile) espedienteen eraginpean dauden guztien % 32,4 baino ez diren. Sektoreka, zerbitzuen sektorearen nagusitasun argia adierazten du LHK-k, bai espediente kopuruari dagokionez (% 83,5), bai espediente horien peko plantillei dagokionez (% 63,2). Ondoren, industria dator, espedienteen kopurua nabarmen txikiagoarekin (guztizkoaren % 10,9); halere, espediente horiek ukitutako langileen % 39,2 biltzen dituzte.

LHK-k bere azterketan nabarmendu duenez, urte honetan enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako pertsonen kopuruak nabarmen gaitzen du aurreko krisietakoa; izan ere, 2008 osoan erregistratutakoak baino ia hiru aldiz handiagoa da.

Bigarrenik, **Gizarte Segurantzak** bere hileroko afiliazio-buletinetan argitaratzen ditu ABEEE baten pean dauden langileen kopuruak, autonomia-erkidegoen arabera, aurtengo apiriletik aurrera. Kontabilizatzeko modua desberdina bada ere, iturri horrek aukera ematen digu espediente mota horiek eragindako langileen hileroko jarraipena egiteko.

Iturri hori apirileko buletinean hasi zen kontabilizatzeko ABEEE-en pean geratutako langileen zifrak. Hilabete horretan, EAEn 152.872 pertsona erregistratu ziren, eta horietatik % 90,3 ezinbesteko kasuarengatiko espedienteetan zeuden. Zenbateko hori ia % 50ean banatzen da gizonen eta emakumeen artean. Lurraldeka, % 18,4 Arabakoak dira, % 33,9 Gipuzkoakoak eta gainerako % 47,7 Bizkaikoak.

Orain arte eskuragarri dagoen hileko serieko zifra maximoa da, zeinak ordutik, hilabetez hilabete, behera egin baitu; hala, irailean 25.046 pertsona zeuden ABEEE baten pean, abuztuan baino % 11,7 gutxiago eta apirilean baino % 83,6 gutxiago. Beherakada hori antzeko intentsitateekin gertatu da hiru lurraldeetan.



## 2.2.6. EINen Lan Kostuen gaineko Hiru Hilean Behingo Inkesta (LKHHBI)

EINen Lan Kostuen gaineko Hiru Hilean Behingo Inkestak (LKHHBI) informazioa ematen du, lehenik eta behin, lanean ari den biztanleriak **lan egindako denborari eta lan egin gabeko denborari** buruz.

2020ko II. hiruhilekoan (eskuragarri dagoen azken datua), EAEko biztanleria landunak, batez beste, 102,6 lanordu efektibo egin zituen hilean, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean baino % 17,6 gutxiago. Zifra hori xehakaturata (gogora dezagun benetako orduak itundutako orduak direla, gehi aparteko orduak ken lan egin gabeko orduak direla), ikusten da itundutako orduak ia ez zirela aldatu (+% 01 urte arteko tasan); aldiz, aparteko orduak, guztira 0,2, % 66,7 murriztu ziren, eta lan egin gabeko orduak, langile bakoitzeko 44,3 ordu hilean, % 95,2 igo ziren 2019ko II. hiruhilekoarekin alderatuta.


Horrela, lan egin gabeko orduen ehunekoa, benetako orduekin alderatuta, % 43,2koa da (aurreko urtearen ia bikoitza); oso handia den ratio horrek konfinamenduaren inpaktua eta hiruhileko honetako jardueraren beherakada erakusten ditu.

**2.2.16 TAULA EAE-KO LAN-DENBORAREN HIRUHILEKOKO BILAKAERA. ORDUAK/LANGILEA ETA HILABETEA.**

	ORDAINDU TAKO ORDUAK	BENETAKO ORDUAK	HITZARTUT AKO ORDUAK	APARTEKO ORDUAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK/BENETAKO ORDUAK (%)
I-2018	145,8	126,9	146,2	0,4	19,8	15,6
II	146,5	130,3	147,0	0,5	17,2	13,2
III	148,8	109,7	149,1	0,4	39,9	36,4
IV	146,9	124,4	147,3	0,5	23,4	18,8
I-2019	145,4	129,1	146,1	0,5	17,5	13,6
II	146,0	124,5	146,6	0,6	22,7	18,2
III	149,7	105,4	150,0	0,6	45,1	42,8
IV	146,8	123,7	147,3	0,5	24,1	19,5
I-2020	144,9	123,8	145,3	0,4	22,0	17,8
II	146,3	102,6	146,7	0,2	44,3	43,2

*Iturria: EIN. LKHHBI.*  
*Oharra: Benetako orduak = Itundutako orduak + aparteko orduak - lan egin gabeko orduak*

**2.2.10 GRAFIKOA LAN EGIN GABEKO ORDUEN BILAKAERA, LANGILEAREN ETA HILABETEAREN ARABERA, ETA ORDU EFEKTIBOEN GAINEAN DUTEN PISUA. EAE. II. HIRUHILEKO.**




Iturria: EIN. LKHHBI. Geuk egina

Bigarrenik, LKHHBIk kalkulaturako lan-kostuen eta haien soldata-kostuen banakapenak, gure Erkidegoko **soldaten bilakaeraren**egoeraren arabera hurbilketa egiten dute.

EAEko hileroko lan-kostua, 2020ko II. hiruhilekoan, 2.858,8 eurokoa da, Estatuko batez bestekoa baino % 17 handiagoa. Kostu hori % 6,3 jaitsi da 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta, eta Estatuan, berriz, % 8,3 egin du behera. Gauza bera gertatu da soldaten kostuekin: % 8,4 murriztu dira EAEn eta % 9,4 Estatuan. 2.2.11 grafikoan ikus daitekeen bezala, azken hiruhileko honetako portaera azken joeraren kontrakoa da, eta lan-kostuen eta soldaten beherakada nabarmena erakusten du.

**2.2.11 GRAFIKOA. LAN-KOSTUAK ETA SOLDATA-KOSTUAK EAEN: HILEKO BATEZ BESTEKO KOSTUAREN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. DATUAK EHUNEKOTAN.**



Iturria: EIN. LKHHBI. Geuk egina

Bestalde, lan egindako ordu bakoitzeko kostuei erreparatzen badiegu, 2020ko bigarren hiruhileko honetan lan-denborak behera egin duenez, bilakaera hileko datuen kontrakoa izan da. Izan ere, urte arteko ratioak positiboak dira: orduko kostua 26,85 eurokoa da EAEn (+% 13,6, 2019ko II. hiruhilekoarekin alderatuta) eta soldata-kostua, berriz, 20,13 eurokoa (+% 11). Estatuan % 11,9 eta % 10,5 igo dira, hurrenez hurren.


**2.2.17 TAULA LAN-KOSTUEN BILAKAERA HIRU HILEAN BEHIN (HILEAN ETA LAN EGINDAKO ORDU BAKOITZEKO) EAE-N ETA ESTATUAN.**

	HILEKO KOSTUA (€)							
	LAN KOSTUA				ORDUKO KOSTUA (€)			
	LAN KOSTUA		SOLDATA KOSTUA		LAN KOSTUA		SOLDATA KOSTUA	
	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA
I-2017	2.859,4	2.481,8	2.095,3	1.829,1	21,81	18,32	15,98	13,50
II	2.920,4	2.584,6	2.163,7	1.942,0	23,38	19,67	17,32	14,78
III	2.951,6	2.454,3	2.200,1	1.809,1	26,77	20,11	19,96	14,83
IV	3.114,6	2.668,8	2.363,2	2.020,1	25,24	21,04	19,15	15,93
I-2018	2.905,4	2.497,9	2.128,3	1.844,2	22,90	19,01	16,77	14,04
II	2.967,8	2.602,0	2.186,7	1.951,8	22,79	19,29	16,79	14,47
III	3.059,6	2.499,9	2.279,5	1.842,6	27,88	20,62	20,77	15,20
IV	3.211,0	2.692,5	2.438,8	2.039,0	25,82	21,14	19,61	16,01
I-2019	2.955,8	2.550,3	2.161,2	1.876,2	22,90	19,01	16,74	13,99
II	3.051,3	2.664,6	2.256,2	1.992,2	24,51	20,43	18,13	15,27
III	3.101,6	2.553,6	2.298,4	1.877,0	29,42	21,11	21,80	15,52
IV	3.258,0	2.755,2	2.444,0	2.075,4	26,34	21,56	19,76	16,24
I-2020	3.017,5	2.570,3	2.199,7	1.889,8	24,38	19,93	17,77	14,65
II	2.858,8	2.442,9	2.065,9	1.804,1	27,85	22,86	20,13	16,88

*Iturria: EIN. LKHHBI.*

### 2.2.7. Laneko osasuna osasunaren sektorean

Lan-jardueraren beraren izaeraren ondorioz, eta batez ere pandemiaren lehen etapetan, egoera ustekabekoa izatearen ondorioz norbera babesteko baliabiderik egon ez denez, osasun-langileak dira COVID-19ak gehien erasandako



lan-taldea, osasunari dagokionez. Txosten hau egin den egunean eskuragarri dagoen informazio ofiziala oso mugatua bada ere, pandemiak langile horien osasunean izan duen eraginaren lehen hurbilketa bat egiteko zenbait zifra aurkezten ditugu.

Zaintza Epidemiologikoko Sare Nazionalak (RENAVE) eta Carlos III.a Osasun Institutuak COVID kasuen maiatzaren 10era arteko azterketa egin zuten maiatzean osasun-langileen artean (txostenaren data: 2020-05-29), funtsean Estatuko datuak hartuta; datu horiek, ordea, gure erkidegora estrapolatu daitezke kasu askotan.

Eraitza nagusien artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- SARS-COV-2aren alerta hasi zenetik maiatzaren 10era arte, RENAVEri COVID-19aren osasun-langileen 40.961 kasu jakinarazi zitzaizkion, hau da, Estatuan aitortutako kasu guztien % 24,1.

Hainbat iturriren arabera, antzeko intzidentzia dago EAEko osasun-langileen artean, eta, ondorioz, kalkulatu genuke Euskadin, maiatzera arte, 3.100 inguru izan direla kaltetutako osasun-profesionalak (kontuan hartuta maiatzaren 10ean COVIDaren 13.167 kasu deklaratu zirela guztira). Txosten ofizialaren datuetara itzuliz, osasun-langileen COVID-19aren kasuen % 76,5 emakumeak dira, eta adinaren mediana 46 urtekoa da; gizonen artean, berriz, zertxobait handiagoa da, 47 urtekoa.

- Osasun-langileen jakinarazitako kasuen % 10,5 ospitaleratu egin zituzten, % 16,2k pneumonia garatu zuten, % 1,1ek ZIUUn egon behar izan zuten eta % 0,1 hil egin ziren. Gizonen artean prebalentzia handiagoa dago pneumoniari, oinarrizko gaixotasuni eta ospitaleratzeari, ZIUUn egon behar izateari eta aireztapen mekanikoari dagokienez.
- Kasuen larritasun-eskalan —1) ospitaleratu gabeko kasuak 2) ospitaleratutako kasuak 3) ZIUUn egon direnen kasuak eta 4) hildakoen kasuak—, adinak gora egin ahala larritasun-maila ere igotzen dela (adin-mediana urteetan: 45, 52, 56 eta 59 hurrenez hurren), eta larritasunak gora egin ahala gizonezkoen ehunekoak gora egiten duela.


---

## 2.2.8. Langabeziaren aurreko lan-jarduera etetearen aurreko babesa

Lehenik eta behin, 2020ko abuztura arteko **langabezia-prestazioen** onuradunen kopuruari buruzko datua dugu, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren hileroko estatistika-buletina abiapuntutzat hartuta. Hilabete horretan, EAEn prestazio horiek jaso zituzten 92.494 pertsonetatik 69.533 (% 75,2) kotizaziopekoak dira, 20.719 (% 22,4) sorospenak dira eta gainerako % 2,4a Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren onuradunei dagokie.

2.2.13 eta 2.2.14 grafikoetan ikus daitekeen bezala, hazkunderik handienak 2020an, apirilean eta maiatzean izan dira, urte arteko tasak % 271,4 eta % 259,6 izan baitira, hurrenez hurren. Orain arteko prestazioen daturik altuena apirilekoa da (175.339), ordutik eta abuztuaz geroztik behera egin baitu. Abuztu horretan, esan bezala, 92.494 onuradun izan dira, uztailen baino % 6,4 gutxiago eta 2019ko abuztuan baino % 61,7 gehiago.


**2.2.13.GRAFIKOA. EAE-N LANGABEZIA-PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTENEN KOPURUA, HILABETEZ HILABETE (MILAKOTAN). 2012KO URTARRIELTIK 2020KO ABUZTURA**




Interesgarria da, bilakaera horren aurrean, ikustea zer gertatzen den prestazio horien estaldura-tasarekin. EAEk % 51ko estaldurarekin amaitu zuen 2019. urtea (abenduko datua), 2018ko datua baino 7,1 puntu handiagoa. Sexuaren arabera, gizonezkoen tasa % 59,4koa zen, eta emakumezkoena % 48,4koa. 2020ko abuztuan, prestazioen onuradunen kopurua (92.494) 2019ko abenduaren ia bikoitza izan zen (+% 80,4), eta estaldura-tasa ere nabarmen handitu zen, % 71,9raino (Estatuko batez bestekoa % 82,3 izan zen).

Sexuaren arabera, bilakaera positiboa izan da bietan: emakumeen artean, batez ere, gora egin du, eta, beraz, haien tasak (% 72,6) gizonena gainditzen du puntu eta erdian, nahiz eta tradizioz gizonezkoena handiagoa izan den (2019ko abenduko diferentziala 5,5 puntukoa zen, gizonezkoen alde). Estatuan, ordea, gizonezkoen estaldura-tasa % 89,2ra igo da, emakumezkoena 12 puntutan gaindituz.

**2.2.14 GRAFIKOA. EAE-N LANGABEZIA-PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTENEN HILABETEZ HILABETEKO BILAKAERA. 2019-**




2.2.15 GRAFIKOA. LANGABEZIA-PRESTAZIOAREN ESTALDURA-TASAK SEXUAREN ARABERA, EAE-N, ETA ESTATUKO BATEZ BESTEKOKA. ABENDUA ETA 2020KO ABUZTUA.



Iturria: SEPE. Geuk egina.

Langabezia-prestazioen zenbatekoari dagokionez, kontribuzio-prestazioaren batez besteko zenbatekoa 805,7 eurokoa izan zen abuztuan EAEn, 2019ko abenduan baino % 10,8 gutxiago. Estatuan, oro har, 792,3 eurokoa da zenbateko hori, eta aurten ere murriztu egin da, baina neurri txikiagoan: zehazki, % 7,5. Ondorioz, 2019. urtearen amaieran EAEko zenbatekoa Estatuko batez bestekoa baino % 5,4 handiagoa zen, eta 2020ko abuztuan, berriz, % 1,7 handiagoa izan da.

2.2.16 GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIO EZ-KONTRIBUTIBOAREN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA EAE-N ETA ESTATUKO BATEZ BESTEKOKA. ABENDUA ETA 2020KO ABUZTUA



Iturria: SEPE. Geuk egina

Bigarrenik, Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren buletinek aukera ematen dute jakiteko zenbat diren **ABEE-en ondoriozko prestazio kontributibo**en onuradunak apiriletik abuztura arte (hileko batez besteko datuak).

**2.2.18 TAULA ABEEE BIDEZKO KONTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAK EAE-N, MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. HILEKO BATEZ BESTEKO DATUAK. 2020KO APIRILETIK ABUZTURA**


	BI SEXUAK			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	ENPLEGU-ETETEA	LANGABEZIA PARTZIALA	GUZTIRA	ENPLEGU-ETETEA	LANGABEZIA PARTZIALA	GUZTIRA	ENPLEGU-ETETEA	LANGABEZIA PARTZIALA	GUZTIRA
APIRILA	97.189	13.334	110.523	46.920	7.590	54.510	50.269	5.744	56.013
MAIATZA	84.461	18.975	103.436	39.314	10.550	49.864	45.147	8.425	53.572
EKAINA	42.899	17.377	60.276	19.320	9.419	28.739	23.579	7.958	31.537
UZTAILA	21.735	13.425	35.160	10.125	6.947	17.072	11.610	6.478	18.088
ABUZTUA	17.460	9.911	27.371	8.160	5.135	13.295	9.300	4.776	14.076
APIRILA-ABUZTUA BATEZ BESTE	52.749	14.604	67.353	24.768	7.928	32.696	27.981	6.676	34.657

*Iturria: ENPLEGU ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.*

Apirilean ABEEE-en ondoriozko prestazio kontributiboen maximoa erregistratu zen Euskadin, 110.523 guztira, ia % 50ean banatuta gizon eta emakumeen artean; horietatik 97.189 (% 87,9) enplegua eteteagatiko prestazioei dagozkie, eta 13.334 (% 12,1) langabezia partzialagatiko prestazioei. Orduetik aurrera, zifra horiek murriztu egin dira bi sexuetan eta bi prestazio-motetan; beraz, abuztuan, informazioa dagoen azken hilabetean, prestazioen guztizkoa (27.371) hasierako zifra baino % 75,2 txikiagoa da.

Eta, prestazio horietarako hasierako alden hileroko kopuruari erreparatzen badiogu, zifrek honako bilakaera hau izan dute: apirilean 137.289 alta erregistratu ziren, eta abuztuan, berriz, 9.622. Are nabarmenagoa izan da egoera horretan dauden pertsonak ABEEEak babesteko mekanismoetatik pixkanaka irteteko prozesua.

**2.2.17 GRAFIKOA. ABEEE-EN ONDORIOZKO PRESTAZIO EZ-KONTRIBUTIBOAK EAE-N: HASIERAKO HILEKO ALTAK ESPEDIENTE-MOTAREN ARABERA. 2020.**



## 2.3. GIZARTE-ESPARRUA

Oso zaila da COVID-19ak gure gizartean eta, oro har, gure munduan izan dezakeen giza eta gizarte eragina zenbatestea; izan ere, ziurgabetasun zientifiko eta ekonomiko handiak ditugu aurrean, eta ziur aski ezin izango dira konpondu urte batzuk igaro arte. Epe laburrean, pertsonen osasunean duen eraginaren zifrak eta asistentzia-sisteman duen isla ezagutzen ditugu.

Pertsonen bizi-baldintzetan daukan islari dagokionez, datozen hilabete eta urteetako bilakaera ekonomikoak benetako eragina izango du gure ongizate-sisteman<sup>11</sup>.

### 2.3.1. Eragin demografiko/asistentziala

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren *“Koronabirusaren Egoera Epidemiologikoa Euskadin”* txostenaren arabera, martxotik irailaren 28ra bitarteko datuekin, ikus daiteke COVID-19ak 49.475 kasu eragin dituela gure erkidegoan pandemia hasi zenetik.

Horietatik, 27.104 emakumeak dira eta 22.338 gizonak: % 54,8 eta % 45,2, hurrenez hurren. Adinaren arabera, positiboak hiru herenetan banatzen dira, gutxi gorabehera: 40 urtetik beherakoak, 40 eta 60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak. Hala ere, heriotzak (1.898 inguru) 60 urtetik gorakoen artean baino ez dira gertatu; adin-tarte horietakoek, izan ere, heriotzen % 96,9 pilatu dituzte, eta horietatik % 71k 70 urte baino gehiago zituzten.

2.3.1 TAULA COVID-19AREN ERAGINA EAEn. POSITIBOAK SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2020KO MARTXOTIK IRAILERA.				
	KASU POSITIBOAK			% BERTIKALA
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	
0 – 9	2.196	1.085	1.111	4,44
10 – 19	3.213	1.547	1.666	6,49
20 – 29	6.350	3.382	2.964	12,83
30 - 39	6.636	3.714	2.916	13,41
40 – 49	7.993	4.419	3.572	16,16
50 – 59	8.102	4.491	3.607	16,38
60 – 69	5.133	2.564	2.560	10,37
70 – 79	3.642	1.753	1.889	7,36
80 – 89	3.772	2.360	1.411	7,62
90 ETA GEHIAGO	2.009	1.567	444	4,06
EZ DA JASO	429	222	200	0,87
<b>GUZTIRA</b>	<b>49.475</b>	<b>27.104</b>	<b>22.338</b>	<b>100,00</b>


Iturria: EUSKO JAURLARITZA. OSASUN SAILA

Adin-talde bakoitzeko 100.000 biztanleko intzidentzia kontuan hartzen badugu (2.3.1 grafikoa), intzidentzia handia da 20-29 urteko adin-taldearentzat (100.000 biztanleko 3.000 baino gehiago) eta 80 urtetik gorakoentzat, batez ere 90 urtetik gorakoentzat. Sexuaren arabera, oro har, intzidentzia handiagoa ikusten da emakumeengan.

Halere, heriotzen banaketa kontuan hartzen badugu, ugariagoak izan dira gizonen artean; izan ere, gizonen hilgarritasun-tasak handiagoak dira adin-talde guztietan. Hilgarritasunaren batez besteko indizea kasu positiboan % 3,8 da: % 3,5 emakumeentzat eta % 4,2 gizonentzat. Adinaren arabera, ratioak handitu egiten dira adinarekin, hilgarritasuna % 20 baino handiagoa baita 80 urtetik aurrera (heriotzak % 27,5 arte izan dira zortzi urteko gizonen artean) eta % 28 90 eta gehiagoko pertsonen artean (% 38,7 gizonen artean).

<sup>11</sup> Ildo horretan, interesgarriak dira BBVA Researchen txostenak; izan ere, ELGAren eta Munduko Bankuaren datuetan oinarrituta, nabarmendu dute COVID-19aren ondoriozko konfinamenduek eta ondorengo krisiak eragin dutela norbanako askok lan egiteari uztea edo beren lanorduak nabarmen murriztea. (Ikus BBVA Research (2020): Vulnerabilidad financiera de los hogares ante la COVID-19: una perspectiva global. 2020ko irailaren 1a).

**2.3.1 GRAFIKOA. COVID-19AREN KASU POSITIBOAK EAE-N: 100.000 BIZTANLEKO INTZIDENTZIA-TASAK, ADIN-TARTEEN ETA SEXUAREN ARABERA. 2020KO MARTXOTIK IRAILERA.**



Iturria: EUSKO JAURLARITZAKKO OSASUN SAILAREN datuekin egina

Asistentzia-datuei dagokienez, irailaren 28ra arte, COVID-19aren ondorioz EAEn 12.100 ospitaleratze orokor izan dira guztira, eta horietatik 993 ZIUetan. Ospitaleetan izandako heriotzak 1.267 dira. Jarraian, pandemiaren osasun-eraginaren aldagai nagusien bilakaera irudikatzen da hiru grafikoren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak abiapuntutzat hartuta.


**2.3.2 TAULA COVID-19AREN ERAGINA EAE-N. HERIOTZAK SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. HILKORTASUN-PORTZENTAJEA ADIN-TALDEAREN ARABERA. 2020KO MARTXOTIK IRAILERA.**

	HERIOTZAK			HILKORTASUN-INDIZEA (%)		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
0-9	1	0	1	0,0	0,0	0,1
10-19	0	0	0	0,0	0,0	0,0
20-29	2	1	1	0,0	0,0	0,0
30-39	6	2	4	0,1	0,1	0,1
40-49	18	5	13	0,2	0,1	0,4
50-59	32	16	16	0,4	0,4	0,4
60-69	131	32	99	2,6	1,2	3,9
70-79	348	104	244	9,6	5,9	12,9
80-89	780	392	388	20,7	16,6	27,5
90 ETA GEHIAGO	567	396	171	28,2	25,3	38,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.898</b>	<b>957</b>	<b>941</b>	<b>3,8</b>	<b>3,5</b>	<b>4,2</b>

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. OSASUN SAILA

Lehenik eta behin, 2.3.2 grafikoak 14 eguneko intzidentzia metatuaren bilakaera erakusten du, lurraldeka: Azken 14 egunetan lurraldeka metatutako positiboak dira (PCR test bidez), 100.000 biztanleko. Egun bakoitzeko datua aurreko 14 egunetako kasuen batez bestekoari dagokio, gorabehera puntualen eragina arintzeko (adibidez, asteburuko efektua). Argi eta garbi ikusten da martxoan eta apirilean intzidentzia handiena Araban gertatzen zela, eta neurri txikiagoan Bizkaian; Gipuzkoan, azkenik pandemiak askoz ere eragin txikiagoa izan du. Abuztuko eta iraileko positiboaren gorakada berriak, aldiz, bilakaera askoz ere antzekoagoak erakusten ditu hiru lurraldeetan.


### 2.3.2 GRAFIKOA KORONABIRUSA DUTEN KASU POSITIBOEN (PCR) BILAKAERA 100.000 BIZTANLEKO, EAE-N.



Iturria.- OSAKIDETZA

Bigarrenik, 2.3.3 grafikoak RO ugalketa-indizearen bilakaera erakusten du, eta lehen kasu bakoitzak sortzen dituen bigarren mailako kasuen kopurua adierazten du (kutsatzeak). Adierazle horrek aukera ematen du jakiteko zenbat pertsona kutsa ditzakeen COVID-19a duen paziente positibo batek, eta hedapen ertaineko arriskua (hori kolorekoa) aurreikusten da 1,5era arteko RO datuetarako, eta kontrolik gabeko hedapeneko arrisku handia (gorri kolorekoa) 1,5etik gorako zifretarako. Grafikoak hedapen-arrisku handiko zifrak erakusten ditu martxoan, aldi labur bat ekainean eta beste bat uztailean. Orditik hona murriztu egin da, eta nahiko egonkor mantendu da (1 inguruko datuak, txosten hau egin den egunean).

### 2.3.3 GRAFIKOA KORONABIRUSAREN RO ERREPRODUKZIO-INDIZEAREN BILAKAERA EAE-N 2020KO MARTXOA-IRAILA



Iturria.- OSAKIDETZA

Azkenik, 2.3.4 grafikoak aurkezten dugu, PCR test positiboen, ospitaleratzeen eta heriotzen zifren eguneroko bilakaerarekin. Bertan, argi eta garbi ikusten dira pandemiaren bi tontor (edo olatu): martxotik maiatzera eta uztailean

erdialdetik aurrera. Bigarren agerraldia desberdina da; izan ere, ospitaleratzeak eta heriotzak gutxiago izanik, kasu positiboetan neurtutako intzidentzia askoz ere handiagoa da; irailtik aurrera, itxuraz, beherazko joera dago, eta zaindu egin beharko da joera hori sendoa dela.

#### 2.3.4 GRAFIKOA KORONABIRUSA EAE-N: ALDAGAI NAGUSIEN EGUNEZ EGUNEKO BILAKAERA. 2020KO MARTXOA-IRAILA




Iturria.- OSAKIDETZA

Bestalde, Carlos III.a Osasun Institutuak (ISCIII), Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren mendekoak, Espainiako **Eguneroko Hilkortasunaren Monitorizazio Sistema (MoMo)** kudeatzen du, Justizia Ministerioaren 3.929 erregistro zibil informatizatutatik egunero lortzen den kausa guztien ondoriozko hilkortasunari buruzko informazioa erabiliz, Espainiako biztanleriaren % 93ri dagokiona. Sistema horretatik abiatuta, gehiegizko hilkortasunaren kalkulua egiten du, espero zenarekin alderatuta, azken 10 urteetan neurtutako hilkortasunean oinarritutako batez besteko historikoen eredu murriztaileak oinarri hartuta. Horrek Estatuan COVID-19ak eragindako heriotzei buruzko hurbilketa bat egiten laguntzen digu.

#### 2.3.5 GRAFIKOA EAE-N KAUSA GUZTIEN ONDORIOZ NEURTU DEN ETA ESPERO ZEN HILKORTASUNAREN BILAKAERA, 2019KO ABENDUTIK 2020KO IRAILERA BITARTEAN.

Figura 17. Mortalidad por todas las causas observada y esperada. País Vasco, diciembre 2019 hasta 21 de septiembre de 2020.




Iturria: Carlos III.a Osasun Institutua

“Gehiegizko hilkortasunaren zaintza” izeneko txostenean, 2020ko irailaren 21era arteko datuekin, EAEn 2020an gehiegizko hilkortasuneko bi aldi hautematen ditu, eta horien analisia interesgarria da pandemian hildako pertsonen profilari buruzko informazio garrantzitsua ematen du: gorune oso nabarmena ageri da lehen egunetan, martxoaren 15etik apirilaren 23ra bitartean, eta beste bat arinagoa irailaren 10etik 20ra bitartean. Kalkuluen arabera, gehiegizko heriotzak 1.449 eta 160 izan dira, hurrenez hurren, eta gehiegizko heriotzen tasak espero zirenak baino % 59,5 eta % 27,1 handiagoak izan dira.

2.3.3 TAULA GEHIEGIZKO HILKORTASUN-ALDIAK EAE-N: ZENBATETSITAKO ETA NEURTUTAKO HERIOTZAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. 2020.					
		NEURTUTAKO HERIOTZAK	ZENBATETSITAKO HERIOTZAK	NEURRIZ GAINETIK	NEURRIZ GAINETIK (%)
2020KO 03/15ETIK 04/23RA	GUZTIRA	3.885	2.436	1.449	59,5
	GIZONAK	1.916	1.176	740	62,9
	EMAKUMEA K	1.939	1.227	712	58,0
	< 65 URTE	373	279	94	33,7
	65-74 URTE	467	282	184	65,3
	> 74 URTE	3.045	1.856	1.189	64,1
2020KO 09/10ETIK 09/20RA	GUZTIRA	747	588	160	27,1
	GIZONAK	389	286	102	35,8
	EMAKUMEA K	356	304	52	17,2
	< 65 URTE	74	76	0	0,0
	65-74 URTE	97	77	20	26,0
	> 74 URTE	576	438	138	31,7

Iturria: CARLOS III.A OSASUN INSTITUTUA. MOMO.

Sexuaren arabera, bi aldietan handiagoa da gehiegizko kopurua gizonen kasuan, eta, gainera, adina igo ahala areagotu egiten da kopurua, nahiz eta alde batzuk ikusten diren bi aldi horietako heriotzen profileen (2.3.6. grafikoa): Iraileko agerraldian, emakumeen gehiegizko hilkortasuna proportzioan askoz txikiagoa da gizonena baino (bi sexuen arteko aldea 27,1 puntukoa zen martxo-apirilean, eta 40,8 puntukoa irailean). Adinaren arabera, banaketari dagokionez, 65 urtetik aurrera soilik hautematen da gehiegizko hilkortasuna.




Bestalde, EAeko hilkortasunaren urteko bilakaeraren jarraipena egiteko Memoria Sozioekonomikoan aztertu ohi den iturriari erreparatzen badiogu, EUSTATen 2020ko lehen hiruhilekorako **Heriotzen Estatistikari buruzko informazioa** erabil dezakegu. Iturri horren arabera, aldi horretan 6.475 heriotza izan ziren EAEn, 2019ko hiruhileko berean baino % 7,7 gehiago. Hilabeteka, martxoan 2.516 pertsona hil ziren, 2019ko martxoan baino % 37,5 gehiago (2.3.7 grafikoa).

EUSTATEk heriotzen arrazoiaren arabera bilakaera aztertu du, eta kalkulatu du COVID-19ak eragindako gehiegizko heriotzak 500 izan direla, guztiak ere martxoan. Horietatik, 427 COVID-19a berretsita kasutzat katalogatzen dira, eta 73 COVID-19a izateko probabilitatea duten kasutzat; gainera, beste 17 heriotzatan, COVID-19a ziurtatutako heriotza-kausen artean egon zen, baina funtsezkoa izan gabe.

Lurraldeka, kopuru handiena Bizkaiari dagokio (240 kasu), eta ondoren, Arabari (180) eta Gipuzkoari (80). Hiriburuei dagokienez, Gasteiz 151 heriotza izan ditu COVID-19aren ondorioz, eta ondoren Bilbok 77 eta Donostiak 17 izan dituzte. Beste udalerrri aipagarri bat Basauri da, martxoan 40 pertsona hil baitzirien COVID-19aren ondorioz.

2.3.4 TAULA COVID-19AREN ONDORIOZKO HERIOTZAK EAE-N, LURRALDEAREN ETA 40.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIEN ARABERA. 2020KO MARTXOA.			
	GUZTIRA	COVID-19a BERRETSI DA	COVID-19a IZATEKO PROBABILITATEA
<b>EAE, GUZTIRA</b>	<b>500</b>	<b>427</b>	<b>73</b>
ARABA	180	165	15
BIZKAIA	240	196	44
GIPUZKOA	80	66	14
> 40.000 BIZT.-KO UDALERRIAK			
BARAKALDO	18	12	6
BASAURI	40	34	6
BILBO	77	64	13
DONOSTIA	17	11	6
GETXO	14	11	3
IRUN	6	6	0
PORTUGALETE	2	2	0
ERRETERIA	5	4	1
SANTURTZI	9	8	1
GASTEIZ	151	143	8

*Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.*



Gizonen heriotzen kopurua (302) emakumeena (198) baino % 50 handiagoa izan zen; aldiz, adinaren arabera, talde kaltetuenak 80-89 urtekoak (219) izan ziren, eta horien atzetik 70-79 (112), 90-99 (107) eta 60-69 (41); gainerakoetan, presentzia urria edo nulua dago. Heriotza gehienak EAeko ospitaleetan gertatu ziren (% 79,8), ondoren egoitza soziosanitarioetan (% 10,6), etxeetan (% 7,2) eta beste leku batzuetan (% 2,4) gertatutakoak datoz.

Azkenik, EUSTATEk nabarmendu du garrantzitsua dela kontuan hartzea 2020ko martxoan gertatu heriotzen igoera, 2019ko hilabete berarekin alderatuta (686 heriotza gehiago), ez datorrela guztiz bat COVID-19aren ondoriozko heriotzekin, 500 baitira.

### 2.3.2. Mendekotasunaren Arretarako Sistemak (SAAD) izandako eragina

IMSERSOk bere kalkulu propioak egiten ditu **Mendekotasunaren Arretarako Sistemak (SAAD)** artatutako kolektiboan COVID-19ak izan duen eragin demografikoari buruz, bai orokorrean, bai prestazioei eta zerbitzuei (egoitzetakoak barne) dagokienez, artatzen duen kolektiboarentzat espero den gehiegizko hilkortasunaren kalkularen bitartez, Carlos III.a Osasun Institutuak biztanleria osoarentzat dituen zifrekin ikusi den bezala.

2020ko martxotik uztailera bitartean, estatu osoko gehiegizko heriotzei begiratuta, mendekotasuna zuten 29.687 pertsona hil direla kalkulatu da (mendekotasun-balorazioa eginda dutenak eta sistemako prestazioren edo zerbitzuren baten onuradunak), hau da, kolektiboaren % 2,65. Pertsona horien artean (horien % 80k baino gehiagok 80 urte baino gehiago zituen), hilkortasunaren eragin bereziki handia ikusten da egoitzetan arreta ematen zaien artean, gehiegizko 18.911 heriotza izan baitira, egoiliarren % 7,59.

EAEko datuei erreparatuta, SAADek jo du martxotik uztailera bitartean, mendekotasuna zuten 4.534 pertsona hil direla, espero zena baino 1.088 gehiago; beraz, gehiegizko hilkortasuna % 31,1ekoa izan da (% 44,8 Estatu osoan). Apirilko gehiegizko heriotzak, berriz, aztertutako gainerako hilabeteetan baino askoz izan dira (% 106,7) (2.3.5 taula).

Gainera, hildako 1.088 pertsonetatik, 627 (% 57,6) egoitzetan bizi ziren (% 55,6ko gehiegizko hilkortasuna gertatu da haietan) eta 461ek (% 42,4) mendekotasun-sistemaren prestazioren bat edo batzuk jasotzen zituzten beren etxeetan; beraz, edo etxeetan edo ospitaleetan hil ziren (kolektibo horrek hilkortasun-tasa askoz txikiagoa du, % 19,7koa).

Txosten hau egiten ari garen honetan, ez dago datu ofizialik COVID-19ak gure erkidegoko adinekoen egoitzetan, foru-aldundien mendekoetan, izandako eraginari buruz; jakina da, halere, eragin hori handia izan dela kasu positiboetan, baina bereziki heriotzetan, kolektibo horren kalteberatasun berezia dela eta.

IMSERSOren informazio hori ikusita, azaldutakoa baino banakapen handiagorik ez badugu ere, ondoriozta daiteke egoitzetan bizi

ziren eta gehiegizko hilkortasuneko datuetan —ziur aski COVID-19aren ondorioz— dauden mendeko 627 pertsonetatik ia guztiak adinekoak zirela (gogora dezagun 80 urtetik gorako kolektiboaren % 80 baino gehiagokoa dela datu orokorra). Hala ere, kopuru horretan desgaitasunagatik egoitzetan bizi ziren pertsona gazteagoak ere sar daitezke, adibidez.

2.3.5 TAULA SAAD-EN ONURADUNEN HERIOTZAK EUSKADIN, 2020KO MARTXOTIK UZTAILERA BITARTEAN. GEHIEGIZKO HILKORTASUNAREN TASAK, ESPERO ZEN HILKORTASUN-TASAREN ALDEAN				
	NEURTUTAKO HERIOTZAK	ESPERO ZIREN HERIOTZAK	GEHIEGIZ KO HERIOTZAK	GEHIEGIZ KO HERIOTZAK (%)
MARTXOA	935	762	178	23,4
APIRILA	1.517	734	783	106,7
MAIATZA	761	708	55	7,7
EKAINA	673	622	55	8,9
UZTAILA	648	674	17	2,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.534</b>	<b>3.472</b>	<b>1.088</b>	<b>31,3</b>

*Iturria: IMSERSO*

### 2.3.3. Gizarte prestazioa: diru-sarrerak bermatzeko errenta

Agerikoa da COVID-19ak bizi-baldintzetan duen eragin negatiboak nabarmenkiago ukituko duela gure erkidegoko gizarte-babeseko sistema; hain zuzen ere, pobrezia- eta bazterketa-egoerak hain modu eraginkorrean murriztea lortu duen babes-sistema. Hala ere, denbora bat igaro beharko da hori datu ebaluagarri bihurtzeko. Pandemiak EAEn izan duen eraginari buruzko lehen txosten hau egin den honetan, ia ez dago diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta haren osagarrien bidez diru-sarrerak bermatzeko sistemaren familia onuradunen kopururik, eta horietan ez da aldaketa aipagarririk antzeman.

2019. urtearen amaieran, Euskadin 52.455 unitate ziren Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) eta haren osagarrien hartzaileak, 2018ko abenduan baino % 5,3 gutxiago, eta zenbateko horrek aurreko bost urteetan jarraian egina zuen behera, urte arteko datuetan.


2020an izandako bilakaera dela-eta irailera arteko informazioa dago

eskuragarri, eta igarotako hilabeteetan ez da joera argirik ikusten. Martxo-maiatz aldiaren hileko igoera arinak hauteman dira, eta ordutik aurrera beherakada arinak. Eskuragarri dagoen azken datua, irailekoa, kontuan hartuta, hilabete horretan DSBEa jasotzen duten 53.933 familia titular zenbatu dira, aurreko hilabetearekin alderatuta hazkunderik egon gabe: 2019ko abenduan baino % 2,8 gehiago dira. Iazko hilabete berarekin alderatuta, bilakaera positiboa izan da, % 2,6koa. Bi tasetan portaera txarragoak (igoera handiagoak) ikusten dira Araban eta Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, aldakuntzak txikiagoak dira.

**2.3.6 TAULA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: TITULAR HARTZAILEEN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA.**

	ABENDUA				IRAILA 2020	19KO ABE./20KO IRA. (%)	19KO IRA./20KO IRA. (%)
	2016	2017	2018	2019			
ARABA	9.575	8.892	8.224	8.028	8.500	5,9	6,4
GIPUZKOA	15.039	14.128	12.992	12.361	13.080	5,8	5,4
BIZKAIA	39.183	37.385	34.164	32.066	32.353	0,9	0,6
<b>EAE</b>	<b>63.797</b>	<b>60.405</b>	<b>55.380</b>	<b>52.455</b>	<b>53.933</b>	<b>2,8</b>	<b>2,6</b>

*Iturria: LANBIDE.*



Familia hartzaileen profila ez da aldatu aurreko urteekin alderatuta: 2020ko abuztuan % 58,3 emakumeak ziren (% 58,4 2019ko abenduan), % 48,6 40 eta 59 urte artekoak ziren (% 48 abenduan) eta % 6,8 30 urtetik beherakoak (% 15 abenduan).

Titular horiei aplikatu dakizkiekeen kontzeptuei dagokienez, 2020ko iraileko zifrek erakusten dute zertxobait jaitsi dela DSBEa soldata-errenten osagarri gisa jasotzen dutenen pisua: % 18,2 dira, aurreko

**2.3.7 TAULA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: TITULARREN BANAKETAREN BILAKAERA, KONTZPTU APLIKAGARRIEN ARABERA. EHUNEKOA, GUZTIAREN GAINEAN. 2020KO ABENDUA ETA IRAILA**

	MODALITATEA		PENTSIODUNA		OSAGARRIAK		GUZTI-RA
	DIRU-SARRERAK OSATZEN DITU LANA	OINA-RRIZKOA	EZ	BAI	GURASO BAKARREKOA	EGOP	
2016	19,7	80,3	75,2	24,8	15,3	46,2	100,0
2017	19,9	80,1	74,3	25,7	15,5	46,2	100,0
2018	19,9	80,1	74,3	25,7	16,0	46,7	100,0
2019	19,9	80,1	74,4	25,6	16,7	46,7	100,0
<b>IRAILA 2020</b>	<b>18,2</b>	<b>81,8</b>	<b>75,9</b>	<b>24,1</b>	<b>16,8</b>	<b>46,8</b>	<b>100,0</b>
17/18 aldea	0,0	0,0	0,0	0,0	0,5	0,5	-
18/19 aldakuntza	0,0	0,0	0,1	-0,1	0,1	0,0	-
19ko abe./20ko ira. aldakuntza	-1,7	1,7	1,5	-1,5	0,1	0,1	-

*Iturria: EUSKO JAURLARITZA. LANBIDEren datuekin egindakoa.*

hitzaldietan baino 1,7 puntu gutxiago; izan ere, datu hori oso egonkorra izan da orain arte.

Halaber, pentsioak osatzen dituztenen kopuruak behera egin du, % 24,1, 2019ko abenduan baino 1,5 puntu gutxiago. Gurasobakarra izategatiko osagarrietan eta etxebizitzarako prestazio osagarrian ez da alde aipagarririk ikusten.

Azkenik, Kontseilu honen interesekoa izango da, datu ofizialak eskuratzen diren unean, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerarako prestazio berriaren jarraipena egitea. Prestazio hori, izan ere, estatu-mailakoa izaten hasi da; EAEko pertsona batzuentzat, ordea, diru-sarrerak bermatzeko errentaren osagarria izango da. Txosten honen itxiera-datan ez dago informaziorik gure erkidegoan duen ezarpenari buruz.

---

#### 2.3.4. Genero-arrakalak pandemiaren testuinguruan

COVID-19ak gure erkidegoan izango duen lehen inpaktura hurbiltzeko txosten honen ondorioetarako, **genero-arrakalean duen eraginaren** azterketa demografia- eta lan-dimentsioetara mugatzen da (atal horietan sexuaren aldagaia bereizita dauden adierazle guztietan sartzen da), zeren eta ez baitago informazio garrantzitsurik intereseko beste gai batzuetarako, hala nola errentetarako, hezkuntzarako edo erantzunkidetasunerako, horiek EAEko 2018ko Memoria Sozioekonomikoan aztertu ziren moduan.

Txosten honen "*genero-balantze*" gisa esan liteke, lehenik eta behin, emakumeek, epidemiaren ondorioz beren osasuna gizonezkoek baino gehiago kaltetu arren, hilkortasun txikiagoa dutela, osasun-egoerarako eta hilkortasun-kausetarako oro har gertatzen den bezala.

Lan-merkatuan, jarduera-tasak antzera jaitsi dira bi sexuetan, eta, beraz, bien arteko aldea ez da ia aldatu azken urtean (2019ko hirugarren hiruhilekoan 9,4 puntu izatetik 2020an 9,2 puntu izatera igaro da). Okupazioak, bestalde, beherakada handiagoa izan du gizonen artean (hala erakusten dute bai BJAk bai Gizarte Segurantzako afiliazioak) gure egitura ekonomikoaren ondorioz, baina langabezia-tasek arrakala mantendu dute hirugarren hiruhilekoan.

Gizarte-babesari dagokionez, ez da aldaketa aipagarririk antzeman langabeziaren estalduraren arloko arrakalean, ABEEE prestazioetan edo DSBEan. Nolanahi ere, emakumeek eta gizonek mekanismo horietara duten sarbide-maila berdintzeko joera dagoela ikusten da, eta horren jarraipena egin beharko da, ondorio arrazoituak atera ahal izateko eta egoeraren araberakoa baino ez izateko aukera baztertzeko.

# 3. EPE MOTZEKO ERANTZUNAK

## PANDEMIAREN SHOCKAREN AURREAN: LARRIALDIKO NEURRIAK ETA TRESNAK

### 3.1. EUROPAKO ERAKUNDEEK HARTUTAKO LARRIALDI-NEURRIAK ETA -TRESNAK

COVID-19a azkar hedatu zen gure lurraldean, eta, horren ondorioz, Euskadik martxoaren 13an deklaratu zuen osasun-larrialdia, eta, hurrengo egunean, Estatuko gobernuak alarma-egoera deklaratu zuen, osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko ezohiko eta aldi baterako neurriak hartzeko.

Aurreko kapituluak agerian utzi ditu pandemiak eragindako krisiak arlo ekonomikoan eta sozialean uzten dituen ondorioak. Orain, sortutako arazo sozioekonomikoei aurre egiteko gure erakundeek premiaz eman dituzten erantzunetan jarri behar dugu arreta.

COVID-19aren krisiaren eragina iraunkorragoa eta sakonagoa izan ez dadin Euskadin ondorioak izan dituzten larrialdi-tresnak eta -neurriak aztertzeo garaian, Eusko Jaurlaritzaren eta gure foru-erakundeen jarduketak aztertzeaz gain, gure egoera sozioekonomikoan eragin zuzena duten eta estatuan nahiz nazioz gaindiko Europan abian jarritako ekintzak aztertu behar ditugu. Gure inguruko erakunde guztiek beren eskumenen eta baliabideen arabera jardun dute gastu-politika hedakorrak inplementatzeko, gizarte- eta ekonomia-ehunari laguntzeko eta eragile ekonomikoen eta familia ahulen errentei eusteko, COVID-19ak eragindako eskaintza- eta eskaera-disrupzioei eta pandemiari eusteko hartutako neurriei aurre egiteko eginahalean.

Hala, Estatuak ahalegin fiskal handia egin du enpresei likidezia emateko, enpleguari eusteko eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak emateko, bai eta, besteak beste, lan-arloan, arlo zibilean eta merkataritza-arloan ere, pandemiak lan-, ekonomia- eta kalteberatasun sozialeko egoeran jarri dituen herritarrak eta etxeak babesteko neurriak hartzeko. Eusko Jaurlaritzaren talka-plana Estatuak hartutako neurrien osagarria da, eta urgentziazko neurri sanitario, sozial eta ekonomikoak antolatzen ditu estaldura handitua eta gure errealitate sozioekonomikoaren beharretara espezifikoki egokitua emateko; horretarako, 1.000 milioi eurotik gorako baliabideak bideratu ditu.

Europako nazioz gaindiko mailaren zeregina hainbat tresnaren mobilizazioan oinarritu da, estatu kideek beharrezko neurriak har ditzaten laguntzeko eta errazteko, bai estatu kideei gastu-murrizketak eta eragile ekonomikoentzako laguntzen arloko murrizketak ezartzen dizkieten Europako arauak malgutuz, bai finantza-baliabide gehigarriak emanez. Atal honetan, bereziki aipatu behar da moneta-politikak pandemiaren inpaktu negatiboei eusteko duen zeregina. Europar Batasunean, Europako Banku Zentralari dagokio hori gauzatzea, eta hainbat neurri ezarri ditu estatu kideen zorpetze-gaitasuna bermatzeko merkatuen oldarrarekiko kalteberagoak diren estatu kideentzat arrazoizkoak diren kostu-baldintzetan, bai eta kredituak ekonomia errearekiko duen arintasuna bermatzeko ere.


### 3.1.1. Europako Banku Zentralaren esku-hartzea


Europako Banku Zentralaren erantzunaren azkartasunak, malgutasunak eta zabaltasunak bultzatuta, erakunde horrek hartutako neurriek finantza-merkatuak egonkortzea lortu dute, martxoaren hasieran aldakortasunean murgilduta, Europar zehar pandemia azkar barreiatzearen ondorioz.

Martxoaren 12an egindako bilkuran, Europako Banku Zentralak (EBZ) moneta-politikaren hedapen-neurrien multzo bat onetsi du finantza-merkatuetako tentsioak egonkortzeko eta ekonomia errealerako kreditu-hornidura bermatzeko. Zehazki, Europako Banku Zentralak konpromisoa hartu zuen, egun dagoen Aktiboak Erosteko Programaren barruan (APP), 2020. urtearen amaierara arte 120.000 milioi euro gehiagoko erosketak egiteko, epe luzeagoko finantzaketa-eragiketak egiteko (LTRO), bankuei 2020ko uztaiera arte berehalako likidezia eta baldintza onuragarrietan eskaintzeko, eta 2020ko ekainetik 2021eko ekainera TLTRO-III eragiketa guztiei baldintza onuragarriagoak aplikatzeko, krisiak gehien kalte-tutako eragileei, enpresa txiki eta ertainei, banku-kreditua errazteari begira.

Hartutako lehen neurri horiek merkatuak konbentzitu ez zituzten arren, eta burtsa- eta finantza-merkatuetan tentsio-egun berriak izan ziren arren, EBZk bizkortasunez eta irmotasunez erreakzionatu zuen moneta-politikaren transmisio-mekanismoa bermatzeko eta merkatuan zatiketa saihesteko. Hala, astebete geroago, Gobernu Kontseiluaren martxoaren 18ko bilkuran, Aktiboak Erosteko Programa, Larrialdi Pandemikoko Erosketa Programa edo Pandemic Emergency Purchase Programme (PEPP) baino anbizio handiagoko neurri bat iragarri zuen.

Sektore publiko eta pribatuko baloreak erosteko aldi baterako programa bat da, 750.000 milioi euroko hasierako zuzkidurarekin, zeina ekainaren 4an beste 600.000 milioi euroekin handitu baitzen, gutxienez 2021era arte 1.350.000 milioi eurora iristeko. Programa malgua da, eta gorabeheren arabera egiten ditu erosketak, jurisdikzio-mugarik gabe eta aktibo motarik gabe. Ekonomia bakoitzak EBZren kapitalean duen pisuaren mugen arabera EBZren programetarako erosketa-muga tradizionalak, *key-kapitala* deitzen dena, praktikan ezabatuta geratzen da, epe laburrean behintzat, eta epe luzeenean orekatu ahal izango da.





EBZren neurriek merkatuak egonkortu dituzte epe motzera, eta zor subiranoaren diferentzialak murriztu, batez ere ekainaren 4ko iragarpenaren ondoren, eta epe ertaineko muga argitzen dute; izan ere, bermatzen da shock pandemikoak beren ekonomietan dituen ondorioak arintzeko gobernuak halaberrez egiten ari diren zerga-politika indartsuen ondorioz sortuko den zor-jaulkipenaren gehikuntza erosi egingo dela.

Europako Banku Zentralak eskainitako likidezia ere aprobetxatzen ari dira bankuak, eta etxeei eta enpresei kreditua ematen ari dira, ekonomiako eragile ahulenei maileguak ematea bermatzeko gobernuak abiarazitako abalen programei esker.

### 3.1.2. Aurrekontu- eta zerga-esparrua eta estatuko laguntzak malgutzeko ekimenak

Pandemiaren ondorio sozioekonomikoak arintzeak ahalegin handia eskatzen die estatu kideei aurrekontuetan; estatu horiek, hala ere, bi muga garrantzitsu topatzen dituzte Erkidegoko araudi-esparruan: Egonkortasunerako eta Hazkunderako Ituna eta estatuko laguntzen araubidea. Pandemiaren ondorio sozioekonomiko oso txarrak arintzeko orduan, Europako Batzordeak bere esku dituen politika ekonomikoko tresna guztiak estatu kideei laguntze aldera erabiltzeko konpromisoari erantzunez, Europako Batzordeak malgutasun handiena erabili du estatu kideen politika fiskalak traba horietatik guztietatik horietatik askatzeko, horrela, etxeei, langileei eta enpresei laguntza finantzarioa eman ahal izan diezaieten.

#### **Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula aktibatzea.**

Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren helburua da aurrekontu-politikak arazoak sor ditzaketen norabideetan bideratzea saihestea, bai eta gehiegizko aurrekontu-defizitak edo zor publikoaren karga handia zuzentzea ere. Europako Batzordeak, martxoaren 20an, Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula orokorra aktibatzea proposatu zion Kontseiluari, horretarako ezarritako prozeduraren barruan, betiere krisiaren larritasuna eta Europako herritarrak eta enpresak krisiaren ondorioetatik babesteko egin beharreko aurrekontu-ahaleginaren tamaina kontuan hartuta. Martxoaren 23ko bilkuran, Batzordeak egindako egoeraren ebaluazioarekin eta babes-klausula aldi baterako aktibatzearekin ados egon zen Kontseilua; horrek berekin dakar beharrezko malgutasuna bermatuko dela osasun-sistemak indartzeko eta estatu kideetako ekonomiak babesteko behar diren neurriak hartzeko. Itunaren zorraren eta defizitaren mugen etetea 2022ra arte luzatuko da, gutxienez.

## **COVID-19aren testuinguruan ekonomia babestera bideratutako estatu-laguntzako neurriei buruzko aldi baterako esparrua**

COVID-19aren agerraldiaren ondorioz sortutako salbuespenezko inguruabarren testuinguruan, eta sektore eta estatu kide guztietako enpresetan eragin handia izanik, Batzordeak, martxoaren 19an, aldi baterako esparru bat onartu zuen, estatu kideei estatuko laguntzei buruzko arauetan aurreikusitako malgutasuna osoki erabiltzeko aukera ematen diena, ekonomia pandemiaren testuinguruan babesteko eta enpresei laguntzak emateko; hain zuzen ere, baldintza ekonomiko normaletan lehiari buruzko Europako arauak baimendurik egongo ez ziren neurriak. Tresna horretan, Europako Batzordeak beharrezkotzat jotzen du estatu kideek neurriak hartu ahal izatea kreditu-erakundeak eta beste finantza-bitartekari batzuk sustatzeko ekonomiarako kreditu-fluxua mantentzeko eta enpresei finantza-laguntza publikoa eman diezaieten, bereziki ETEei, krisiak enpresei eragindako kalteei aurre egiteko. Ondorio horietarako, aldi baterako esparruak bost laguntza-mota ezartzen ditu, estatu kideek eman ditzaketenenak, bai eta haien baldintzak ere:

- Zuzeneko dirulaguntzak, zerga-abantaila selektiboak eta likidezia-premia larrietarako aurrerakinak.
- Bankuek enpresei emandako maileguetarako estatu-bermeak, enpresei kapital zirkulatzaileerako eta inbertsiorako maileguak estaltzen laguntzeko.
- Enpresei emandako mailegu publiko hobaridunak, kapital zirkulatuaren eta inbertsioaren berehalako beharrak estaltzeko.
- Estatuaren laguntza ekonomia errealerara bideratzen duten bankuentzako babesak, banketxeen arteko lehia ez faltsutzeko.
- Epe laburreko esportaziorako kreditu-asegurua.

Estatu kideek konpromisoa hartu behar dute enpresa berberei laguntzeko neurriak bidegabeki metatzea saihesteko, laguntzak haien benetako beharrak gainditu ez ditzan.

Aldi baterako esparrua hiru aldiz luzatu da, apirilaren 3an, maiatzaren 8an eta ekainaren 29an, honako moduko neurriak txertatzeko: COVID-19arekin lotutako produktuen ikerketarako, saiakuntzarako eta ekoizpenerako laguntzak; birkapitalizazioari eta mendeko zorrari buruzko laguntzak, eta enpresa txikiei, mikroenpresei eta start-up-iei inbertsio pribatuak sustatuz laguntzeko neurriak. Beste handitze bat badago mahai gainean, aldi baterako enpresen kostu finkoei laguntzeko eta birkapitalizatutako enpresen akziodunak Estatutik ateratzeko baldintzak finkatzeko. Esparrua 2020ko abenduaren amaierara arte egongo da indarrean, eta 2021eko ekainaren 30era arte luzatzea izapidetzen ari da.

### **3.1.3. Segurtasun-sare hirukoitza langileentzat, enpresentzat eta estatuentzat**

COVID-19aren inguruko eztabaida komunitarioaren ezaugarri nagusia krisiari erantzun europar bateratu eta koordinatua emateko akordio bat lortzeko ahalegina izan da. Alde batetik, "Eurobonuak" edo "koronabonuak" jaulkitzearen alde dauden estatu kideen (Espainia, Italia eta Frantzia, kasu) arteko eztabaidak polarizatu egin du akordio hori, Europar Batasunak susperraldi ekonomikoaren kostuak batera bere gain hartzeari dagokionez, estatu kideek zailtasunak baitituzte susperraldia lortzeko behar diren laguntzen eta inbertsioen karga fiskala zein bere buruaren kargura hartzeko. Bestalde, eta beste muturrean, Alemania, Holanda eta Austria bezalako herrialdeak erabat daude zorra mutualizatu eta zor handiak dituzten herrialdeen zorpetzea babestearen aurka. Testuinguru horretan, apirilaren 9an akordio bat lortu zen Eurotaldean, 540.000 milioi euroko pakete bati argi berdea ematen ziona. Pakete horrek epe laburreko erantzuna emango die langileei, enpresei eta estatuei, eta konpromisoa hartu zen epe ertainean Europako aurrekontuak ingururako babestutako suspertze-funts baten aukera aztertzen jarraitzeko; horretarako babes politikoak uztaileko Kontseilu Europarrean eman zuen fruitua, eta erregelamendu-proposamena eztabaidan dago gaur egun Europako Kontseiluan eta Parlamentuan.

Onetsitako paketea hiru finantzaketa-lerrotan banatzen da, eta horregatik langile, enpresa eta estatuentzako segurtasun-sare hirukoitza esan zaio:

**SURE tresna: Covid-19aren agerraldiaren ondoriozko larrialdi batean langabezia-arriskuak arintzeko aldi baterako laguntzarako Europako tresna, Kontseiluaren maiatzaren 19ko 2020/672 Erregelamenduaren bidez sortua.**

Tresna horren arabera, Europar Batasunak finantza-laguntza emango die COVID-19aren agerraldiaren ondorioz nahasmendu ekonomiko larria izateko arriskua duten estatu kideei, nagusiki, lan-denbora murrizteko araubideak edo norberaren edo besteren konturako langileak babesteko antzeko neurriak finantza ditzaten, eta, horrela, langabeziaren eragina eta diru-sarreraren galera murrizteko. Baita osasunarekin lotutako zenbait neurri ere, bereziki lantokietan aplikatzekoak, modu osagarrian finantzatzeko.

Erregelamenduak zehazten duenez, lan-denbora murrizteko araubideak programa publikoak dira, eta, egoera jakin batzuetan, zailtasunak dituzten enpresei aukera ematen diete beren langileek lan egindako orduak aldi baterako murrizteko; izan ere, langileek diru-sarrereterako laguntza publikoak jasotzen dituzte, lan egin gabeko orduak konpentsatzeko. Diru-sarrerak ordeztzeko antzeko araubideak daude norberaren konturako langileentzat.

SURE tresnaren finantza-laguntza estatu kideek eska dezakete, baldin eta haien gastu publiko erreala edo aurreikusitako gastua 2020ko otsailaren 1etik aurrera bat-batean eta modu larrian handitu bada, lan-denbora murrizteko araubideekin zuzenean lotutako neurri nazionalen eta pandemiaren ezohiko gertaeraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko hartutako antzeko beste neurri batzuen ondorioz.

SURE tresnaren zuzkidura 100.000 milioi eurokoa da, eta Europako Batzordeak Europar Batasunaren izenean hartutako kapitalen nazioarteko merkatuetan edo finantza-erakundeekin egindako jesapenen bidez ordaintzen da.

Kopuru hori lortzeko, Europar Batasunak estatu kideen ekarpen kolektiboak exigitzen ditu, Batasunaren aurrekontuaren kargura formalizatutako maileguak babesten dituzten bermeen modura. Horiek ezetztaezinak, baldintzarik gabeak eta agerikoak izan beharko dute. Europar Batasuneko errenta nazional gordinen estatu kide bakoitzak duen zati erlatiboaren proportzioan egingo da betearazpen-eskaera, baina Batzordeak uste badu baliabide propioen gehieneko mugaren barruan Erkidegoko aurrekontuan ordainketa-kredituetarako erabilgarri dagoen marjinaz baliatzeko aukera jasangarria dela, zati hori murriztu ahal izango da. Tresna estatu kide guztiek dagozkien bermeekin ekarpena —gutxienez zuzkidura osoaren % 25 egiten duen zenbatekoa, hau da, 20.000 milioi euro— egin ondoren bakarrik egingo da erabilgarri. Berme horiek ezarri egin dira dagoeneko.

Finantza-laguntza Europar Batasunak emandako mailegu baten forma hartzen du: Batzordearen proposamen batean oinarrituta Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez emandako mailegua. Proposamenaren arabera, ziurtatu egingo da estatu kide eskatzailearen gastu erreal edo aurreikusia bat-batean eta larriki igo dela, eta horrek zuzeneko lotura duela COVID-19aren agerraldiaren ondorioz lan-denbora murrizteko ezarritako araubideekin eta antzeko eskemekin, bai eta osasunarekin lotutako neurriekin ere. Zuhurtziazko arau batzuk ere bete behar dira; horien arabera, maileguen proportzio handiena metatzen duten hiru estatu kideei emandako maileguek ezingo dute zuzkiduraren % 60 gainditu, hau da, 60.000 milioi.

Kontseiluaren erabakiak honako hauek jasoko ditu:

- Maileguaren zenbatekoa, gehieneko epemuga, prezioa finkatzeko formula, gehieneko epe-kopurua, erabilgarritasun-aldia eta laguntza emateko beharrezkoak diren gainerako garapen-arauak.
- Horretaz gainera, Estatuak ebaluatuko du ezarritako baldintzak bete diren.
- Lan-denbora murrizteko erregimen nazionalak edo antzeko neurriak deskribatzea, bai eta finantzatu daitezkeen osasunarekin lotutako neurriak ere.

Erabakia hartzean, kontuan hartuko dira estatu kide eskatzaileak dituen eta aurreikusten dituen beharrak, bai eta beste estatu kide batzuek aurreikutzeko edo aurreikutea aurreikusten diren laguntza-eskaerak eta tratu-berdintasunaren, elkartasunaren, proportzionaltasunaren eta gardentasunaren printzipioen aplikazioa ere.

Laguntza-eskaerak 2022ko abenduaren 31ra arte egin ahal izango dira; nolahi ere, aldi bakoitzean 6 hilabetez luzatu ahal izango da, baldin eta ikusten bada COVID-19aren agerraldiaren ondoriozko nahasmendu ekonomiko larriak bere horretan jarraitzen duela. Espainiako Gobernuak, abuztuaren 3an, funtsaren laguntza eskatu zuen, ABEEE-en eta langile autonomoen jardura uzteagatik aparteko prestazioen kostua finantzatzeko. Abuztuaren 24an, Batzordeak publiko egin zituen Kontseiluari aurreikutzeko beharrezko proposamenak, eskatzaile bakoitzari eman beharrezko mailegu-zuzkiduraren esleipenari buruzkoak.

Espainiaren eskaerari dagokionez, Batzordeak baldintzak betetzen dituela berretsi du, eta 21.324,8 milioi euroko mailegua proposatu du, 15 urtetan itzuli beharrezkoa.

Europako Batzordeak estatu eskatzaile bakoitzarentzat proposatutako diru-esleipena:

3.1.1 TAULA			
Italia	27.438.486.000	Letonia	192.700.000
Espainia	21.324.800.000	Lituania	602.310.000
Belgika	7.766.380.000	Malta	243.632.000
Bulgaria	511.000.000	Polonia	11.236.693.087
Kroazia	1.020.600.000	Errumania	4.099.244.587
Txipre	479.070.000	Eslovakia	630.883.600
Txekiar Errepublika	2.000.000.000	Eslovenia	1.113.670.000
Grezia	2.728.000	<b>GUZTIRA</b>	<b>100.000.000.000</b>
<i>Iturria: Europako Batzordea.</i>			

### **Europako Inbertsio Bankuaren Berme-funts Paneuroparra, pandemiaren ondorio ekonomikoetara aurre egiteko**

Ekimen honen bidez, 25.000 milioi euroko berme-funts paneuroparra sortu nahi da. Horri esker, EIB Taldeak (Europako Inbertsio Bankua eta Europako Inbertsio Funtsa), tokiko kreditu-erakundeekin eta sustapen-erakunde nazionalekin lankidetzan, enpresa txiki eta ertainei eta ekonomia errealearen beste onuradun batzuei lagundu ahal izango die, horretarako 200.000 milioi euro arteko maileguak mobilizatuz eta, horrela, finantzaketa ekonomia errealearen esku jarri finantza-egonkortasuna arriskuan jarri gabe.

Funts horrek bermeak emango dizkio EIB Taldeari estalitako eragiketetan izandako balizko galerak itzuli ahal izateko. Kreditu-arriskua Europar Batasunaren eskalan mutualizatzeak berekin dakar funtsaren batez besteko kostua sistema nazionalena baino nabarmen txikiagoa izatea. Estatu kide guztiak, gainera, Europako Inbertsio Bankuaren kreditu-rating handia jaso ahal izango dute.

Berme-funtsa batez ere enpresei zuzenduta dago, batez ere ETEei; izan ere, gaur egungo egoeran arrisku handikoak izan arren, epe luzera bideragarriak dira eta, pandemiarik gabe, mailegu-erakunde baten edo beste finantza-bitartekari batzuen baldintzak beteko lituzkete merkataritza-finantzaketa lortzeko.

Funts horretatik eratorritako finantzaketaren % 65, gutxienez, enpresa txiki eta ertainentzat da. Gehienez ere, % 28 250 langile edo gehiago dituzten enpresetara bideratu ahal izango da, eta 3.000 langile baino gehiago dituzten enpresentzako murrizketak izango ditu. % 5era arte erabili ahal izango da sektore publikoko enpresentzat eta osasunaren, osasun-ikerkuntzaren edo osasun-krisiarekin lotutako oinarritzko zerbitzuen arloko erakundeentzat.

Finantzaketa gehiena finantza-bitartekarien bidez bideratzen da herrialde guztietan: merkataritza-bankuak edo sustapen-institutu nazionalak. Enpresek zuzenean horiei aurkeztuko dizkiete beren eskaerak.

25.000 milioi euroko berme-funtsa Batasuneko estatu kideek finantzatzen dute, EIBn duten partaidetza hainbanatuta. Funtsa dagoeneko martxan dago; izan ere, gutxienez EIBren kapitalaren % 60 ordezkatzeko duten estatuek dagoeneko sinatu dituzte beren ekarpen-akordioak.

Bestalde, martxoan, EIB taldeak 28.000 milioi euroko finantzaketa mobilizatu zuen zubi-maileguak eta kredituen amortizazioaren eteteak eta beste ekintza batzuk emateko, ETEen eta kapitalizazio ertaineko enpresen artean likidezia eta kapital zirkulatzailaren eskasia arintzeko, estatu kideetako finantza-bitartekariekin lankidetzan.

### **Europako Egonkortasun Mekanismoaren (MEDE) kreditu-lerroa: MEDE *Pandemic Crisis Support*.**

MEDERen barruan 240.000 milioi euroko kreditu-lerro bat gaitu da, oso baldintza onuragarrietan, eta estatu kideek beren BPGd-aren (2019) % 2raino baliatu ahal izango dute osasun-arretarekin eta COVID-19aren krisiaren prebentzioarekin zuzenean edo zeharka lotutako etxeko gastuaren finantzaketa laguntzeko, 2020ko otsailetik aurrerako atzeraeraginarekin.

Iraganean, MEDEk Greziaren eta beste herrialde batzuen erreskateak finantzatu zituen 2008ko finantza-krisian, eta haren esku-hartzeak herrialde onuradunentzako erreforma- eta austeritate-baldintza zorrotz eta zorrotzen mende egoten ziren. Kasu honetan, kreditu-lerroa eskuratzeko baldintza bakarra da estatu kide eskatzaileak konpromisoa hartzen duela MEDE *Pandemic Crisis Support*etik lortutako kopuruak erabiltzeko osasun-arretarekin zuzenean edo zeharka lotutako gastuen bertako finantzaketa ordaintzeko eta COVID-19aren krisiarekin lotutako prebentzioa ordaintzeko. Konpromiso hori "Pandemiari Erantzuteko Plan" batean sartu beharko da, MEDEko kide guztientzako termino estandarizatuetan oinarrituta. Kreditu-lerroa erabiltzeko eskaerak 2022ko abenduaren 31ra arte egin ahal izango dira. 10 urteko iraupena izango du.

Oraingoz, finantzaketaren beharrik handiena duten estatu kideek, Espainiak eta Italiak, besteak beste, ez dute ildo hori erabili nahi izan, iragan berria den finantza-krisiaren erreskateen estigma saihesteko.

### **Coronavirus Response Investment Initiative**

Europako Batzordearen ekimena da, eta egitura- eta inbertsio-funtsen kudeaketan ezohiko malgutasuna ahalbidetzen du. Hala, oraindik gauzatu gabe dauden eskualde-politikako programa operatiboetako funtsak birprogramatu ahal izango dira, eta osasun-sektoreak koronabirusaren inpaktuaren aurrean erantzuteko dauzkan gaitasunak indartzeko helburuz birbideratu ahal izango dira. Eragiketako % 100ean finantzatzea ere ahalbidetzen du, funtsen funtzionamenduan unean uneko likidezia arazoei zaildutako ohiko kofinantzaketaren ordeiz. Europako Batzordeak abuztuaren 11n onetsi zuen Eskualde Garapeneko Europako Funtseko (EGEF) Euskadiren eta Asturiasen programa operatiboak aldatzea. Horri esker, kohesio-politikatik 150 milioi euro birbideratu daitezke, osasun-erantzuna indartzeko, osasun-ekipamendua eta -materiala eskuratzeari esker. Programaren lehenengo aldaketa da, funtsak Espainian pandemiaren aurkako borrokara bideratzeko.

### 3.1.4. Suspertzerako tresna europarra: "Next Generation EU" eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa

Aurreko ataletan, aipatu izan ditugu zein saiaketa eta zailtasun egon diren Europar Batasunaren barruan COVID-19ak sortutako krisiari erantzun europar bateratu eta koordinatu bat emateko eta suspertzerako inbertsioen finantzatze-behar izugarri handiak eskuratzeko.

Pandemiak aldatu egin ditu Batasunaren eta Batasuneko kide guztien hurrengo urteetako aurreikuspen ekonomikoak, baina estatu guztiak ez dira modu berean kaltetu, eta ez dituzte eskura, ezta ere, baliabide berberak haren ondorioei aurre egiteko eta susperraldia bultzatzeko. Egiatzen horrek agerian uzten du merkatu bakarraren berdintasun-baldintzak hausteko eta Batasuneko kideen arteko desadostasun ekonomikoak areagotzeko arrisku argia dagoela, eta suspertzerako funts espezifiko bat ezartzeko adostasuna ahalbidetu duen funtsezko argudioa bihurtu da, EBk krisia konpontzeko eta finantzatzeko duen zereginari buruz dauden ikuspegiak gainetik.

Hala, uztailaren 17-21eko Kontseilu Europarrak akordio politiko historikoa lortu zuen azkenean, Europako Batzordeak proposatutako irismen handiko neurri-sorta bati buruz, zeina lotzen baita 2021-2027 aldirako Erkidegoko aurrekontuek izango dituzten finantza-aurreikuspenekin. Suspertzerako Europako tresna bat da, "Next Generation EU" izenekoa, 750.000 milioi euroz hornitua; diru hori, izan ere, Batasunak kapital-merkatuetan duen zorpetzearen bidez eskuratuko da.

Asmoa da Next Generation EU eta Urte Anitzeko Finantza Esparrua lotuta egotea, suspertze-neurriak behar baitira, aldi baterako erronka bati erantzun azkar, eraginkor eta sendoa emateko, baina emaitza iraunkorak lortzeko ere; halere, ezinbestekoa izango da haiek urte anitzeko finantza-esparru tradizionalarekin harmonikoki lotzea, zeren eta esparru horrek aurrekontu-aukerak zehazten baititu eta epe luzerako erantzuna eskaintzen baitu. Kontua da Next Generation EU delakoa larrialdi-tresna puntuala izatea, iraupen mugatukoa eta suspertze-neurrietarako soilik erabilia, eta aldi berean, tresna horrek EBren aurrekontuari gaitasun gehigarria ematea erronka premia-koenei modu erabakigarrian erantzuteko.

Horrela, Next Generation EU hornidura hainbat tresnaren artean banatzen da. Lehoiaren zatia, 672.500 milioi euro, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagokio, zeina, berez, suspertzerako funts gisa identifika daitekeen tresna baita. Gainerako partidak, taulan erakusten den banaketaren arabera, 2021-2027 Urte Anitzeko Finantza Esparruan aurreikusitako tresna eta programei esleitzen zaizkie, eta Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzen ditu urtero, Next Generation tresna susperraldiaren une hurbilenean indartu dadin, bere hiru zutabeetako bat lortzen laguntzeko:

- Estatu kideei krisitik suspertzen laguntzea, krisialdiaren ondorioak konpontzea eta sendotuta ateratzea.
- Inbertsio pribatua bultzatzeko eta zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko neurriak
- EBko funtsezko programak indartzea, krisitik ikasgai egokiak ateratzeko eta merkatu bakarra indartsuagoa eta erresilienteagoa izan dadin.

## NEXT GENERATION EU Susperraldirako Tresna

Next Generation EU suspertzerako Europako tresnaren ardatz nagusia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa da. Helburua da Batasunaren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretza sustatzea, estatu kideen erresilientzia eta doikuntza-gaitasuna hobetuz, krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoak arinduz eta trantsizio ekologiko eta digitalei lagunduz, eta horrela lagungarri gertatuko da Batasuneko ekonomien hazkunde-potentziala berrezartzeko, COVID-19aren krisiaren ondoren enpleguaren sorrera bultzatzeko eta hazkunde jasangarria sustatzen laguntzeko. Helburu orokor hori lortze aldera, mekanismoaren helburu espezifikoak estatu kideei finantza-laguntza ematea izango da, suspertze- eta erresilientzia-planetan ezarritako tarteko helburuak eta erreforma- eta inbertsio-xedeak lor ditzaten.

3.1.2 TAULA	
NGEU programaren bidezko esleipena	Zenbatekoa Milioiak EUR
Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa	672.500
• Dirulaguntzak	312.500
• Maileguak	360.000
REACT-EU	47.500
Europa Horizontea	5.000
InvestEU	5.600
Landa-garapena	7.500
Trantsizio Zuzenaren Funtza	10.000
rescEU	1.900
<b>GUZTIRA</b>	<b>750.000</b>
<i>Iturria: 2020ko uztailaren 17-21eko Kontseilu Europarraren konklusioak</i>	

Horretarako, mekanismoak 672.500 milioi euro biltzen ditu, Next Generation EURI esleitutako 750.000 euroetatik; honela daude banatuta: 312.500 milioi euro itzuli ezin diren dirulaguntzetan eta 360.000 milioi euro maileguetan.

Dirulaguntzetara bideratutako zenbatekoaren % 70 2021ean eta 2022an konprometituko da, eta gainerako % 30a, 2023aren amaieran.

Honako hauek dira 2021-2022 urteetarako dirulaguntzak estatu kideen artean banatzeko gakoak: per capita BPGd-a eta aurreko 5 urteetan izandako langabezia-tasa erlatiboa. 2023rako, langabeziaren irizpidearen ordezkari hauek erabiliko dira: 2020ko BPGd errearen behar-kada-ehunekoa eta 2020-2021eko BPGd errearen galera metatua, beranduenez 2022ko ekainaren 30ean kalkulatuak.

Estatu kideen araberrako gehieneko dirulaguntzen banaketa honako hau izango litzateke:

TAULA 3.1.3. EUROAK, MILIOITAN (2018KO PREZIOAK)							
Herrialdea	2021-2022	2023	Guztira	Herrialdea	2021-2022	2023	Guztira
BE	3.402	1.746	5.148	LT	1.952	480	2.432
BG	4.326	1.655	5.981	LU	2	21	93
CZ	3.301	3.444	6.745	HU	4.330	1.927	6.257
DK	1.216	338	1.554	MT	160	44	204
DE	15.203	7.514	22.717	NL	3.667	1.905	5.572
EE	709	308	1.017	AT	2.082	913	2.995
IE	853	420	1.273	PL	18.917	4.143	23.060
EL	12.612	3.631	16.243	PT	9.107	4.066	13.173
ES	43.480	15.688	59.168	RO	9.529	4.271	13.800
FR	22.699	14.695	37.394	SI	1.195	363	1.558
HR	4.322	1.628	5.920	SK	4.333	1.502	5.835
IT	44.724	20.732	65.456	FI	1.550	782	2.332
CY	764	204	968	SE	2.716	985	3.701
LV	1.531	342	1.873	<b>GUZTIRA</b>	<b>218.750</b>	<b>93.750</b>	<b>312.500</b>
<i>Iturria: Europako Batzordea, 2020ko uztailaren 17-21eko Kontseilu Europarraren konklusioen arabera</i>							

Laguntza lortzeko, estatu kideek suspertze- eta erresilientzia-plan nazionalak egin beharko dituzte, zeinetan estatu kide bakoitzak 2021-2023 aldirako erreformen eta inbertsioen programa azalduko baitu. 2021eko apirilean aurkeztu beharko dira formalki, baina urriaren 15etik zirriborroak aurreratzen joan daitezke Batzordearen zerbitzuekin eztabaidatzeko eta azken garapenerako orientabide gehigarriak eta laguntza teknikoak jasotzeko. Formalki aurkeztutako planak Europako Batzordeak ebaluatuko ditu 2 hilabeteko epean, eta Kontseiluak gehiengo kualifikatuz onetsiko ditu 4 asteko epean.

Batzordeak estatu kide bakoitzaren suspertze- eta erresilientzia-planak ebaluatuko ditu, eta horren arabera izango da jaso beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa —atal guztietan gehieneko kalifikazioak lortzeko bakarrik ahalbidetzen du banaketa-klabearen arabera dirulaguntzaren gehieneko bolumena lortzea—. Ebaluazio hori irizpide hauetan oinarrituko da:

- Planak eraginkortasunez heltzen die Europako sei hilekoko herrialde-gomendio espezifikoetan adierazitako erronkei.
- Planak trantsizio ekologiko eta digitaletan modu eraginkorrean laguntzen duten neurriak jasotzen ditu. Planaren kostuaren % 37 trantsizio ekologikoari laguntzeko erabili beharko da gutxienez, eta % 20 digitalari laguntzeko.
- Planak estatu kidean eragin iraunkorra izatea aurreikusten da.
- Planak modu eraginkorrean laguntzen du hazkunde-potentziala indartzen, enplegua sortzen eta Estatuaren erresilientzia ekonomiko eta soziala indartzen, krisiaren eragin ekonomiko eta soziala arintzen eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa hobetzen.
- Planean aurreikusitako kostuen zenbatekoa arrazoizkoa eta sinesgarria da, eta ekonomian aurreikusitako eraginekiko proportzionala.
- Planak inbertsio publikoko erreformak eta proiektuak gauzatzeko neurriak jasotzen ditu, jarduera koherenteak adierazten dituztenak.
- Estatu kideak proposatutako xedapenek plana benetan gauzatzen dela bermatzen dute, bereziki aurreikusitako egutegia, tarteko helburuak eta xedeak, eta dagozkien adierazleak.

Ordainketa-eskaeren ebaluazio positiboa egiteko, tarteko helburuak eta xedeak bete beharko dira. Batzordeak xedeak eta helburuak behar bezala betetzeari buruzko irizpena eskatuko dio Ekonomia eta Finantza Komiteari, eta estatu kideren batek edo gehiagok uste badu behar bezalako betetzetik desbideratze larriak daudela, arazoa Kontseilu Europarrari igortzeko eskatu ahal izango du.

Mekanismitik maileguetara bideratutako 360.000 milioi euroei dagokienez, estatu kideei finantzaketa gehigarria emango zaie beren suspertze- eta erresilientzia-planetako erreformak eta inbertsioak gauzatzeko, eta ezingo dute hartzaile bakoitzarentzat bere diru-sarrera nazional gordinaren % 6,8 gainditu.

Abian jartzerako azken egutegia zalantzakoa da; izan ere, azken batean, kasuan kasuko testu juridikoak onartzearen arabera izango da, eta oraindik ere eztabaidarako prozesu betean dago Europako erakundeetan. Gainera, tresnaren zuzkiduraren 750.000 milioi euroak lortzeko zorpetzeak baliabide propioen erabakia alde aurretik onartzea eskatzen du, eta erabaki horrek, gero, estatu kideen onarpena eskatzen du, konstituzio-betekizunen arabera.

## 3.2. ESTATU MAILAN HARTUTAKO NEURRIAK ETA TRESNAK

Martxoaren 14an, Espainian pandemiaren hedaduraren larritasuna eta ospitale-kolapsoaren berehalako arriskua ikusita, gobernuak Alarma-, salbuespen- eta setio-egoerei buruzko ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoaren laugarren artikuluko b) idatz-zatia betez eta Konstituzioaren 116.2 artikulua esleitzen dizkion ahalmenez baliatuz, alarma-egoera deklaratu zuen, osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko eta herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko ezohiko eta aldi baterako neurriak hartzeko, gaixotasunaren progresioari eusteko eta osasun-sistema publikoa indartzeko.

Alarma-egoera, hasiera batean hamabost egunez deklaratu, sei aldiz luzatu zen martxoaren 27ko 476/2020, apirilaren 10eko 487/2020, apirilaren 24ko 492/2020, maiatzaren 8ko 514/2020, maiatzaren 22ko 537/2020 eta ekainaren 5eko 555/2020 errege dekretuen bidez, eta ekainaren 21ean amaitu zen. Alarma-egoeran zehar, pandemiari eusteko neurri zorrotzak ezarri ziren. Pertsonen zirkulazio askea mugatuta geratu zen eta Espainiako ekonomiako sektore asko gelditu egin ziren, funtsezkoak izan ezik, eta horrek eragin handia izan zuen ekonomian eta enpleguan, etxe askotako errentetan eta enpresa eta langile autonomoen diru-sarreretan. Gobernuaren lehentasuna izan da ekoizpen- eta gizarte-ehuna babesteko eta sostengatzeko neurriak hartzea, ekonomia- eta gizarte-inpaktua minimizatzen eta enpresen eta enpleguaren krisiari aurre egiten laguntzeko, eta, osasun-alarma amaitutakoan, ekonomiaren errebotea gerta dadin.

Neurriak bideratu dira ekonomiaren gaineko eragin negatiboak luzeagoak izan ez daitezen eta inpaktu iraunkor edo estruktural bihurtu ez daitezen, beste egoera batzuetan fidagarriak ziren baina krisiaren iraupenari sostengu publikorik gabe eutsi ezin izan dioten negozio eta enpresak galtzea saihestuz, eta, bestalde, langabeziaren igoera handia eta langile autonomoen lanari uztea gerta ez daitezen. Halaber, lehentasuna izan da egoera ahulean dauden pertsonen arreta ematea eta egungo egoera txarrean babestea.

Jarraian, neurriak esanguratsuenak jasotzen dira, bi multzotan banatuta: batetik, gizarte- eta lan-arloko neurriak eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak babestekoak, eta, bestetik, ekonomia-ehunari eta enpleguari laguntzeko neurriak; hala ere, kasu batzuetan, neurrietako batzuek bi blokeetako helburuak partekatzen dituzte. Azken ekimen batek ixten du kapitulua, Estatuak autonomia-erkidegoei finantzaketa gehigarria emateko sortutako COVID Funtzari buruzkoa, zeina COVID-19ak gehien kaltetutako zerbitzuei estaldura emateko balio baitu.

### 3.2.1. Sare ekonomikoari eta enpleguari eusteko neurriak

Osasun-krisiaren ondorioz, enpresek likidezia-tentsio handiei aurre egin behar izan diete, diru-sarreraren beherakadaren ondorioz, bai eskaera txikiagoagatik edo jarduera eteteagatik, bai hornidurek huts egiteagatik eta kontratuak hutsaltzeagatik, eta plantillak egokitu behar izan dituzte, haiek jarduera-mailari egokitzeko. Enpresei eta enpleguari eusteko jarduera-ildoak, jarduera normalizatu arteko beharaldia aurre egin ahal izateko, finantza-laguntzaren eta enpresen kargak arintzearen ingurukoak dira. Besteak beste, aurrekontu-laguntzako neurriak dira, zergak geroratzeko eta kotizazio sozialetarako neurriak, esate baterako; langileen soldataren zati bat eta kotizazio sozialak onartzeko neurriak; krisiak gehien kaltetutako autonomoei sarrera-maila bat emateko neurriak, bai eta likideziari laguntzeko neurriak ere, hala nola enpresei kreditua lortzeko pizgarriak eta erraztasunak ematea abal publikoen bidez. Legegintzaren arloan, lan-arloko neurriak hartu dira enplegua babesteko eta lan-jarduerak eta COVID-19ari aurre egiteko beharrezkoak diren urruntze-, isolamendu- eta berrogeialdi-beharrak bateragarri egiteko.

### 3.2.1.1. Zerga-zorrak, Gizarte Segurantzako kotizazioak eta maileguen ordainketak geroratzea

Maila fiskalean, COVID-19aren krisiak ETEetan eta autonomoetan, ekonomiako agente ahulenetan, izan duen eragin negatiboa arindu nahi da, diruzaintzako tentsioak saihesteko neurriak hartuta. Araubide erkidearen esparruan, 6 hilabeteko gerorapena ematen da, alde zurretik eskatuta, aitorten-likidazioei eta autolikidazioei dagozkien zerga-zorrak ordaintzeko, baldin eta horiek aurkezteko eta ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 13tik maiatzaren 30era bitartean amaitzen bada. Ordaintzeko erraztasun hori 3 hilabeteko gabealdiaren pareko baldintzetan ematen da. Hala ere, araudi autonomoko zergei dagokienez, Euskadin aplikatu beharreko neurri fiskalak foru-aldundiek eta lurralde historikoetako batzar nagusiek ezarritakoak dira, eta ondorengo atalean aztertuko dira. Bestalde, sei hilabeteko luzapena ezarri da autonomoentzako eta enpresentzako Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketan. Gizarte Segurantzari zorrak ordaintzeari dagokionez, ordainketa ekainaren 30era arte geroratuko da beste gerorapenik indarrean ez duten enpresa eta autonomoentzat.

Aukera ematen da industria-proiektuei finantza-laguntza emateko tresnen enpresa onuradunek, Industriako Idazkaritza Nagusiaren eta maileguen bidez, eta ETEek eskatu ahal dezaten printzipalaren eta/edo interesen itzulketa geroratzea eta, ondorioz, itzulketa-egutegia berregokitzea, osasun-krisiak onuradun horiengan jarduerarik gabeko aldiak, salmenta-bolumenaren murrizketa edo balio-kateko hornikuntzaren etendurak eragin baditu, eta horien ondorioz salmenta-bolumenaren jaitsierak edo balio-katearen horniduraren etenak gertatu badira eta hura ezin bada ordaindu.

### 3.2.1.2. Finantzaketa eskura dadin erraztea Estatuko abalen ICO lerroa. CESCE abalen lerroa

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 29. artikulua abal publikoen lerro bat aurreikusi eta arautzen du, autonomoen, enpresa txiki eta ertainen eta enpresen zirkulazaila-beharrak asetzeko eta haien likidezia bermatzeko, ekoizpen-jarduerari eta enpleguari eusteko.

Lerroko finantza-erakunde laguntzaileek emandako finantzaketari ematen zaizkio abalak, enpresei eta autonomoei kreditua eta likidezia eskuratzeko erraztasunak emateko, premia-testuingurua baitago eta arrisku-pertzepzioak gora egin duenez finantza-erakundeek baldintzak zorrotz baitituzte.

Helburu horrekin, enpresa eta autonomoentzako Estatuaren konturako abalen lerro bat jarri da martxan, 100.000 milioi eurora artekoa, 2020ko martxoaren 18tik 2021eko abenduaren 31ra arte. Horren barruan sartzen da kreditu-erakundeek, kredituko finantza-establezimenduek, diru elektronikoko erakundeek eta ordainketa-erakundeek maileguak berritzea eta finantzaketa-eragiketa berriak egitea. Mailegu horiek enpresen eta autonomoen likidezia-beharrak estaltzen dituzte, fakturen kudeaketatik, soldaten ordainketetatik, hornidura-gastuetatik, alokairuetatik, zirkulazaila-beharretatik edo finantza- edo zerga-betebeharren epemugetatik eratorritakoak barne, enpleguari eusteko eta COVID-19aren ondorio ekonomikoak arintzeko. Halaber, errege lege dekretuak aukera ematen dio Kreditu Ofizialeko Institutuari (ICO, lerroaren kudeatzailea) 10.000 milioi euro gehiago zorpetze-ahalmena handitzeko, enpresei eta ETEei likidezia gehigarria eman ahal izateko, lehendik dauden finantzaketa-lerroen bidez.

Ezaugarri nagusiei dagokienez, autonomoen eta enpresa txiki eta ertainen kasuan abalak printzipalaren % 80 bermatzen du. Gainerako enpresen kasuan, abalak % 70 estaltzen du kreditu operazio berrien kasuan, eta % 60 birfinantzaketen kasuan. Abalak ez ditu estaltzen kapital nagusiaz bestelako kontzeptuak, hala nola interesak, komisioak, etab. Emandako abalaren epea bat etorriko da eragiketaren epearekin, gehienez ere 5 urtera arte.

Abalak tarteen arabera ematen ari dira, eta banan-banan aktibatzen dira, Ministroen Kontseiluak hartutako erabakiaren arabera. Erabaki horrek baldintzak eta terminoak finkatzen ditu, eta lerroa unean-unean enpresek eta sektoreek dituzten beharretara egokitzen da. Honako hau da banaketa:

- ETEak eta autonomoak: 67.500 milioi euro
- ETEak ez diren enpresak: 25.000 milioi euro
- Turismo-sektorea eta horrekin lotutako jarduerak: 2.500 milioi euro autonomoentzat eta ETEentzat
- Errepideko garraio-ibilgailu motordun erabilera profesionalekoen erosketa edo errentamendu finantzario edo operatiboa: 500 milioi euro autonomoentzat eta enpresentzat.


Lerroa agortuta dago jada, ekainaren erdialdean bosgarren tarte abiarazi zenetik.

Uztaila amaitzean, abalen lerroak 741.542 eragiketa baino gehiago bermatu ditu, 70.206 milioi euroekin abalaturata, eta, horri esker, 92.000 milioi euro baino gehiago bideratu ahal izan dira ekoizpen-sarera.

Abalen lerroko 100.000 milioi euroak agortuta, uztailaren 28an, eta enpresek oraindik finantzaketa-beharrak zituztela ikusita, Ministroen Kontseiluak erabaki zuen abalen beste lerro bat abian jartzea, Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez, 40.000 milioi eurokoa. Lerro berriak kapital zirkulazialea finantzatzeaz gain, inbertsio-jarduera ere finantzatuko du, bi ardatz nagusiren inguruan: ingurumen-jasangarritasuna eta digitalizazioa.


Espainiako Bankuak pandemiaren hasierako bi hilabeteetako datuak azertu ditu. Grafikoak erakusten du nolako bilakaera izan duten 2020ko martxoan eta apirilean Estatuko abalekin eta abalik gabe ekoizpen-jarduerak finantzatzeko erabilitako kreditu berriak eta emandako kreditu erabilgarriak. Aldi horretan, izan ere, abalen lerroaren lehen bi tarteak aktibatzen dira, 40.000 milioi eurokoak.

3.2.1 TAULA		
Tarteak	Aktibatze-data	Zenbatekoa EUR
1. tarte	Martxoak 26	20.000
2. tarte	Apirilak 10	20.000
3. tarte	Maiatzak 5	24.500
4. tarte	Maiatzak 19	20.000
5. tarte	Ekainak 15	15.500



2019ko hilabete beretan formalizatutako kreditu-eragiketen zenbatekoarekin alderatuta, ikusten da alarma-egoeraren lehen hilabete eta erdian emandako kreditu berriaren bolumena nabarmen handiagoa dela, batez ere enpresa txiki eta ertainen eta enpresa handien artean, eta 98.300 milioi eurora iristen dela; horietatik, 34.600 milioi ICO lerroko eragiketei dagozkie.

Batez ere enpresa txiki eta ertainak dira ICOren kredituen hartzaileak (22.900 milioi euro), eta enpresa handientzako banku-finantzaketaren zatirik handiena Estatuaren bermerik gabeko kreditutik dator. Autonomoen artean, jasotako kredituaren erdia baino gehiago, 4.000 milioi euro, ICOtik dator: 2.200 milioi euro dira.



Kreditu berriaren banaketari dagokionez, datuek erakusten dute 2020ko martxoko eta apirileko bankuko kreditu-eragiketa berrien % 92 likidezia-beharrik ase behar zituzten enpresei bideratu zaiela. 2. grafikoko hurrengo barretan, emandako kredituaren banaketa erakusten da, dela ICO lerrokoa, dela beste mota batekoa, enpresa-tipologiaren arabera, ETEa edo enpresa handia den kontuan hartuta. Likidezia premiak dituzten enpresek formalizatutako kredituaren % 35 inguru ICO lerroaren bidez gauzatu da. Horrek pisu handiagoa du ETEen segmentuan, kreditua lortzeko zailtasun handiagoak dituztelako ( % 57). Ehuneko hori, berriz, handiagoa da krisiak gehien kaltetutako sektoreetako enpresen artean (garraioa, ostalaritza, jatetxea, aisia eta motordun ibilgailuak), % 47, eta % 56 enpresa arriskutsuenen artean (CQS 6, 7 eta 8 kategoriei dagokien CQS kreditu-kalitatea dutenak, ez ordaintzeko % 2tik gorako probabilitatearekin)

Espainiako Bankuaren datuen arabera, abalen programara bildutako maileguen batez besteko interes-tasa % 2,1ekoa izan zen ETEen segmentuan, eta % 2,2koa enpresa handien segmentuan; tasa horiek ICO lerrotik kanpo egindako eragiketei aplikatutako azpitik daude, % 2,6 eta % 2,8 artean kokatu baitziren. Epeei dagokienez, ICO lerroko kredituen batez besteko epea, 4 eta 5 urte artekoa, nabarmen handiagoa da, bai enpresa txiki eta ertainekin egindako eragiketarako, bai enpresa handiekin egindakoetarako, eta pandemiaren aurretik eta pandemian egindako gainerako eragiketetan baino 3 urte handiagoa da. ICO lerroko kredituen zenbatekoa lerroa horretatik kanpoko kredituena baino askoz handiagoa da, bai enpresa txiki eta ertainen kasuan (200 milioi euro), bai enpresa handien kasuan (2.500 milioi euro).

Datuek erakusten dute abalen programak enpresen likidezia eskuratzen laguntzeko helburuak betetzen dituela, pandemiak gehien eragiten dien eta kreditua lortzeko zailtasun gehien dituzten enpresei aukera emanaz. Sarbide horren

baldintzak ere onuragarriagoak dira interes-tasei, zenbatekoari eta amortizazio-epari dagokienez, ICO lerrotik kanpo daudenak baino, eta, ondorioz, kostu txikieneko kreditua eskuratzeko aukera dago.

Azkenik, adierazi behar da nazioartekotutako edo nazioartekotze-prozesuan dauden eta likidezia-arazoei edo finantzaketarako sarbiderik ezari aurre egin behar dioten enpresentzat, COVID-19ak bere jardueran izandako krisiaren ondorioz, 2.000 milioi euroko CESCE abal-lerro bat ezarri dela, ETEei bereziki laguntzen ziena.

### 3.2.1.3. Jardueraren aldi baterako doikuntza-mekanismoak malgutzea, kaleratzeak saihesteko. Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen (ABEEE) erabilera masiboa

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen (ABEEE) figura lana malgutzeko formula bat da, eta aukera ematen die enpresei langileen lanaldia murrizteko edo lan-kontratuak eteteko. Aldi baterako izaera dauka, aldez aurretik mugatutako aldi batez aplikatu baitaiteke, eta, beraz, amaitzen denean, enpresak ABEEEa ezarri aurreko kontratu-baldintzak berreskuratu beharko ditu. Figura hori aktibatu ahal izango da ekonomia-, teknika-, antolamendu- edo ekoizpen-arrazoiak daudenean edo ezinbesteko arrazoiak daudenean, eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialaren aurkako ezohiko neurriei buruzkoak, katalogazioa ezarri du ondorio horietarako, COVID-19aren krisiak eragindako zailtasunen ezinbesteko kausa gisa, bai eta horri eusteko neurriak ere.

Neurri horren helburua da egungo egoera koitunturalak enpleguan eragin negatiboa izan dezan saihestea, eta, beraz, lehentasuna ematen dio enpleguari eusteari kontratuak azkentzearen gainetik. Hori dela eta, ABEEEak lehentasunezko tokia hartzen ari dira pandemiaren esparruan hartutako neurrien artean, eta enpresei beharrezko malgutasuna ematen die plantillak doitzeko, enpresen egoeran eta hartutako euste-neurrietan COVID-19aren eragin negatiboa izanez gero, eta, aldi berean, enpleguari eusten laguntzen dute eta eragindako langileen babesa indartzen dute.

Era berean, 8/2020 Errege Lege Dekretuak berezitasunak sartzen ditu Langileen Estatutuan jasotako ABEEE-en araubideari dagokionez, eta, besteak beste, araubide orokorrarena baino prozedura arinagoa eta azkarragoa eratzen du; hala ere, adierazi behar da praktikan izapidetzeak gainezka egin duela gertatu diren espediente-eskaeren kopuru izugarriaren ondorioz.

Egungo krisi pandemikoaren inguruabar berezietan, enpresaren jarduerarekin zerikusirik ez duten arrazoiak eragindakoan, ABEEE-en arrakasta enpresari lan-kostuak direla-eta eskaintzen dion arintzean datza; izan ere, aukera ematen du hilabete batzuetan plantilla osoa edo haren zati bat alde batera uzteko edo lanaldia murrizteko, eta horren bidez enpresarentzat krisiari aurre egiteko dituen aukerak hobetzen dira, behin betiko egokitzapenak egin gabe, eta, testuingurua hobetzen denean, langileak berriz lehengo lanpostuetan laneratu.

Gainera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak enpresa-kuota ordaintzetik salbuesten du enpresa, bai eta bilketa bateratuko kontzeptuengatik kuotetatik ere, osorik edo % 75ean, baldin eta enpresak 50 langile edo gehiago baditu eta, betiere, enpleguari eusteko konpromisoa hartzen badu.

Langileei dagokienez, kaleratzea saihesten dute eta aldean dute enpresaren zailtasunak gainditu ahala lanpostuetara itzuli ahal izateko legezko konpromisoa. Gainera, bermatzen du ABEEE baten pean dauden langileak ezin izango direla kaleratu lanera itzuli eta hurrengo sei hilabeteetan. Enpresak langilea kaleratuko balu, Gizarte Segurantzako kotizazioetan aurreztutako kopuru guztiak ordaindu beharko lituzke. Hala ere, adierazi behar da alarma-egoera amaitu zenetik irailaren 30era arteko luzapenak aldatetako ekarri dituela horri dagokionez, eta lehen langilea lanera itzuli zenetik 6 hilabete igaro direla.

8/2020 Errege Lege Dekretuak indartu egiten du langileen estaldura, araubide orokorreko ABEEEaren aldean. Langileak langabeziagatiko ordaindutakoaren arabera prestazioa jasotzeko eskubidearen aitortzea jasotzen du, nahiz eta horretarako gutxienezko okupazio-aldia kotizaturik ez izan. Gainera, langabezia-prestazioa jasotzen den denbora ez da kontuan hartuko prestazioa jasotzeko ezarritako gehieneko aldiak kontsumitzeko. Salbuespenak ez du eraginik izango aldi hori benetan kotizatutzat hartuko den langilearentzat.

Alarma-egoera amaitu zenetik irailaren 30era arte lehen luzapena egin ondoren, urriaren 1ean beste luzapen bat sartu zen indarrean 2021eko urtarrilaren 31ra arte, eta horrek hainbat aldaera sartzeko dituen enpresak ABEEEra sartzeko dituen arrazoi zehatzen arabera. Langile horiek edozein izanda ere, langile guztiek oinarri arautzailearen % 70 kobratzen jarraituko dute.

ABEEEak izugarritzko ahalegin bat izaten ari dira Estatuko aurrekontuetarako. Lan ministroak Senatuko Osoko Bilkuran emandako datuen arabera, ekainaren 30ean baimendutako ABEEE-ek 3,4 milioi langile hartzen zituzten, eta horietatik 1,5 milioi beren lanpostuetara itzuliai ziren ordurako. Abuztura arte, 19.680 milioi euro ordaindu ziren ABEEEak finantzatzeko. Gobernuak dagoeneko adierazi du SURE tresna europarra erabili nahi duela gastu horri mailegu bidez aurre egin ahal izateko, baina hori ez da nahikoa izango, Espainiari 21.325 milioi euro baitagozkio.

#### 3.2.1.4. Jarduera uzteagatiko autonomoentzako aparteko prestazioa eta kolektibo horrentzako beste neurri batzuk

Langile autonomoentzat, bereziki mugikortasun-murrizketek eta euste-neurrien ondoriozko jarduerak geldiarazteak eragindakoentzat, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak ezohiko prestazio bat aitortzen eta arautzen du, negozioak ixteak, alarma-egoera deklaratzeko edo fakturazioaren beherakada bortitzak eragindakoa.

Hasiera batean alarma-egoera amaitzen den hilabeteko azken egunera arte luzatzen den aldi batean, aparteko prestazio hori jaso ahal izan dute Langile Autonomoen Araubide Berezian sartuta dauden langile autonomoek, Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian sartuta dauden nekazaritzako langile autonomoek eta Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartuta dauden langile autonomoek, baldin eta haien jardura COVID-19aren ondorioz eten bada. Halaber, jardura amaitu gabe ere, prestazioa jaso ahalko dute bera eskatu aurreko hilabete naturaleko fakturazioa gutxienez % 75 txikiagoa izan badute, aurreko seihilekoaren batez besteko fakturazioarekin alderatuta.

Prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko, oinarri arautzaileari % 70 aplikatuko zaio, eta gutxienezko kotizazio-aldia egiaztatzen ez bada, horrek ez du eragotziko prestazioa jasotzeko eskubidea izatea, baina zertxobait txikiagoa izango da: hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen Araubide Bereziko edo, hala badagokio, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko gutxienezko kotizazio-oinarriaren % 70. Prestazioaren zenbateko ekonomikoa jasotzeaz gain, onuradunak ez ditu kotizazioak ordaindu beharko, eta prestazioa jasotzeko denbora kotizatutzat joko da, eta ez ditu murriztuko jardura uzteagatiko prestazio-aldiak, baldin eta onuradunak etorkizunean prestazioa jasotzeko eskubidea badu.

Alarma-egoerak iraun duen eta aparteko prestazioa indarrean egon den hiru hilabete eta erdian, 1.466.123 langile autonomori eman zaie, hau da, maiatzetik batez beste alta emanda zeudenen % 45,52ri. Gizarte Segurantzak 3.708 milioi euroko kostua ordaindu du horrengatik (kopuru horretan aldi horretan salbuetsitako kotizazioak sartu gabe). Onuradun bakoitzak, batez beste, 723,59 euro jaso ditu hilean, gizarte-kotizazioetatik salbuetsita egoteaz gain (313,21 euro hilean, batez beste). Sektoreka, eskaera gehienak merkataritzaren sektorean egiten dira, eta ondoren ostalaritzan eta eraikuntzan.

## 3.2.2 TAULA

PROBINTZIA	EMANDAKO PRESTAZIOAK	PRESTAZIO BIDEZ BABESTUAK	PROBINTZIA	EMANDAKO PRESTAZIOAK	PRESTAZIO BIDEZ BABESTUAK
ARABA	8.823	% 43,53	LUGO	10.388	% 31,16
ALBACETE	13.516	% 45,75	MADRIL	186.478	% 46,77
ALACANT	67.606	% 51,39	MÁLAGA	63.416	% 53,72
ALMERÍA	18.624	% 31,39	MURTZIA	42.731	% 43,00
AVILA	4.833	% 34,31	NAFARROA	18.642	% 39,87
BADAJOS	21.567	% 44,32	OURENSE	10.396	% 44,70
BALEAR UHARTEAK	42.275	% 46,49	ASTURIAS	33.918	% 47,13
BARTZELONA	179.530	% 46,04	PALENTZIA	4.465	% 34,28
BURGOS	10.659	% 39,29	LAS PALMAS	33.303	% 52,19
CÁCERES	14.545	% 46,50	PONTEVEDRA	30.041	% 45,47
CÁDIZ	32.385	% 53,65	SALAMANCA	10.941	% 42,00
CASTELLÓ	18.269	% 45,37	TENERIFE	34.450	% 55,01
CIUDAD REAL	15.395	% 43,98	KANTABRIA	19.461	% 47,79
KORDOBA	24.975	% 47,86	SEGOVIA	5.297	% 37,38
A CORUÑA	36.768	% 43,84	SEVILLA	55.276	% 50,08
CUENCA	6.159	% 33,40	SORIA	2.785	% 35,93
GIRONA	26.262	% 44,52	TARRAGONA	24.926	% 46,95
GRANADA	32.780	% 51,09	TERUEL	3.951	% 30,16
GUADALAJARA	6.047	% 41,05	TOLEDO	21.103	% 43,23
GIPUZKOA	24.532	% 37,36	VALENTZIA	82.745	% 47,05
HUELVA	12.927	% 46,81	VALLADOLID	15.520	% 43,74
HUESCA	6.641	% 30,64	BIZKAIA	36.519	% 44,05
JAÉN	19.439	% 47,30	ZAMORA	5.726	% 34,70
LEON	14.490	% 40,13	ZARAGOZA	26.809	% 41,40
LLEIDA	13.240	% 34,65	CEUTA	1.898	% 57,20
ERRIOXA	10.146	% 40,15	MELILLA	2.505	% 53,54
			<b>GUZTIRA</b>	<b>1.466.123</b>	<b>% 45,52</b>

*Iturria.- Gobernuko Presidentetza*

Aparteko prestazio hori alarma-egoera amaitu bitarte ezarri zen, hau da, ekainaren 30era arte. Ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuak autonomoen egoerara bideratutako neurri berriak sartzen ditu alarma-egoera amaitzen denetik aurrera. Alde batetik, eta alarma-egoeraren ondoren jardura berrir hasteko karga pixkanaka arintze aldera, kotizatzen betebeharretik pixkanaka beherantz doan salbuespena aurreikusten du ekainaren 30etik irailaren 30era: % 100era iristen da uztailean, % 50era abuztuan eta % 25era irailean. Aparteko prestazioa jasotzen ari diren eta beren jardura pandemiaren eraginak kaltetuta izaten jarraitzen duten langile autonomoen kasuan, uztailearen 1etik irailaren 30era arte jardura uzteko prestazioa jasotzea aurreikusten da. Hori jasotzeko, diru-sarreretan fakturazioaren % 75eko jaitsierak —handiak, beraz— egiaztatu beharko dira hirugarren hiru hilabetean, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Prestazioa bateragarria da jarduerarekin, baina horren hartzaileak ez daude Gizarte Segurantzaren kuota osoa ordaintzetik salbuetsita. Uztailetik irailerako sasoiko jardura duten autonomoentzat ere aparteko prestazio bat aurreikusten da, autonomoek alarma-egoera hasi zenetik dutenarekin homologa daitekeena.

Kolektiboak jardura uzteagatik prestazioa irailaren 30etik aurrera luzatzea eskatzen zuen, batez ere turismoarekin eta ostalaritzarekin lotutako jardueretarako. Besteren konturako langileentzako ABEEEak irailaren 30etik aurrera luzatzeak aldarrikapen hori indartzen zuen. Urriaren 1ean jarri zen indarrean ohiko jardura uzteagatik prestazioaren 2021eko urtarillaren 31ra arteko luzapena, diru-sarrerarik berreskuratu ez duten edo laugarren hiru hilabetean egoera okertu zaien autonomoentzat, bai eta sasoiko autonomoentzako laguntzen luzapena ere. Bi laguntza mota berri sortzen

dira. Bata, aurreko kasuetan sartzen ez direnentzat, eta, bestea, jarduera eteteagatiko laguntza, administrazio-erabakien ondorioz negozioak itxi behar dituztenentzat.

Uztailaren 31ko datuen arabera, alarma-egoera amaitu ondoren 115.103 langile autonomori eman zaie prestazio berria: uztailaren 122,4 milioi euroko zenbatekoa egin zuen. 1.168 sasoiko langilek jaso zuten uztailaren 1etik indarrean dagoen prestazio espezifiko berria.

### 3.2.1.5. Berariazko sektoreentzako laguntza

#### **Turismo-sektoreentzako laguntza**

Turismoaren sektoreak kezka handia piztu du Espainiako ekonomian duen garrantziagatik eta COVID-19aren krisiak hartan izan duen eragin larriagatik. Hainbat zirkunstantzia metatu dira, neurri espezifikoaren bidez arintzen saiatu direnak, kalte ekonomiko eta sozialari erantzuteko neurri orokorrez gain: pertsonen zirkulazio askearen murrizketak, mugak ixtea, hegaldiak bertan behera uztea, ostalaritza-establezimenduak ixtea Aste Santuko kanpaina eta atzerriko turismorako goi-denboraldian, sektorea jarduerara berriz irekitzeko datari eta horretarako baldintzei buruzko ziurgabetasuna, ziurgabetasunagatik eta zuhurtasunagatik turismo-zerbitzuen eskariak pairatutako beherakada. Berragerraldien azkartasunak eta gero eta herrialde gehiagok Espainiarako bidaien aurkako gomendioak eman izanak, bai eta Espainiatik atzerrira joandako bidaiariei berrogeialdiak ezartzeak ere, porrotera eraman dituzte udako kanpainarako atzerriko turismoa erakartzeko saiakerak. Turismoaren sektorerako neurri espezifikoaren artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

#### **Thomas Cook finantzaketa-lerroa zabaltzea, Espainian ezarritako enpresa guztiei arreta emateko**

Alarma-egoera deklaratu aurretik, sektorerako lehen neurri espezifikoak hartu ziren. Presako neurri buruzko martxoaren 10eko Errege Lege Dekretuak handitu egiten du Espainian egoitza soziala duten turismo-sektoreko enpresa guztientzako eta langile autonomoentzako kaudimengabezia-prozedurak irekitzearen ondorioak arintzeko presako neurriak onartzen dituen urriaren 11ko 12/2019 Errege Lege Dekretuak ezarritako Thomas Cook taldearen finantzaketa-lerroa, 200 milioi euro gehiagorekin. Era berean, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren aurrekontu-partida (ICO lerroak dituen kredituen % 50) 100 milioi eurotan handitu da, 200 milioi eurora iristeko, 400 milioi eurorainoko finantzaketa-lerro zabalduari estaldura emateko. Hori guztia Thomas Cook taldearen porrotaren ondorioz hasierako finantzaketa-lerrorako onartutakoen termino eta baldintza beretan.

Halaber, enpresek Gizarte Segurantzari kontingentzia arruntengatik ordaindu beharreko kuoten % 50eko hoberia aurreikusten da, bai eta langabeziaren, FOGASaren eta lanbide-heziketaren baterako bilketaren kontzeptuengatik ere, turismo-sektoreko enpresentzat eta turismoari lotutako merkataritza- eta ostalaritza-sektoreentzat, otsailan, martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean ekoizpen-jarduera sortzen badute eta hilabete horietan altan mantentzen badute aldizkako kontratu finkoak dituzten langileen okupazioa.

#### **Merkataritza-sektoreari laguntzea**

Ekainaren 15ean, Ministroen Kontseiluak Automobilgintzaren balio-katea Bultzatzeko Plana onartu zuen, Espainiako ekonomian sektore estrategiko bati laguntzeko plan gisa, sektoreak erakarpen-eragin handia baitu. Izan ere, Espainiak trantsizio ekologiko justuaren bidean aurrera egiteko zeregin garrantzitsua izan behar du, eta haren balio-katea COVID-19aren osasun-krisiak gehien eragindako industria- eta merkataritza-jarduera ekonomikoetako bat da.

Planak 3.750 milioi euro ditu, eta arlo hauetako 20 neurri dauzka: ekonomia, zerga, araudi, logistika, lehiakortasun, prestakuntza eta kualifikazio profesionala, erosketa publiko jasangarria eta plangintza estrategikoa. Lehenik eta behin, helburu du sektoreak 2020ko ekitaldian izandako galera izugarriak arintzea, eta, aldi berean, etorkizuneko industriaren

oinarriak ezartzen ditu, sektorea elektrifikazioaren eta digitalizazioaren bidez indartzeko. Planak, halaber, berehala lagundu nahi du COVID-19ak sektorean dituen ondorio kaltegarriak arintzen, baina, era berean, epe ertain eta luzerako ikuspegia du, mugikortasunaren deskarbonizazioarekin eta eraldaketa digitalarekin lotutako aldaketen testuinguruan kokatzeko neurri estrategikoekin, eta susperraldiaren indar eragilea izan nahi du.

COVID-19aren inpaktua arintzeko berehalako neurri nagusia ibilgailuen parkea berritzeko programa da, 250 milioi euroz hornitua. Programa horren helburua da ibilgailu zaharrenak eredu garbiagoekin eta seguruagoekin ordeztzea, ingurumen- eta gizarte-irizpideak txertatuz eta ibilgailuak erostea bultzatuz, alarma-egoerak ibilgailuen berritzea geldiarazi baitu eta egoeraren ziurgabetasunak, berriz, neurritz jotatzea ekarri baitu.

Programa turismoei eta ibilgailu komertzial arinei aplikatzen zaie, bai eta ibilgailu astunei eta autobusei ere. Neutraltasun teknologikoaren irizpidearen arabera, ibilgailu elektrikoak, hibridoak, gasezkoak eta hidrogenozko erregai-pilak erabiltzen dituzten ibilgailuak, edo gasolinazko eta gasoliozko ibilgailuak erostea sustatzen du, baina zenbateko desberdinekin: elektrikoentzako eta erregai-pilaren bidezkoentzako 4.000 eurotik hasi eta gasolinazko edo gasoliozko ibilgailuentzako 1.000-800 eurora bitarte, etiketa energetikoaren arabera, betiere zirkulazioan dagoen ibilgailu bat txatarrara eramaten bada.

Programa indarrean dago ekainaren 15etik aurrekontua agortu arte edo abenduaren 31ra arte, baina eskabideak aurkezteko aplikazio telematikoa ez da gaitu urrira arte.

### 3.2.2. Neurri sozialak, lanekoak eta zaugarritasun-egoeran dauden pertsonak babestekoak.

COVID-19ak eragindako krisiak herritar eta etxe asko jarri ditu ahultasun laboral, ekonomiko eta sozialeko egoeran, COVID-19aren mehatxuak eta alarma-egoerari eusteko neurriek lanpostuan jarduteari, diru-sarrera guztiak edo batzuk galdu ondoren eguneroko gastuak ordaintzeari edo gizarte-zerbitzuak eskuratzeari dakarzkieten erronkengatik, mugikortasun-murrizketen testuinguruan. Honako hauek dira zabaldu diren jarduera-ildoak: langileak babesteko neurriak, egoera ahulean dauden pertsonen eta familiei babesa eta laguntza ematea, haien oinarrizko beharrak asetzeko, etxebizitzari arreta berezia eskainiz, eta mendekotasuna duten eta desgaitasuna duten pertsonen etxe laguntza eta zaintza bermatzea.

#### 3.2.2.1. Etxegabetze-prozedura eta bizileku-alternatibarik gabeko etxe ahuletarako botatzeak etetea

Martxoaren 10eko 6/2020 Errege Lege Dekretuak, zeinaren bidez presako neurri batzuk hartzen baitira ekonomiaren arloan eta osasun publikoa babesteko, aldatu eta zabaldu egiten du maiatzaren 14ko 1/2013 Legea, hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurri buruzkoa, egoera bereziki ahulean zeuden pertsonen eragiten zieten kaleratzeak eteteari dagokionez. Arau hori 2008ko krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondoriozko salbuespeneko egoerei erantzuteko egin da, zeren eta krisian pertsona askok zailtasunak izan baitituzte beren ohiko etxebizitzaren gainean formalizatutako hipoteka-maileguaren ordainketei aurre egiteko. Pandemiaren egoerak bere ekintza-eremua zabaltzeko beharra eragin du, eta areagotu egin dira kalera botatzearen etendura estaltzeko kasuak. Hala, hipoteka-maileguaren kuotak ordaintzeko zailtasun-egoerarako, eta zorduna bere ohiko etxebizitzatik botatzeko mehatxuaren aurrean, lau urtez luzatu da 2013ko legean ezarritako botatzeak etete epea; horrela, 2020ko maiatzean amaitu beharrean, 2024ko maiatzera arte luzatuko da etendura. Kolektibo kalteberaren kontzeptua ere egokitu da, ahulezia-egoeran egon arren arauaren ekintza-eremuan halakotzat hartzen ez ziren zordunak ere har ditzan.

Horrela, guraso bakarrek familien onuradun izan daitezkeen kolektiboa barne hartzen da, nahiz eta seme-alaba bakarra izan ardurapean, eta familia-unitatearen gehieneko diru-sarreraren muga handitzen da, zeinak erreferentzia gisa balio baitu kalteberatasuna zehazteko Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoan, seme-alaba kopuruaren eta guraso bakarrek familia den ala ez kontuan hartuta.

Errege Lege Dekretuak egindako aldaketek, halaber, garrantzirik gabe uzten dute etxebizitzaren esleipenduna nor den, pertsona hori fisikoa edo juridikoa izan. Etetea gerta daiteke etxebizitzaren adjudikazioduna ez bada ere hartzekoduna edo bere kontura jarduten duen edozein pertsona; kasu hori 2013ko arauan baztertuta geratu zen.

---

### 3.2.2.2. Hipoteka-zorraren luzapena

2008ko finantza-krisialditik ikasitako esperientziaren ondorioz, halaber, handitu egiten da egoera ahulean dauden hipoteka-zordunei emandako babesa, bai eta krisi-egoeran dauden zailtasun ekonomikoko egoeretan etxebizitzarako dutenen eskubiderako babesa ere, hipotekaren ordainketan luzamendua eskuratu ahal izan dezaten, ohiko etxebizitza galtzea saihestuz. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak hainbat neurri ezartzen ditu ohiko etxebizitza erosteari lotutako hipoteka-zorraren luzamendua lortzeko. Baita enpresaburu eta profesionalen jarduera ekonomikoari lotutako higiezinen eta alokairu-egoeran dauden ohiko etxebizitzetaz bestelakoen kasuan ere, horiek ordaintzeari aurre egiteko aparteko zailtasunen bat izanez gero.

Zordunak araudian ezarritako baldintzak bete behar ditu, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagoela jotzeko. Hipoteka-zordunak luzamendua eskatu behar dio erakunde hartzekodunari, eta hori egiteko epea irailaren 29an amaitu da, eta luzamendua 15 eguneko epean eman behar du, azkar. Bitartean, hipoteka-zorra etenda geratuko da 3 hilabeteko epe batez, eta ezarrita dago mugaeguneratze aurreratua klausula ez dela aplikatuko luzapenaren indarraldian. Banketxeak ezin du berandutze-interesik kobratu, eta etendako hilerokoak mugaeguneratu gabekotzat jotzen dira. Etendura aplikatzeko, eskritura publikoa formalizatu behar da, eta hura Jabetza Erregistroan inskribatu.

Zailtasun-egoeran dauden eta Errege Lege Dekretuak eskatzen duen kalteberatasun-egoera egiaztatzeko lau baldintzak betetzen ez dituzten hipoteka-zordunen kopurua handia izateak berekin ekarri du hipoteka-zordun askok beren banku-erakundera jotzea beren zailtasunei irtenbidea emateko eta Espainiako Banka Elkarteak eta CECaK luzamendu sektorial bat abian jartzeko akordioa lortzea; azken horrek, izan ere, zordunarentzat hipoteka-luzamendu ofiziala bezain zorrotzak ez diren baina abantaila gutxiago dituzten betekizunak eskatzen ditu; funtsean, printzipalaren ordainketa atzeratzea, hitzartutako gabealdian dagozkion interesak bakarrik ordainduz, bederatzi hilabeteko iraupenarekin.

Espainiako Bankuaren datuen arabera, ekaina ixtean 735.000 hipoteka berandutzeko eskaera onartu ziren Espainian. Kopuru hori hipoteka-luzamendu ofizialaren (226.000 hipoteka) eta sektorialaren (509.000 hipoteka) baturari dagokio. Hipoteka-moratoria horiei lotuta amortizatzeke zegoen saldo bizia 38.500 milioi eurokoa zen.

### 3.2.2.3. Alokairu-errentaren eta COVID-19a abal-lerroaren ordainketa aldi baterako atzeratzea.

Pandemiak eragindako kalteberatasun ekonomikoko egoerek berekin ekarri dute, halaber, alokairuko etxebizitza batean bizi direnean kasuan, alokairua ezin ordaintzeko egoeran gertatzea.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak aurreikusten duenaren arabera, errentatzailea jabe txikia bada, kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagoen maizterrak errenta-ordainketaren aldi baterako eta ezohiko geroratzea eskatu ahal izango du, eta errentatzaileak zazpi egun balioduneko epean erantzun beharko dio. Erantzuna ezezkoa bada, maizterrak interesik gabeko Estatuaren mailegua edo zuzeneko laguntza eskuratu ahal izango du.

Ondorio horietarako, finantzaketa-lerro bat sortu da, Estatuak abalaturako eta diruz lagundutako maileguak emateko, COVID-19aren hedapenaren ondorioz kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeran dauden errentariek beren ohiko etxebizitzaren alokairu-gastuei aurre egin ahal izan diezaieten. Maileguak lurralde nazional osoan kokatutako ohiko etxebizitzaren errentariei ematen zaizkie.

Mailegu horiek % 100eko estaldura izango dute Estatuaren abalaren bidez, eta ez dute inolako gastu edo interesik sortuko ematen zaien eskatzailearentzat.

Maileguak "COVID errentamendua abal-lerroari" atxikitako kreditu-erakunde laguntzaileei eskatzen zaizkie, 2020ko irailaren 30era arte, eta 2020ko urriaren 31 baino lehen formalizatu behar dira, ministro-agindu bidez handitu daitekeena.

Abalaturako maileguaren gehieneko zenbatekoa sei hileko kuotaren zenbatekoaren % 100 da, indarrean dagoen errentamendu-kontratuaren arabera, eta gehienez 900 euro hileko. Mailegua ohiko etxebizitzaren errentamenduaren errenta ordaintzeko erabili beharko da, eta etxebizitzari erantsitako altzariak eta gelak ere jaso ahal izango dira.

Maileguaren interes-tasa finkoa izango da, % 1,5erainokoa (UTB), eta bezeroari ez zaio inolako zenbatekorik kobratuko gastu edo interes gisa, gastua Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak hartuko baitu bere gain.

Mailegu-eragiketak, oro har, sei urtera arte formalizatu ahal izango dira, eta, kalteberatasun-egoerak irauten badu, beste lau urtez luzatu ahal izango dira, salbuespen gisa. Hasierako amortizazio-epea sei urtera artekoa izan ahalko da, eta printzipalaren sei hilabeteko gabealdia itundu ahalko da.

Kreditu-erakundeak hileko zenbatekoei dagozkien zenbatekoak zuzenean ordainduko dizkio etxebizitzaren errentatzailea den pertsonari edo entitateari.

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren aurreikuspenen arabera, 450.000 familiek hartuko dituzte 0 intereseko mikrokreditu horiek, beren alokairua ordaindu ahal izateko. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak 1.200 milioi euro igo zuen bere gastu-sabaia neurri hori abian jarri ahal izateko.

### 3.2.2.4. Egoera ahulean dauden eta ikastetxeen itxieraren eraginpean dauden haurren elikadurarako oinarrizko eskubidea.

Ikastetxeak itxeak eskola-jantokietara sartzeko ezintasuna ekarri zuen, eta jangelako beka jasotzen duten haurren kasuan, elikadura-gabeziako egoerak gertatzeko arriskua sortu zen. Egoera ahulean dauden haurren elikadura-eskubidea bermatzeko, martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuak haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleak dituzten familien aldeko dirulaguntzak edo elikagaien banaketaren zuzeneko prestazioa jasotzeko eskubidea ezarri zuen, autonomia-erkidegoek edo udal-zerbitzuek ikasturtean zehar eskola-jantokirako beka edo laguntzak ematen dizkieten familientzat.

### 3.2.2.5. Mendeko pertsonen etxez etxeko laguntza bermatzeko neurriak, MECUIDA Plana. Ezohiko gizarte-funts bat sortzea, COVID-19aren ondorio sozialetarako, hura finantzatzeko.

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialaren aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak baimena ematen du Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030en Ministerioaren aurrekontua 300 milioi eurotan handitzeko, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko ezohiko gizarte-funts bat finantzatzeko, autonomia-erkidegoei transferentziak eginez, foru araubidekoak barne, gizarte-zerbitzuen oinarritzko prestazioak finantzatzeko.

Honako hau da horren xedea:

- etxez etxeko hurbiltasun-zerbitzuak indartzea, zertarako eta zainketak, laguntza, ingurunearekiko lotura, segurtasuna eta elikadura bermatzeko, batez ere adinekoei, desgaitasuna duten pertsoneri edo mendetasun-egoeran daudenei dagokienez, kontuan hartuta jantokiak, eguneko zentroak, okupazio-zentroak eta antzeko beste zerbitzu batzuk itxita daudela.
- Etxeko telelaguntzako gailuen funtzionamendua indartzea
- beharrezkoa denean, errehabilitazioko, higieneko, terapia okupazionalako eta antzeko zerbitzuak etxean ematea.
- etxerik gabeko pertsoneri arreta emateko gailuak indartzea, pertsona horien eta arreta ematen dutenen babesa bermatuz.
- familiei oinarritzko premiak, larrialdikoak nahiz laneratzekoak, beteko dituztela bermatzeko behar adina diru-sarrera bermatzeko partiden zuzkidura handitzea.
- zainzaileentzako atsedeen-zerbitzuak eta diru-sarrera txikiko familientzako kontziliazio-batez bestekoak indartzea, baldin eta beren lantokira joan edo etxetik irten behar badute, justifikatutako eta presazko arrazoiengatik.
- gizarte-zerbitzuetako zentroen eta egoitza-zentroen plantillak indartzea; norbera babesteko ekipamendua eskuratzea.

### 3.2.2.6. Kontsumitzaile kalteberei ur- eta energia-hornidura eta gizarte-bonoa bermatzea

Alarma-egoerak irauten duen bitartean, debekatu egiten da pertsona fisikoak diren kontsumitzailei beren ohiko etxebizitzan energia elektrikoaren, petroliotik eratorritako produktuen, gas naturalaren eta uraren hornidura etetea, nahiz eta aukera hori sinaturiko kontratuetan jasota egon. Ondoren, uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuak irailaren 30era arte luzatzen du oinarritzko horniduren bermea, eta ezartzen du urriaren 1ean hasiko dela ordainketa-errekerimendu fede-emailearen eta ez ordaintzeagatik hornidura etetearen arteko legezko 2 hilabeteen zenbaketa, errekerimendua alarma-egoeran gertatzen denean.

Langile autonomoek bonu sozial elektrikoa eskuratzeko aukera izango dute, baldin eta alarma-egoera indarrean jarri ondoren COVID-19aren ondorioz jarduera utzi badute edo fakturazioa gutxienez % 75 murriztu badute, aurreko sei hilekoko fakturazioaren batez bestekoarekin alderatuta.

### 3.2.2.7. Konektibitatea eta komunikazio elektronikoko zerbitzuak mantentzea

Alarma-egoerak iraun bitartean, telekomunikazio-operadoreek mantendu egin beharko dituzte beren bezeroek kontratatutako komunikazio elektronikoen zerbitzuak, eta ezin izango dituzte eten, nahiz eta aukera hori sinatutako

kontratuan jasota egon. Horien bidez zerbitzuak eta jarduerak ematen dira, bai telelanean, bai merkataritzakoak, aisialdikoak, administrazioarekin komunikatzekoak, zeinak ezinbestez mantendu behar baitira.

### 3.2.2.8. Lan arloko neurriak

#### **Isolamendu- edo kutsatze-aldiak lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat hartzea**

Martxoaren 10ean Errege Lege Dekretu bat onetsi zen, zeinaren bidez ezartzen baita arrazoi sanitarioengatik etxean egotera behartutako pertsonak, COVID-19aren eraginpean edo berrogeialdian daudenak, lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat hartuko direla Gizarte Segurantzaren sistemaren aldi baterako ezintasunagatik prestazio ekonomikoaren ondorioetarako. Martxoaren 12an, 7/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren eragin ekonomikoari erantzuteko premia neurriak onesten dituenak, estaldura bera zabaltzen dio mutualismo administratiboari, eta, horrela, prestazio hori jasotzeko eskubidea sortu ahal izango dute Gizarte Segurantzako dagokion Araubide Berezian alta emanda dauden mutualistek ere, COVID-19ak eragindako isolamendu- edo kutsatze-aldietan.

Bi kasuetan, gertaera eragilearen data isolamendua edo gaixotasuna erabakitzen den eguna izango da, baja-partea data horren ondoren egiteari kalterik egin gabe.

Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere prestazio hori jasotzeko eskubidea izango dute, erabaki badute norberaren konturako langileen dagokien araubide berezian sartzea.

#### **Lanaldia egokitzea edo murriztea senideak zaintzeko betebeharrak dituzten langileentzat**

Ezkontidea, izatezko bikotekidea edo odol-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko betebeharra duten besteren konturako langileek lanaldia egokitzeko edo lanaldia murrizteko eskubidea izango dute, baldin eta haien presentzia beharrezkoa bada adin, gaixotasun edo desgaitasun arrazoiengatik zaintza pertsonaleko eta zuzeneko beharrak betetzeko. Eskubide hori aitortzeko salbuespenezko inguruabarrak gertatzen dira, halaber, gobernuaren erabakiz ikastetxeak ixten direnean edo beste izaera bat dutenean, baldin eta premia duen senideari arreta eta zaintza ematen ari bazaizkio. COVID-19aren arrazoiengatik zaintzak eman ohi dituen pertsona lanerako prest ez egoteak lanaldia egokitzeko edo murrizteko eskubidea ere sortzen du. Eskubide hori enpresaren egoerarekin justifikatua, arrazoizkoa eta proportzionatua izan behar da, eta langileari dagokio haren hasierako zehaztapena, irismenari eta edukiari dagokionez. Lanaldiaren egokitzapena era askotara egin daiteke; hala nola, txanda-aldaketa, ordutegi-aldaketa, lanaldi-aldaketa..., urrutiko lanaren prestazioa barne. Lanaldi-murrizketak soldata proportzioan murriztea dakar, eta lanaldiaren % 100era ere irits daiteke, eskubide horren helburua betetzeko beharrezkoa bada.

#### **Kaleratzeetatik babestea alarma-egoeran**

Martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aurreikusten du pandemiaren eragin negatiboa — zeinak martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan justifikatzen baitu kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko prozedurak malgutzea, enpleguari dagokionez neurri traumatikoak saihesteko— ezin izango da ulertu lan-kontratua azkentzea edo kaleratzea justifikatzen duten arrazoitzat, eta langilea lanpostua galtzeko arriskutik babestuko da. Praktikan, arrazoi objektiboengatik kaleratzea saihestea dakar, baina bidegabeko kaleratzearen bidez posible izaten jarraituko du, lan egindako urte bakoitzeko kalte-ordain handiagoa emanez.

## Telelana

Lan ez-presentziala eta langilearen eta lantaldearen arteko telekomunikazio-sareen bidezko konektibitatea oso tresna garrantzitsua bilakatu da batetik COVID-19ari aurre egiteko isolamendu- eta berrogeialdi-beharra eta bestetik lan-jardueren jarraitutasuna uztartzeko. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren arabera, telelana lehentasunezko neurria da jarduera aldi baterako etetearen edo murriztearen aurrean. Enpresek antolakuntza-sistemak ezarri beharko dituzte jarduerari ordezeko mekanismoen bidez eusteko, hala nola telelanaren bidez, eta enpresak neurri egokiak hartu beharko ditu hori teknikoki eta arrazoiz posible bada, bai eta egokitzeko egin beharreko ahalegina ere, zeina, betiere neurrizkoa izango baita.

Telelanaren formularen arrakastak berekin ekarri du pandemiaren aurretik baino ezarpen handiagoa duen lan-modalitate gisa erabili baliatu ahal izatea etorkizunean Telelana arautzeari, izan ere, berriki heldu zaio, eta horren emaitza izan da irailaren 22an Urrutiko Lanari buruzko 28/2020 Errege Lege Dekretua onestea.

### **Funtsezko ez den jarduera geldiarazten den bitartean berreskuratu daitekeen baimen ordaindua**

Martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuak funtsezkoak ez diren jardueretan diharduten langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen du, funtsezkoak ez ziren jarduera ekonomiko guztiak geldiaraztea agindu zen martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitarteko aldirako. Baimen horren bidez, langileek ordainsariak osorik jaso zituzten, eta baimen-aldiko lan egin gabeko lanaldiak geroago itzuli beharko zituzten.

#### 3.2.2.9. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren ezarpena

Maiatzaren 29an, 20/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (Diputatuen Kongresuak ekainaren 10ean baliozkotu zuen), bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezarri zen. Pandemiaren krisi betean agertzen da, eta COVID-19ak eragindako kalteberatasun ekonomiko eta sozialaren hazkunderari erantzuten dio. Hala ere, ez da pandemiari lotutako neurri koiuntural eta salbuespenezkoa, egiturazko tresna bat baizik, zeinaren agerpena COVID-19aren osasun-krisiak bizkortu egin baitu, eta haren helburua da konponbidea jartzea diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren ahuleziei eta lurralde-aniztasunari.

Diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren gabeziak sarritan aipatu dira Europako erakunde txosten eta gomendioetan, eta azken urteotan hainbat ekimen egin dira Espainian gutxieneko diru-sarreraren prestazio bat aztertzeke eta ezartzeko. Osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisiaren egungo egoerak eta horren ondoriozko kalteberatasun ekonomiko eta sozialaren hazkundeak areagotu egin dute Estatu osorako diru-sarrerak bermatzeko mekanismo bat abian jartzeko premia.

20/2020 Errege Lege Dekretuak bizitzeko gutxieneko diru-sarrera Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko gisa ezartzen du, modalitate ez-kontributiboan, bakarrik edo bizikidetzaren unitate batean integratuta bizi diren pertsonen pobrezia- eta gizarte-bazterketako arriskua prebenitzeko prestazioa izan dadin, baldin eta pertsona horiek kalteberatasun-egoeran badaude, beren oinarrizko premiak estaltzeko behar beste baliabide ekonomikorik ez dutelako. Prestazio ekonomiko gisa, gutxieneko errenta bat bermatzen du. Alderdi ekonomikoaz gain, onuradunen gizarteratzeko eta laneratzeko benetako aukerak hobetzea du helburu.

Interesgarria da nabarmentzea foru-lurraldeetan bizitzeko gutxieneko diru-sarrera aplikatzeari buruz egiten den aurreikuspena, foru-ogasunak izateak dakarren espezifikotasuna dela eta. Euskadik eta Nafarroak beren gain hartuko dituzte, beren lurralde-eremuetako, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari esleitutako eginkizunak eta zerbitzuak, udazken honetan adosten den bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomiko ez-kontributiboari dagokionez.

Bien bitartean, hitzarmen bidezko kudeaketa-gomendio bat aurreikusten da, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomikoa dela eta, Euskadin eta Nafarroan onuradunei arreta integrala emate aldera.

Izan ere, Euskadin, dagoeneko, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kudeatzen da, eta Lanbideri esleitu zaio, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeatzaileari. Kasu batzuetan izan ezik, zenbateko handiagoko prestazioak eskaintzen ditu, eta Estatuko prestazioan sartzen ez diren talde batzuk hartzen ditu barnean, hala nola pentsiodunak. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera sortuta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio osagarri eta subsidiarioa izango da.

3.2.3 TAULA GEHIENEKO DIRU-SARRERAK ETA JASO BEHARREKO ZENBATEKOAK: BIZITZEKO GUTXIENEKO DIRU-SARRERA ETA DSBE-A						
Unitatea	BGDS hilean	DSBE hilean	DSBE, pentsiodunak	BGDS urtean	DSBE urtean	DSBE, urtean, pentsiodunak
Pertsona 1, bakarrik bizi dena	461,50 €	693,73 €	795,95 €	5538,00 €	8324,76 €	9551,40 €
Pertsona 1 haur batekin	701,50 €	941,26 €	846,40 €	8418,00 €	11295,12 €	10156,80 €
Pertsona 1 bi haurrekin	840,00 €	1035,86 €	1045,39 €	10080,00 €	12430,32 €	12544,68 €
Pertsona 1 3 haurrekin edo gehiagorekin	978,42 €	1035,86 €	1124,98 €	11741,00 €	12430,32 €	13499,76 €
2 pertsona haurrik gabe	600,00 €	890,81 €	994,94 €	7200,00 €	10689,72 €	11939,28 €
2 pertsona haur batekin	738,42 €	985,41 €	1074,53 €	8861,00 €	11824,92 €	12894,36 €
2 Pertsona 2 haurrekin	876,92 €	985,41 €	1074,53 €	10523,00 €	11824,92 €	12894,36 €
2 pertsona 3 haurrekin edo gehiagorekin	1015,33 €	985,41 €	1074,53 €	12184,00 €	11824,92 €	12894,36 €
3 pertsona haurrik gabe	738,42 €	985,41 €	1074,53 €	8861,00 €	11824,92 €	12894,36 €
3 pertsona haur batekin	876,92 €	985,41 €	1074,53 €	10523,00 €	11824,92 €	12894,36 €
3 pertsona 2 haurrekin edo gehiagorekin	1015,33 €	985,41 €	1074,53 €	12184,00 €	11824,92 €	12894,36 €
3 pertsona haurrik gabe	876,92 €	985,41 €	1074,53 €	10523,00 €	11824,92 €	12894,36 €
4 pertsona haur batekin	1015,33 €	985,41 €	1074,53 €	12184,00 €	11824,92 €	12894,36 €

*Iturria.-*

Ekainaren 15etik aurrera eska daiteke bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, eta ekainaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak. Euskadin, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren baldintzak betetzen dituztenek bakarrik egin behar dituzte eskaera-izapideak, baina ez diru-sarrerak bermatzeko errentaren baldintzak betetzen dituztenek. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenen eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren baldintzak betetzen dituztenen kasuan, Lanbide ofizioz arduratuko da prestazio berria kudeatzeaz.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren bizitzeko gutxieneko diru-sarrerarekiko izaera osagarri eta subsidiarioak aurrezki handia ekarriko du Eusko Jaurlaritzaren diru-kutxarako; izan ere, Estatuaren erantzukizuna izango da, Gizarte Segurantzaren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren zatia finantzatzea, baldin eta horren kasua bat badator bizitzeko diru-sarrerarekin. Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, 30.000 pertsona inguruk lor dezakete bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, eta gaur egun 54.066 pertsona daude diru-sarrerak bermatzeko errentaren babespean.

Espanian, Gobernuak uste du 850.000 etxek (2,3 milioi pertsona inguru) jaso ahal izango dutela bizitzeko gutxieneko diru-sarrera.

### 3.2.3. COVID funtsa Autonomia-erkidegoei likidezia injeztatzea, pandemiak irauten duen bitartean zerbitzu publikoak eman ditzaten

Ekainaren 16ko 22/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako COVID funtsak autonomia-erkidegoei likidezia eman nahi die, transferentzien bidez, pandemiaren ondorioei aurre egiteko eta pandemiak irauten duen bitartean herritarrei funtsezko zerbitzu publikoak eskaintzeko beharrezkoak diren baliabideak izango dituztela bermatzeko. Hori dela eta, funtsak lau tarte ditu, osasungintzari (bi tarte) hezkuntzari (tarte bat) eta diru-sarreraren murrizketari (laugarren tarte) dagozkienak.

Aurrekontuei dagokienez, 16.000 milioi euroko aparteko funtsa da, itzulgarria ez dena, eta autonomia-erkidegoei ez die ez zorrik ez interesik sortzen.

Errege Lege Dekretuak ezartzen du populazio-irizpideak eta birusaren eragin-irizpideak izango direla funtsaren finantzaketa autonomia-erkidegoen eta hiri autonomoen artean banatzeko irizpide nagusiak. Hala ere, tarte bakoitza banatzeko, kontuan hartuko dira, halaber, kasuan kasuko arloko gastuaren irizpide adierazgarriak: lehenengo bietan osasun-gastua adierazten duten irizpideak, hirugarrenean hezkuntzako gastua adierazten duten irizpideak eta laugarrenean jarduera ekonomikoa jaistearen ondoriozko diru-sarrerren murrizketarekin lotutako irizpideak. Osasungintzari dagozkion bi tarteek 9.000 milioi euro izango dituzte, 6.000 milioi euro uztailean eta 3.000 milioi euro azaroan; 2.000 milioi euroko, hezkuntza tarteak, eta 5.000 milioi euro, diru-sarrera murrizketaren tarteak. Aipatu behar da ez Euskadik ez Nafarroak ez dutela 4. tartearen parte hartzen, finantzen eta zergen arloan dituen berezitasunengatik, eta, espezialitate horietan oinarrituta, ekonomia- eta finantza-araubidea aldebakarreko arriskukoa delako. Beraz, funtsean 11.000 milioi euroko partaidetza izango dute, eta ez 16.000 milioi eurokoa.

Tarte bakoitzaren aurretik ministro-agindu bat dago, autonomia-erkidegoen eta hiri autonomoen arteko banaketaren zenbatekoa zehazten duena eta banaketari eta igorpenari buruzko arauak ezartzen dituen. Orain arte, lehen osasun-tartea eta hezkuntza-tartea banatu eta ordaindu dira, uztailearen 17an eta irailaren 2an. Hona emaitzak:

3.2.4 TAULA.- AUTONOMIA ERKIDEGOAK ETA HIRI AUTONOMOAK			
	1. tartea	3. tartea	Guztira
KATALUNIA	1.246.525,83	337.438,19	1.583.964,02
GALIZIA	268.111,32	92.987,53	361.098,85
ANDALUZIA	597.610,28	383.856,98	981.467,26
ASTURIASKO PRINTZERRIA	106.103,81	32.529,93	138.633,74
KANTABRIA	64.712,95	22.141,31	86.854,26
ERRIOXA	57.517,28	13.204,99	70.722,27
MURTZIAKO ESKUALDEA	98.164,46	73.820,12	171.984,72
VALENTZIAKO ERKIDEGOAK	449.632,01	214.185,03	663.817,04
ARAGOI	146.580,33	53.448,02	200.028,35
GAZTELA-MANTXA	319.263,56	89.185,60	408.449,16
KANARIAK	158.979,47	87.368,30	246.347,77
EXTREMADURA	96.000,05	43.295,39	139.295,44
BALEAR UHARTEAK	104.536,52	50.280,26	154.816,78
MADRIL	1.495.746,47	291.696,57	1.787.443,04
GAZTELA ETA LEON	349.156,42	84.043,55	433.199,97
EAE	328.630,88	87.230,70	415.861,58
NAFARROA	88.728,36	29.287,53	118.015,89
MELILLA	12.000,00	7.000,00	19.000,00
CEUTA	12.000,00	7.000,00	19.000,00
GUZTIRA	6.000.000,00	2.000.000,00	8.000.000,00

*Iturria.- Ogasun Ministerioa*

Berriazko aurreikuspen bat dago foru-araubideko autonomia-erkidegoentzat. Aurreikuspen horren arabera, Euskadik eta Nafarroak funtsaren tarteetan izango duten partaidetza Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan (Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordea, Nafarroaren kasuan) ezarriko da, eta bertan zehaztuko da, defizitari eta zorrari dagokienez, jarduera ekonomikoaren beherakadaren ondoriozko diru-sarrerren murrizketaren estaldura.

Errege Lege Dekretuak Euskadirentzat interesgarria den beste aurreikuspen bat ere jasotzen du; izan ere, ezartzen du 2019ko itxieran superabita aplikatu gabe duten autonomia-erkidegoek 2020ko ekitaldian erregistratutako defizitaren finantzaketa-beharrei erantzuteko erabili ahal izango dutela superabit hori, COVID-19aren osasun-krisiaren ondoriozko diru-sarrerren murrizketaren ondorioz, beren zorpetze garbiaren maila superabit horren zenbatekoan handitu gabe. Horrela, saihestu egiten da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 32. artikulua ezarritako betebeharra, lortutako superabita zorpetze garbiaren maila murriztera bideratu behar izatekoa, eta superabita derrigor zorra amortizatzeko erabili behar izatea, eta, aldi berean, zorra jaulki behar izatea, pandemiaren ondoriozko gastu-premia areagotutako eta diru-sarrerren beherakada estaltzeko ziurgabetasuneko finantza-testuinguru batean.

### 3.3. EUSKADIN HARTUTAKO NEURRIAK ETA TRESNAK

#### 3.3.1. Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak eta tresnak

Martxoaren 13an Euskadin osasun-larrialdiko deklarazioa dekretatu ondoren eta martxoaren 14an Estatu osoan alarma-egoera deklaratu ondoren, Eusko Jaurlaritzak larrialdiko erantzunaren muina aktibatu zuen martxoaren 17tik 24ra bitartean, krisiaren eragin sanitario, ekonomiko eta sozialari aurre egiteko. 1.025 milioi euroko COVID funtsa onartu zuen gauzatu beharreko jardueretarako, eta 841 milioi euroko talka-neurriak aurkeztu zituen. Gero, handitu egin da, eta, zenbait kasutan, zuzkidura hobetu egin da, 1.500 milioi euroko neurri-multzoa osatu arte; izan ere, horrekin Eusko Jaurlaritzak neurri-sorta bat osatzen du, 1.500 milioi eurora iristen dena, eta COVID-19aren osasun, ekonomia eta gizarte larrialdiari Euskadik ematen dion premiazko erantzuna gauzatzen du. Susperraldi ekonomikorako, Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren Urte Anitzeko Plana iragarri zen, eta, oraindik argitaratu ez bada ere, prestatzen ari da.

Eusko Jaurlaritzaren talka-plana Estatuak hartutako neurrien osagarria da, eta urgentziatzko neurri sanitario, sozial eta ekonomikoak antolatzen ditu, bere eskumen-eremuaren eta eskura dituen baliabideen barruan.

Hiru lehentasunek gidatzen dituzte neurriak:

- Osasun-sistemak osasun-krisiari aurre egiteko duen gaitasuna bermatzea, bai eta larrialdi-egoerari aurre egiteko beharrezkoak diren gainerako zerbitzuen ere.
- Behar handiena duten kolektiboei laguntzea eta behar duten pertsona guztientzako gizarte-estaldura bermatzea. Horretarako, gizarte-babeserako euskal sistemaren ahalmen ekonomikoa handitu da.
- Ekonomia- eta ekoizpen-sareari, enpresa txikiei, saltokiei, autonomoei eta osasun-krisiak eragin dien edo eragin dien mota guztietako negozioei laguntzea. Horretarako, neurriak hartu dira euskal negozioei egoerari eusten laguntzeko, halako moduz non beren jarduerari berriro ekin ahalko dioten eta enpleguari eutsiko dioten.

#### 3.3.1.1. Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak

##### 3.3.1.1.1. Osasun Sistema indartzeko neurriak

200 milioi euro bideratuko dira, honako lehentasun hauekin:

- Sendagaiak kudeatzea eta material sanitarioa erostea
- Prebentziozko arreta eta telefono bidezko aholkularitza
- Ospitaleetako osasun-langileentzako laguntza eta etxeko laguntza
- Ospitale-espazioak berrantolatzea eta kutsatutako pertsonak artatzeko gune berriak prestatzea.

##### 3.3.1.1.2. Egoera ahulenean dauden pertsona, familia eta kolektiboei zuzendutako neurriak

Gobernu Kontseiluak martxoaren 24an hartutako erabakiaren bidez, 16 milioi euro gehigarri hornitzen da Enplegu eta Gizarte politiketako Sailaren urteko aurrekontua, **gizarte-larrialdietarako laguntzetarako** esleitua, horrela, 43,5 milioi euroko aurrekontu hobetua izango da eskuragarri, udalen eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez familien egoera ekonomikoak okerrera egitearen ondorioz eskarian izan daitekeen igoerari erantzun ahal izateko eta oinarrizko bizi-beharrak asetzeko.

**Bazterkeriaren aurkako Funts Berezi Berria** abian jartzea, bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonentzako baliabide gehigarriak aktibatuzeko eta krisiak kolektibo kalteberengan duen eraginari aurre egiteko. Larrialdiko funts horrek hiru helburu ditu: osasun-krisiak eta alarma-egoerak etxerik gabeko pertsonen egoeran duten berehalako gizarte-inpaktuari erantzutea; beste erakunde batzuek egoitza-zentroetan eta beste baliabide batzuetan artatutako bazterketa-egoeran dauden pertsonen eskaintzen dieten arreta osatzea; eta eragin sozioekonomikoa murriztea osasun-krisiaren aurretik pobrezia-egoeran zeuden etxeetan eta egoera berean egoteko arriskuan daudenetan, haur-pobrezia arreta berezia eskainiz. Testuinguru horretan, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiari atxikitako lantalde bat sortu zen, krisiak bazterkerian, pobrezian eta kalteberatasun berezian dauden kolektiboengan duen eragin sozial eta ekonomikoari aurre egiteko premiazko jarduketako ildoak identifikatzeko helburuarekin. Funts berri horretara 10 milioi euro bideratuko dira.

**Familientzako laguntzak, lana eta familia bateragarri egiteko.** Lana eta familia bateragarri egiteko lehendik dauden laguntzen osagarriak dira, 15 milioi euroko aurrekontu gehigarriekin; izan ere, laguntza horien baldintzak malgutzen dira eta kopuruak aldi baterako handitzen dira, hezkuntza-zentroak eta adinekoen eguneko zentroak ixtearen ondorioz arlo horretako egoerak eta beharrak areagotzen baitira.

Alde batetik, 16 astera arteko aitatasun- eta amatasun-baimenak parekatzeko programan, malgotu egiten da diruz lagundu daitekeen jarduera osoan zehar gurasoa Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea eskatzen duen baldintza, eta horrela baimena eman ahal izango da baita COVID-19aren ondorioz enpresarekiko lan-harremana eteten denean ere, diruz lagundu daitekeen jardunak irauten duen bitartean.

Bestalde, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko laguntzen zenbatekoak bikoiztu eta malgotu egiten dira, eta eszedentziarako edo lanaldi-murrizketarako laguntzak ematen dira, hezkuntza-zentroak eta arreta-zentroak ixteak ukitutako adingabeak eta/edo mendeko pertsonak zaintzeko edo COVID-19ak kutsatutako edo haren eraginez isolatutako pertsonen senideentzat. Hala, adingabeak zaintzeko laguntzen adina 14 urtera arte luzatzen da, eta laguntza horiek emateko gutxienezko epea malgotu egiten da; epe hori, izan ere, 59 egunetik beherakoa izan ahalko da, baldin eta zentroak ixteko edo artatutako pertsonak isolatzeko egunekin bat badator.

**Eskola-garraioko, laguntza-zerbitzuetako eta jantoki-zerbitzuetako gastuak.** Ikastetxeetako jarduera presentziala etenda geratu zen arren, jantoki-beka jasotzeko eskubidea zuten familiek osorik jaso zuten beren beka, eta ez zuten murrizketarik izan bertaratu gabeko egunengatik. Garraio- eta laguntza-zerbitzuak erabiltzen dituzten familiek ez dute zerbitzu horiengatik ordaindu beharrik izan zentroen itxierak iraun duen aldian. Horren ondorioz, 3 milioi euroko ahalegina egin da aurrekontuan.

**Euskadiko etxebizitza-parke publikoetako etxebizitzaren alokairu-gastuak konpentsatzeko eta etxebizitza libreko alokairua ordaintzeko laguntzak.**

Aldi baterako salbuesten dira alokairua eta komunitate-gastuak ordaintzetik Euskadiko alokairu babestuko parke publikoetako maizter guztiak, COVID-19aren ondorioz egoera ekonomiko ahulean badaude.

Salbuespen horren onuradun izateko baldintzak dira COVID-19aren krisiaren ondorioz langabezian egotea edo, langile autonomoa edo enpresaburua izanik, diru-sarreretan edo salmentetan % 40ko edo gehiagoko beherakada izatea, eta alokairu-errentaren eta komunitate-gastuen eta oinarritzko horniduren batura familia-unitateko kide guztien diru-sarrera garbien % 30 baino handiagoa izatea. Neurria apirilean, maiatzean eta ekainean jarriko da martxan. Aurrekontu-zuzkidura 2,5 milioi eurokoa da.

Etxebizitza Sailak, halaber, 15,5 milioi euro gaitu ditu, koronabirusak sortutako egoera ekonomiko ahulean dauden errentariei etxebizitza libreetako alokairua ordaintzeko laguntzak emateko. Eskaera 2020ko abenduaren 31ra arte luzatu da.

### **COVID-19tik eratorritako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako langileentzako aparteko laguntzak**

Ekainaren 18an Gizarte Elkarrizketarako Mahaian lortutako akordioaren ondoren, uztailaren 7an, soldata baxuenak dituzten eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean (ABEEE) sartuta dauden langileen prestazioaren osagarri bat sortzea onetsi zen Gobernu Kontseiluan, errenten murrizketa hori neurri batean arintzeko eta, ahal den neurrian, haien premiei erantzun ahal izateko bizi-mailari eusten laguntzeko.

Aparteko laguntza hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren deialdi baten bidez ematen da, eta 15.466.500 euroko aurrekontua du. ABEEE baten pean dauden eta urtean 20.000 eurotik beherako kotizazio-oinarria duten pertsonen zuzenduta dago. Laguntza hilean 150 euroko osagarria izango da % 50etik gorako lanaldia dutenentzat, edo hilean 100 eurokoa % 50etik beherakoa dutenentzat.

Enplegu-erregulazioko espedienteak Estatuan 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatzea erabaki zenez, Euskadiko Elkarrizketa Sozialeko Mahaiak erabaki zuen irailaren 29an enplegu-erregulazioko espedienteen osagarria 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatzea.

Enplegu-erregulazioko espedienteen eta lanpostuetarako itzuleren bilakaeraren arabera kopurua aldatu egingo bada ere, horiek sortu zirenean, osagarriaren onurak 44.000 pertsona ingururentzat izan zitezkeela kalkulatu zen. Irailaren 30ean, Lanbidek 7.600 eskaera erregistratu zituen.

#### **3.3.1.1.3. Enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei zuzendutako neurriak**

### **MikroETEentzako, ETEentzako eta autonomoentzako 0 kostuko premiazko finantzaketa-lerroa (FEIren COVID-19 lerroa)**

Eusko Jaurlaritzak, Elkargirekin batera, eta Finantzen Euskal Institutuaren bidez, martxoaren 24an zuzeneko 25 milioi euroko premiazko finantzaketa-lerro bat aktibatu zuen autonomoei, ETEei eta mikroETEei laguntzeko. Horren helburua da krisiak haien finantzetan izandako eragina arintzea, likidezia-tentsioak estaltzen lagunduz eta, horrela, diruzaintzaren kolapsoa saihestuz.

“Zubi” tresna gisa sortu zen, Eusko Jaurlaritzak ere aurreikusitako abaldun zirkulatzailaren finantzaketa-lerroa abiarazteko prest egon arte erabiltzeko.

Finantzaketa hori enpresaren ohiko funtzionamenduko sei hilabeteen baliokideak diren egitura-gastu finkoak estaltzeko erabil daiteke, baliatu ahal izan diren erraztasunak kenduta, hala nola geroratze fiskalak edo ABEEEn aplikatzearen ondorioz lan-kostuak gutxitzea.

Mailegua 0 interesekoa da mailegu-hartzailearentzat; izan ere, interesa urteko Euribor+% 0,5 izango du, baina Eusko Jaurlaritzak hartzen du bere gain, Finantzen Euskal Institutuaren bidez.

### **Zirkulatzaila finantzatzeko lerroa ETEentzat, mikroETEentzat eta autonomoentzat**

Gobernu Kontseiluak, martxoaren 31n, argi berdea eman zion zirkulatzaila finantzatzeko lerro bat aktibatzeari, enpresa txiki eta ertainei eta autonomoen kolektiboari laguntzeko. Helburua da horrelako operadore ekonomikoek kreditua eskuratzeko dituzten zailtasunak gainditzea, eta 6 hilabeteko likidezia- eta zirkulatzaila-beharrak ase ahal izatea.

Euskadin diharduten finantza-erakundeen eta Elkargiren lankidetzarekin jarri da abian lerroa, eta kreditu-eragiketei abala emango die, horiek bermatu eta errazteko.

Lerro honen bidez finantza daitezke 6 hilabeteri dagozkien egitura-gastuak finantzatzeko eta likidezia-beharrak estaltzeko xedea duten finantzaketa-eragiketak. Finantzaketa horrek enpresa eskatzailearen finantza-eskagarriaren gehikuntza garbia ekarri beharko du, eta, horregatik, ezin izango da erabili epe laburreko zirkulatu-lerroak ezerezteko, COVID-19aren krisiaren babesean 2020ko martxoaren 1etik aurrera ezarritako eragiketak izan ezik. Hartzaileak ETEak eta autonomoak dira, kolektibo horiek ahalmen txikiagoa dutelako handizkako finantzaketa-merkatuetan edo kreditu-erakundeen lerro tradizionaletan sartzeko.

Lerroak 500 milioi euroko zenbatekoa izan zuen, eta apirilaren 24an 500 milioi eurora igo zen, eskaera handia izan zelako.

Maileguak autonomoentzako duen gutxieneko zenbatekoa 5.000 eurokoa da, eta gehienez 50.000 eurokoa. Enpresa txiki eta ertainentzat, gutxienezko kopurua 50.000 euro da eta gehienezkoa milioi bat euro.

Gehienezko epea 5 urtekoa da, eta 12 hilabete arteko gabealdia du.

ICO abalen lerroaren osagarria da, baina baldintza hobeean; izan ere, Eusko Jaurlaritzak, abala bere gain hartzeaz gain, haren kostua bere gain hartzen du, onuradunek mailegua zero interesean eta amortizazio- edo ezerezte-komisiorik gabe har dezaten. Eusko Jaurlaritzak abalaren komisioaren % 50 ere diruz laguntzen du.

**Norberaren konturako langileentzako edo langile autonomoentzako aparteko laguntzak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez emanak, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren kudeaketarako alarma-egoera deklaratzearen ondorioz jarduerak etenda geratu badira.**

Martxoaren 24an, langile autonomoentzako laguntza-lerro bat iragarri zen, izandako galera ekonomikoak arintzeko eta jarduerari eusten laguntzeko, alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz negozioak eta jarduerak aldi baterako itxi behar izan zituztelako.

Apirilaren 15ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian kolektibo horri zuzendutako aparteko laguntzen deialdia argitaratu zen, eta gehienez 3.000 euroko laguntzak eskaini ziren onuradun bakoitzeko. Diruz laguntzeko kontzeptuak honako hauek ziren: alarma-egoera amaitu eta hurrengo bi hilabeteetako Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubide Bereziko edo Itsasoko Langileen Araubide Bereziko kotizazioa ordaintzeari dagozkion kuotak eta martxotik hasi eta alarma-egoera amaitu eta hurrengo bi hilabeteetara bitarteko aldiari dagozkion negozio-lokalen alokairuak.

Deialdira bideratutako baliabide ekonomikoaren zenbatekoa 3 milioi eurokoa izan zen. Zenbateko hori ez zen nahikoa izan, deialdira aurkeztutako laguntza-eskaeren kopurua oso handia baitzen; izan ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ulertu zuen langile autonomoentzako laguntza areagotzeko beharra adierazten zuela horrek. Deialdian aurreikusten zen zuzkidura handitu ahal izango zela, baldin eta eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik aurrekontu-aldaketak onartzen baziren, eta hala gertatu zen. Maiatzaren 20an, Lanbideko Administrazio Kontseiluak erabaki zuen deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak 13 milioi eurotan handitzea; beraz, deialdiaren azken zuzkidura 16 milioi eurotan geratu zen.

## Urgentziako neurriak eta programa berriak Industriaren eta Garapen Ekonomikoaren arloan

Esparru horretan, Gobernu Kontseiluak urgentzia handiko bi jarduera-ildo onartu zituen martxoaren 24an: bat, teknologiari eta telelanari buruzkoa, eta bigarrena, industriari eta ETEen zeharkako finantzaketari buruzkoa. Halaber, nekazaritza- eta arrantza-sektoreei zuzendutako neurriak ere hartu ziren.

Ikerketa, teknologia eta telelana.

### 1. Inplantalariak

Helburua da telelana ezartzearen arloko profesional teknologikoen talde batek aholkularitza telematikoko zerbitzu bat jartzea autonomoen eta enpresa txiki eta ertainen eskura, haiei teknologia erabiltzen laguntzeko, lana beren etxetik egiten jarraitu ahal izan dezaten. Zuzkidura 390.000 eurokoa izan zen.

### 2. Material teknologikoa erosteko laguntzak

Enpresetan EIKTak ezartzeko % 50eko dirulaguntza emango da, enpresaren tamainaren arabera. Helburua da elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologiak sartzea industria-enpresetan eta industria-produktuari eta -prozesuari lotutako zerbitzu teknikoen, diseinuaren eta logistikaren enpresetan, enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin. 2.360.000 euroko zuzkidura du.

### 3. COVID-19aren aurkako proiektuak ikertzeko laguntza

Milioi bat euroko aparteko laguntza, bai Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek bai enpresek koronabirusaren aurkako borrokarekin lotutako proiektuak ikertzeko eta garatzeko, bai eta osasun-larrialdiaren ondorio sozioekonomikoak arintzeko eta susperraldia bultzatzeko ere.

Industria eta ETEentzako zeharkako finantzaketa

### 4. Laguntzen itzulketa atzeratzea

Hurrengo sei hilabeteetan sortzen diren aurrerakin itzulgarri gisa emandako laguntzen itzulketa geroratzea onartzen da, enpresa onuradunek jarduerarik gabeko aldiak, salmenten beherakada edo hornidura-katean etenak izan dituztenean edo jasaten ari direnean, eta, ondorioz, laguntza itzultzea zailtzen denean. Honako hauek dira ukitutako programak: Gauzatu-Industria, Bideratu eta Bideratu Berria,

### 5. Indartu programa ordaintzeko aurrerakinak

Jasotzen du aurreratu ahalko dela Indartu programako eremu behartsuetan inbertsio industrialak egiteko itzuli beharrik gabeko laguntzaren onuradunari ordaindu beharreko zenbatekoa; izan ere, ordainketa hori geroago egin beharko zen.

### 6. Bideratu COVID-19 programa berria abiaraztea

Laguntza-programa berri bat sortu da, Bideratu COVID-19 izeneko, berariaz COVID-19aren ondorioz krisian dauden enpresak berregituratu eta bultzatzeko. Helburua da enpresa edo sektore lehiakorrek, produktua eta merkatua dutenek, ustekabeko egoera global hau gainditu ahal izatea. Laguntzaren zenbatekoa 2020ko ekitaldirako aurrekontuan jasotako kutxako fluxu negatiboaren % 100era iritsi ahalko da, 800.000 euroko mugarekin. Laguntza aurrerakin itzulgarrien bidez gauzatzen da, eta hogeita langile baino gehiago dituzten ETEei zuzenduta dago. Laguntzaren zenbatekoa eta intentsitatea mugatuko dira konpainiaren konpainiaren berregituraketa edo bideragarritasuna ahalbidetzeko diru-sarreraren eta gastuen partiden bilakaeraren ondoriozko ordainketa-ahalmenean gertatutako aldakuntzara. Programaren zuzkidura 20 milioioika da.

7. Euskadiko parke teknologikoetan eta SPRILUR industrialdeetan alokairuak atzeratzea  
Euskadiko parke teknologikoetan eta SPRILUReko industrialdeetan instalatutako enpresen alokairuaren kobrantza atzeratzeko neurria, enpresek dagozkien zenbatekoak erabili ahal ditzaten. Atzerapena hiru hilabetez izango da, eta beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da.
8. Elikagaien sektoreko soberakinak estaltzeko programa.  
6 milioi euro bideratuko dira lehen ekoizpeneko produktu galkorren (arrantzakoak, nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak edo dagoeneko biltegituta daudenak) ekoizpenetik soberakinak erosten laguntzeko, ostalaritzaren eta jatetxeen sektoreari banatzeari begira, kudea daitezen eta merkatura ateratzeko modua arautu dadin. Euskadin elikadura-estrategiari eusteaz gain, elikaduraren balio-kateko enpresei lagundu nahi zaie, egoera zailean dauden ostalaritza- eta jatetxe-sektorea ixteak eragindako zailtasunengatik.
9. Arrantza-, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreei lotutako Sendotu eta Ikerketa programei dagozkien kredituen itzulketak eta alokairuen ordainketak geroratzea.

### **Merkataritzaren eta turismoaren arloko neurriak**

- Euskal merkataritza-sektorearentzako "Covid" laguntzak

Neurriaren helburua da EAEko txikizkako merkataritza babestea eta zuzenean euskarri ekonomikoa ematea, batez ere norberaren konturako langileak edo autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak, COVID-19aren inpaktua minimizatzeko eta merkataritza-jarduerari ahalik eta azkarren berrekitea ahalbidetzeko.

Zuzenduta dago COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzaren ondorioz, 2020ko martxoaren 14tik apirilaren 13ra bitartean hileko diru-sarrerak guztiz eten edo gutxienez % 75ean —2019ko aldi berarekin alderatuta edo, bestela, alarma-egoera deklaratu aurreko hilabetearekin alderatuta— murriztu zaizkien enpresei zuzenduta dago.

delako (% 7,2 jaitzi da, zerga nagusien arteko atzerakadarik txikiena); izan ere, sozietateen gaineko zergak % 33ko beherakada izan du. Ondarearen gaineko Zergak, bere aldetik, % 41,7raino jaitzi du bilketa (kopuru osoaren % 1,1 baino ez da), eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak % 5,4ko jaitziera izan du. *Zeharkako zergei* dagokionez, bilakaera negatiboa izan da bilketa osoaren aldean (gutzizkoaren -% 19,3 eta -% 16,5, hurrenez hurren). Hala, BEZaren bilketa % 18,5 jaitzi da 2020ko lehen bederatzir hilabeteetan, eta fabrikazioagatik zerga bereziak, berriz, % 22,2 jaitzi dira (bien artean zeharkako bilketaren % 95,5 egiten dute).

Bestalde, 2020ko ekainaren 30ean, Euskal Sektore Publikoaren gastuak 8.434,5 milioi eurokoak ziren, aurreko urtean baino % 15,8 gehiago. Gastuaren hazkundera bereziki handia izan da Eusko Jaurlaritzan (+% 15,8), eta txikiagoa, berriz, foru aldundietan (+% 2,4). Azken ekitaldietako aldean oso gora egin duen lehen partida transferentzia arruntei dagokiena izan da (+% 17,3), batez ere Eusko Jaurlaritzak transferentzia horiek asko handitu dituelako (+% 17,3), ziur asko familien eta enpresen behar ekonomiko handiagoak direla eta. Gainera, sektore publiko osoaren zorpetze garbiak 1.000 milioi euro baino gehiago egin du gora 2020ko lehen sei hilabeteetan, 2019ko amaierarekin alderatuta (437,6 milioi eurora iritsi da, 2019ko amaieran ia 700.000 milioitan negatiboa izan ondoren), aurreko bost urteetan behera egin ondoren. 2019ko ekainarekin alderatuta, urte arteko tasa % 44,3 jaitzi da.

Horren guztiaren ondorioz, 2020ko ekainaren 30ean 1.628,8 milioi euroko defizit publikoa (finantziazio premia) erregistratu da Euskadin (BPGd-aren % 4,7); izan ere, gastu ez-finantzarioek (arruntak gehi kapitalekoak) izaera bereko diru-sarrerak oso nabarmen gainditzen dituzte. 2019ko ekitaldian, 689 milioi euroko superabita izana zen.

---

#### 4.1.2. Lan-merkatua

COVID-19ak ukitutako alderdien artean, eta eskariaren beherakadaren eta ekoizpenaren murrizketen ondorioz, lan-merkatua aipatu behar dugu. Enpleguaren gaineko eragin hori oso garrantzitsua da pandemiaren lehen uneetatik, martxotik, eta areagotu egin da atal honetan aztertzen diren 2020ko hiru hiruhilekoetan.

Lehenik eta behin, **jarduera-tasak**, berez, baxuak dira gure erkidegoan, eta nabarmen murriztu dira hiru lurraldeetan, bi sexuetan eta adin guztietan, Eustaten BJAren (Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta) datuen arabera. Nabarmenezkoak dira 25 urtetik beherakoen beherakada bereziki garrantzitsua, 2020ko urtarrietik irailera bitartean 2,6 puntu galdu baitituzte: emakumeek 2 puntu galdu dituzte eta Arabako lurraldeak, berriz, 2,9 puntu galdu ditu. Hala ere, lurraldekako ratioa handiagoa da, tasa orokorra baino bi puntu handiagoa, hirugarren hiruhilekoan % 54,5ean geratu baita. Jarduera-mailen beherakada horren ondorioz, azken hiruhilekoan pertsona ez-aktiboen kopuruak gora egin du, 849.600 izateraino, hain zuzen ere 2019ko amaieran baino 40.000 gehiago. Urtetik urterako igoera, berriz, 52.100ekoa izan da (+% 6,5).

Bigarrenik, **okupazioak** nabarmen egin du behera; betiere, lan-lotura mantentzeko bide gisa ABEEE-etan sartzeko aukera egon izan ez balitz gerta zitekeena baino gutxiago. Urteko hirugarren hiruhilekoan 916.300 pertsona ari dira lanean, 2018ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Urte arteko aldakuntzari dagokionez, Euskadiko biztanleria landuna (zeina 2019an % 1,1 hazia baitzen) 42.000 pertsonatan murriztu da 2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (% 4,4), aurreko hiruhilekoan baino gehiago (-% 3,9), orduan hasi baitziren nabaritzen pandemiaren ondorioak lan-merkatuan. Sexuaren arabera, gizonen okupazioa emakumeena baino gehiago jaitzi da bigarren hiruhilekoan (-% 4,4 eta -% 3,2, hurrenez hurren), eta hirugarren hiruhilekoan, berriz, bi sexuek beherakada bera izan dute (-% 4,4). Adin-taldeka, apirila eta ekaina bitartean okupazioa galdu duten arren, hirugarren hiruhilekoan murriztu egin da gazteenen (-% 11,8) eta tarteko adinekoen (-% 8,9) enplegua; 44 urtetik gorakoen kasuan, berriz, igoera txikia izan da (% 0,5); aurreko hiruhilekoan, ordea, % 0,7 jaitziera gertatu zen.

Jarduera-sektoreen arabera, atzerapen handienak zerbitzuetan gertatu dira (-% 4,9ekin, alegia, bigarren hiruhilekokoan, -% 4,2, baino okerrago), eta ondoren industrian (-% 2,4) (halaber, bigarren hiruhilekokoan baino gehiago, orduan % 1,9 jaitsi baitzen). Eraikuntza, bestalde, % 1,4 jaitsi da. Soldatapekoak kontuan hartuta, aldi baterako enpleguan finkoan baino portaera okerragoa ikusten da: aldi baterako enplegua % 11,2 murriztu da, eta kontratu mugagabea duten soldatapekoak, berriz, % 0,3 jaitsi dira. Eta, egoera profesionalari dagokionez, autonomoek goranzko saldoaren tasa negatiboak pilatu dituzte hiru hiruhilekotan: hirugarrenean -% 8,1ekoa izan da tasa hori. Sektore pribatuko soldatapekoen kopurua % 5,7 jaitsi da, aurreko hiruhilekokoan baino puntu bat gehiago; sektore publikoan, berriz, bost hiruhileko izan dira datu positiboekin. Gainera, azken hiruhilekokoan igoera % 4,3koa izan da, aurreko bi hiruhilekoetan baino bi puntu gehiago.

Jardueraren eta enpleguaren bilakaeraren ondorioz, **langabezia-tasa** orokorra % 10ekoa izan da 2020ko hirugarren hiruhilekokoan; 2019. urtea, ordea, % 9,5eko ratioarekin amaitua zen. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, ordea, 8 hamarren murriztu da, arestian aipatu dugun biztanleria aktiboaren beherakadaren ondorioz. Gazteenen kasuan izan ezik, susperraldi txiki bat izan da (langabezia-tasek behera egin dute) bigarren hiruhilekoarekin alderatuta; izan ere, 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, okertzea orokorra eta garrantzitsua izan zen.

Bestalde, EINEko Biztanleria Aktiboaren Inkestak, 2020ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, etxean bertan egindako lanari buruzko galderak gehitu ditu, halakorik egitea ohikoa izan ez arren (normalean, azpilaginaren aldagaien barruan urteko emaitzekin baino ez dira argitaratzen), eta galdera horiek pandemiaren ondorioz lan-merkatuan eragina duten fenomenoetatik beste bat, telelana, kuantifikatzeko aukera eman digute.

Zifra horiek erakusten dute 2020ko bigarren hiruhilekokoan (konfinamendu-egun gehienak hartzen dituen aldia) 145.800 pertsonak, biztanleria landunaren % 16,2k, lan egin zutela Euskadin etxetik, aurreko urtekoaren bikoitza baino gehiago. Sexuaren arabera, emakumeen tasa gizonena baino zertxobait altuagoa da (% 16,5 eta % 6, hurrenez hurren), baina aurreko urtean telelanaren tasa altuagoa zuten gizonak (% 8,9 gizonak ziren eta % 6,6 emakumeak). Hirugarren hiruhilekokoan, langileen zati handi bat beren lanpostuetara itzultzean, etxetik lan egiteari buruzko tasa orokorrak 4 puntu jaitsi dira, aipatutako % 16,2tik % 12,2ra, eta, gainera, osaera aldatu egin da; izan ere, noizbehinka telelana egiten dutenen ehunekoa handitu da (% 3,6tik % 4,6ra), eta telelanaren tasa asteko egunen erdia baino gehiago murriztu da (% 12,6tik % 7,6ra). Datu horiek Estatuko batez bestekoarekin alderatuz gero, ikus daiteke telelana neurri txikiagoan erabiltzen dela gure erkidegoan, eta alde horrek gora egin duela 2020an; hirugarren hiruhilekokoan, izan ere, ehuneko 4,6 puntura iritsi da.

**Gizarte Segurantzako afiliazioari** dagokionez, EAEk 2019. urtea guztira 980.592 afiliaturekin amaitu zuen, aurreko urtean baino % 1,9 gehiago. Pandemiaren ondorioz, afiliatuen kopuruak behera egin du apiriletik. Lurraldeka, beherakada handienak Araban izan dira apirilean, maiatzean eta ekainean; ekainean -% 4ra iritsi da beherakada hori. Uztaila eta iraila bitartean, hiru lurraldeek hartzen dute parte afiliazio galeraren dezelerazioan: irailean guztiak -% 1,6ko batez bestekoaren inguruan daude.

Sexuaren araberako analisiari erreparatuta, beherakada arinagoa izan da emakumeen artean (-% 0,8) gizonen artean baino (-% 2,3), sektoreen araberako parte-hartzea desberdina delako. Industriak gizonetzkoen presentzia du gehienbat eta azken hilabeteetan ez du ia hobekuntzarik izan (-% 4,2 iraileko urte arteko tasan). Bestalde, zerbitzuetan, emakume langileen ehunekoa oso handia da, eta urtetik urterako jaitsiera nabarmen txikiagoa da (-% 1,2). Afiliazioaren susperraldia administrazio publikoari lotutako adarretan izandako gorakadari zor zaio: osasuna, hezkuntza eta administrazio publikoa (% 2,9ko, % 1,9ko eta % 0,6ko igoerak, hurrenez hurren). Manufakturen industrian, ostalaritzan eta merkataritzan, berriz, pandemiaren ondorioak jasaten jarraitzen dira: -% 4,2, -% 6,5 eta -% 2,1 hurrenez hurren.

**Erregistratutako langabeziari** dagokionez, martxoan langabeziak % 8,7 egin zuen gora urte arteko kopuruari erreparatuta. Hurrengo hilabeteetan, urtetik urterako ratioak gero eta handiagoak dira, nahiz eta, dirudienek, azken datuak, irailekoak, +% 27,4koak (aurreko hilean baino 1,2 puntu gehiago), azelerazio hori egonkortu egiten duen, aurreko

hilabetearekiko saldoa negatiboa baita (-1.692). Zenbaki absolutuetan, 144.758 langabe zenbatu dira, otsailean baino 27.500 gehiago. Gainera, langabezian ez dauden baina enplegua eskatzen duten 349.725 pertsona badaude; beraz, guztira 494.483 pertsona daude enplegu eske, 2019ko abenduan baino % 77,5 gehiago, eta iaizko irailean baino % 77,3 gehiago. Hala, 2019ko abendutik, langabeek enplegu eskatzaileen guztizkoan duten pisua % 41etik % 29,7ra jaitsi da.

**Kontratazioari** dagokionez, 2020ko urtarriletik irailera 507.641 lan-kontratu metatu dira, 2019ko epe berean baino % 32,1 gutxiago. Gainera, kontratu mugagabeak kontratu guztien % 8,8 dira; 2019ko kontratazio mugagabeen tasa, berriz, % 8,3koa izan zen. Bestalde, lanaldi partzialeko kontratuen tasak guztizkoaren % 38,1 dira: % 50,4 emakumeen kasuan eta % 26,2 gizonen kasuan; 2019an, berriz, % 40,3, % 53,4 eta % 27 izan ziren, hurrenez hurren.

2020ko urtarrila eta iraila arteko metatuaren eta 2019ko aldi beraren arteko konparazioan, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, manufaktura-industriaren kontratazioaren beherakada: kontratuen guztizkoa % 33,7 murriztu da, batez bestekoa (-% 32,1) baino zertxobait gehiago, baina jarduera horrek EAEko ekonomiarentzat duen garrantzia kontuan hartuta (2019ko kontratu guztien % 14,3), horrek esan 37.500 kontratazio baino gehiago galdu direla aurtan eta guztizko kontratazioan puntu erdiko beherakada izan dela. Bigarrenik, beherakada handienak honako hauetan gertatu dira: ostalaritzako jardueretan (-% 56,8, 2019ko urtarrila-irailarekin alderatuta), arte, aisialdi eta aisialdiko jardueretan (-% 54,7), hezkuntzan (-% 40,9) eta Administrazio Publikoan (-% 40,2). Aldiz, gutxi murriztu dira (kontratazioen beherakada orokorra baita) eta, beraz, pisu handiagoa hartu dute guztizkoan, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak (-% 16,3), merkataritza eta garraiokoeak (-% 16,5 eta -% 16,6, hurrenez hurren) eta eraikuntzakoak (horien kontratazioa % 19,2 murriztu da).

**Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak** (ABEEE) erabiltzeari esker, nahiz eta berez tresna berria ez izan, pandemiaren aurrean langileen babesari eutsi ahal izan zaio, eta plantillen malgutasuna erraztu da, ekonomiaren geldiarazteak berekin zekarren ziurgabetasuna dela eta.

LHK-k nabarmentzen du, lehenik eta behin, martxoa eta ekaina bitartean, EAEko sektore pribatuko soldatapekoen heren bat, gutxi gorabehera, enplegu-erregulazioko espediente (EEE) baten eraginpean egon zela uneren batean, nahiz eta ekaina amaitzean horien % 60 beren lanpostuetan berriz hasi ziren. Pertsona horietako ia-ia guztiak, 199.056 langile, ABEEE baten (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak) pean egon ziren; izan ere, % 0,4 baino ez ziren izan lan-harremana azkentzeko espediente bat jasan behar izan zutenak. Ezinbesteko kasuarengatik espedienteak guztizkoaren % 90,2 izan ziren.

Horrez gain, Gizarte Segurantzaren apirilko buletinean argitaratzen hasi zen ABEEE-en pean geratutako langileen zifrak. Hilabete horretan, EAEn 152.872 pertsona erregistratu ziren, eta horietatik % 90,3 ezinbesteko kausarengatik espedienteetan zeuden. Zenbateko hori ia % 50ean banatzen da gizonen eta emakumeen artean. Orain arte eskuragarri dagoen hileko serieko zifra maximoa da, zeinak ordutik, hilabetez hilabete, behera egin baitu; hala, irailean 25.046 pertsona zeuden ABEEE baten pean, abuztuan baino % 11,7 gutxiago eta apirilean baino % 83,6 gutxiago.

Bestalde, EINen Lan Kostuen gaineko Hiru Hilean Behingo Inkestak (LKHBI izena duena) gure erkidegoko **soldaten bilakaera**ren koiunturazko hurbilketa bat ematen du. EAEko hileroko lan-kostua, 2020ko II. hiruhilekoan (erabilgarri dagoen azkena), 2.858,8 eurokoa da, Estatuko batez bestekoa baino % 17 handiagoa. Kostu hori % 6,3 jaitsi da 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta, eta Estatuan, berriz, % 8,3 egin du behera. Gauza bera gertatu da soldaten kostuekin: % 8,4 murriztu dira EAEn eta % 9,4 Estatuan. Azken hiruhileko honetako portaera ratio positiboan azken joeraren kontrakoa da, eta lan-kostuen eta soldaten beherakada nabarmena erakusten du.

Pandemiaren ondoriozko langabeziaren aurkako babesari eta jarduera eteteari dagokionez, lehenik eta behin, 2020ko abuztura arteko langabezia-prestazioen onuradunen kopuruari buruzko datua daukagu (eskuragarri dagoen azkena), Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren datuen arabera. Hilabete horretan, guztira 92.494 pertsonak jaso zituzten

prestazio horiek EAEn, uztailen baino % 6,4 gutxiago eta 2019ko abuztuan baino % 61,7 gehiago. Horietatik 69.533 (% 75,2) kotizaziopekoak dira, 20.719 (% 22,4) sorospenak dira eta gainerako % 2,4a Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren onuradunei dagokie.

EAEk prestazio horien % 51ko estaldura-tasarekin amaitu zuen 2019. urtea. Sexuaren arabera, gizonezkoen tasa % 59,4koa zen eta emakumezkoena % 48,4koa. 2020ko abuztuan, prestazioen onuradunen kopurua (92.494) 2019ko abenduaren ia bikoitza izan zen (+% 80,4), eta estaldura ere nabarmen handitu zen, % 71,9raino (Estatuko batez bestekoa % 82,3 izan zen). Sexuaren arabera, bilakaera positiboa izan da bietan: emakumeen artean, batez ere, gora egin du, eta, beraz, haien tasak (% 72,6) gizonena gainditzen du puntu eta erdian, nahiz eta tradizioz gizonezkoena handiagoa izan den.

Langabezia-prestazioen zenbatekoari dagokionez, kontribuzio-prestazioaren batez besteko zenbatekoa 805,7 eurokoa izan zen abuztuan EAEn, 2019ko abenduan baino % 10,8 gutxiago. Estatuan, oro har, 792,3 eurokoa da zenbateko hori, eta aurrean ere murriztu egin da, baina neurri txikiagoan: zehazki, % 7,5. Ondorioz, 2019. urtearen amaieran EAEko zenbatekoa Estatuko batez bestekoa baino % 5,4 handiagoa zen, eta 2020ko abuztuan, berriz, % 1,7 handiagoa izan da.

Bigarrenik, Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren buletinek aukera ematen dute jakiteko zenbat diren **ABEEE-en ondoriozko prestazio kontributibo**en onuradunak apiriletik abuztura arte (hileko batez besteko datuak). Apirilean ABEEE-en ondoriozko prestazio kontributiboaren maximoa erregistratu zen Euskadin, 110.523 guztira, ia % 50ean banatuta gizon eta emakumeen artean; horietatik 97.189 (% 87,9) enplegua eteteagatik prestazioei dagozkie, eta 13.334 (% 12,1) langabezia partzialagatik prestazioei. Ordutik aurrera, zifra horiek murriztu egin dira bi sexuetan eta bi prestazio-motetan; beraz, abuztuan, informazioa dagoen azken hilabetean, prestazioen gutzizkoa (27.371) hasierako zifra baino % 75,2 txikiagoa da.

Eta, prestazio horietarako hasierako alden hileroko kopuruari erreparatzen badiogu, zifrek honako bilakaera hau izan dute: apirilean 137.289 alta erregistratu ziren, eta abuztuan, berriz, 9.622. Are nabarmenagoa izan da egoera horretan dauden pertsonak ABEEEak babesteko mekanismoetatik pixkanaka irteteko prozesua.

---

#### 4.1.3. Gizarte-eremua

Oso zaila da COVID-19ak gure gizartean eta, oro har, gure munduan izan dezakeen giza eta gizarte eragina zenbatekoa; izan ere, ziurgabetasun zientifiko eta ekonomiko handiak ditugu aurrean, eta ziur aski ezin izango dira konpondu urte batzuk igaro arte. Epe laburrean, pertsonen osasunean duen eraginaren zifrak eta asistentzia-sisteman duen isla ezagutzen ditugu. Pertsonen bizi-baldintzetan daukan islari dagokionez, datozen hilabete eta urteetako bilakaera ekonomikoak benetako eragina izango du gure ongizate-sisteman.

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren **“Koronabirusaren Egoera Epidemiologikoa Euskadin”** txostenaren arabera, martxotik irailaren 28ra bitarteko datuekin, ikus daiteke COVID-19ak 49.475 kasu eragin dituela gure erkidegoan pandemia hasi zenetik. Horietatik, 27.104 emakumeak dira eta 22.338 gizonak: % 54,8 eta % 45,2, hurrenez hurren. Adinaren arabera, positiboak hiru herenetan banatzen dira, gutxi gorabehera: 40 urtetik beherakoak, 40 eta 60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak. Hala ere, heriotzak (1.898 inguru) 60 urtetik gorakoaren artean baino ez dira gertatu; adin-tarte horietakoek, izan ere, heriotzen % 96,9 pilatu dituzte, eta horietatik % 71k 70 urte baino gehiago zituzten. Heriotzen banaketa kontuan hartzen badugu, ugariagoak izan dira gizonen artean; izan ere, gizonen hilgarritasun-tasak handiagoak dira adin-talde guztietan. Hilgarritasunaren batez besteko indizea kasu positiboaren % 3,8 da: % 3,5 emakumeentzat eta % 4,2 gizonentzat. Adinaren arabera, ratioak handitu egiten dira adinarekin, hilgarritasuna % 20 baino handiagoa baita 80 urtetik aurrera (heriotzak % 27,5 arte izan dira zortzi urteko gizonen artean) eta % 28 90 eta gehiagoko pertsonen artean (% 38,7 gizonen artean).

**Asistentzia-datu**ei dagokienez, irailaren 28ra arte, COVID-19aren ondorioz EAEn 12.100 ospitaleratze orokor izan dira guztira, eta horietatik 993 ZIUetan. Ospitaleetan izandako heriotzak 1.267 dira.

Osasun-inpaktu horren ondorioz, eta batez ere pandemiaren lehen etapetan, egoera ustekabekoa izatearen ondorioz norbera babesteko baliabiderik egon ez denez, osasun-langileak dira COVID-19ak gehien erasandako lan-taldea, osasunari dagokionez. Zaintza Epidemiologikoko Sare Nazionalak (RENAVE) eta Carlos III.a Osasun Institutuak jakinarazi dutenez, SARS-COV-2aren alerta hasi zenetik maiatzaren 10era arte COVID-19aren 40.961 kasu jakinarazi ziren osasun-langileen artean, hau da, Estatuan aitortutako kasu guztien % 24,1. Hainbat iturriren arabera, antzeko intzidentzia dago EAeko osasun-langileen artean, eta, ondorioz, kalkulatu genuke Euskadin, maiatzera arte, 3.100 inguru izan direla kaltetutako osasun-profesionalak. Txosten horren arabera, osasun-langileen artean, COVID-19aren kasuen % 76,5 emakumeak dira, eta adinaren mediana 46 urtekoa da; gizonen artean, berriz, zertxobait handiagoa da, 47 urtekoa.

Bestalde, Carlos III.a Osasun Institutuak (ISCIII), Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren mendekoak, **Eguneroko Hilkortasunaren Monitorizazio Sistema (MoMo)** kudeatzen du Espainian, eta EAEn 2020an gehiegizko hilkortasunaren bialdi hautematen ditu, eta horien analisiak pandemian hildako pertsonen profilarik buruzko informazio garrantzitsua ematen du: gorune oso nabarmena ageri da lehen egunetan, martxoaren 15etik apirilaren 23ra bitartean, eta beste bat arinagoa irailaren 10etik 20ra bitartean. Kalkuluen arabera, gehiegizko heriotzak 1.449 eta 160 izan dira, hurrenez hurren, eta gehiegizko heriotzen tasak espero zirenak baino % 59,5 eta % 27,1 handiagoak izan dira. Sexuaren arabera, bialdi horietan gehiegizko heriotzen tasa handiagoa da gizonentzat, eta adinarekin batera areagotu egiten da. Iraileko agerraldian, bestalde, gehiegizko heriotzak 65 urtetik aurrera baino ez dira hautematen.

Bestalde, IMSERSOK bere kalkulu propioak egiten ditu **Mendekotasunaren Arretarako Sistemak (SAAD)** artatutako kolektiboan COVID-19ak izan duen eragin demografikoari buruz, artatzen duen kolektiboarentzat espero den gehiegizko hilkortasunaren kalkularen bitartez, Carlos III.a Osasun Institutuak biztanleria osoarentzat dituen zifrekin ikusi den bezala.

2020ko martxotik uztaile bitartean, 4.534 pertsona hil dira EAeko Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren, uste baino 1.088 gehiago; beraz, gehiegizko hilkortasuna % 31,1ekoa izan da (% 44,8 Estatu osoan). Apirileko gehiegizko heriotzak, berriz, aztertutako gainerako hilabeteetan baino askoz izan dira (% 106,7). Gainera, hildako 1.088 pertsonetatik, 627 (% 57,6) egoitzetan bizi ziren (% 55,6ko gehiegizko hilkortasuna gertatu da haietan) eta 461ek (% 42,4) mendekotasun-sistemaren prestazioren bat edo batzuk jasotzen zituzten beren etxeetan; beraz, edo etxeetan edo ospitaleetan hil ziren (kolektibo horrek hilkortasun-tasa askoz txikiagoa du, % 19,7koa).

Informazio hori ikusita, ondoriozta daiteke egoitzetan bizi ziren eta gehiegizko hilkortasuneko datuetan —ziur aski COVID-19aren ondorioz— dauden mendeko 627 pertsonetatik ia guztiak adinekoak zirela (gogora dezagun 80 urtetik gorako kolektiboaren % 80 baino gehiagokoa dela datu orokorra). Hala ere, kopuru horretan desgaitasunagatik egoitzetan bizi ziren pertsona gazteagoak ere sar daitezke, adibidez.

**Gizarte-babesari** dagokionez, agerikoa da COVID-19ak bizi-baldintzetan duen eragin negatiboak nabarmenkiago ukituko duela gure erkidegoko gizarte-babeseko sistema; hain zuzen ere, pobrezia- eta bazterketa-egoerak hain modu eraginkorrean murriztea lortu duen babes-sistema. Hala ere, denbora bat igaro beharko da hori datu ebaluagarri bihurtzeko.

Pandemiak EAEn izan duen eraginari buruzko lehen txosten hau egin den honetan, ia ez dago diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta haren osagarrien bidez diru-sarrerak bermatzeko sistemaren familia onuradunen kopururik, eta horietan ez da aldaketa aipagarririk antzeman. 2019. urtearen amaieran, Euskadin 52.455 unitate ziren Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) eta haren osagarrien hartzaileak, 2018ko abenduan baino % 5,3 gutxiago, eta zenbateko horrek aurreko bost urteetan jarraian eginga zuen behera, urte arteko datuetan. Aurtengo igarotako hilabeteetan ez da

joera argirik ikusten, eta eskuragarri dagoen azken datua, irailekoa, kontuan hartuta, DSBEa jasotzen duten 53.933 familia titular zenbatu dira, abuztuarekin alderatuta zero aldakuntzarekin, eta 2019ko abenduan baino % 2,8 gehiago.

Gainera, Kontseilu honen interesekoa izango da, datu ofizialak eskuratzen diren unean, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerarako prestazio berriaren jarraipena egitea. Prestazio hori, izan ere, estatu-mailakoa izaten hasi da; EAEko pertsona batzuentzat, ordea, diru-sarrerak bermatzeko errentaren osagarria izango da. Txosten honen itxiera-datan ez dago informaziorik gure erkidegoan duen ezarpenari buruz.

Amaitzeko, txosten honen ondorioetarako, **genero-arrakaletan duen eraginaren** azterketa demografia- eta lan-dimentsioetara mugatzen da (atal horietan sexuaren aldagaia bereizita dauden adierazle guztietan sartzen da), zeren eta ez baitago informazio garrantzitsurik intereseko beste gai batzuetarako, hala nola errentetarako, hezkuntzarako edo erantzunkidetasunerako, horiek EAEko 2018ko Memoria Sozioekonomikoan aztertu ziren moduan. "*Genero-balantze*" gisa esan liteke, lehenik eta behin, emakumeek, epidemiaren ondorioz beren osasuna gizonezkoek baino gehiago kaltetu arren, hilkortasun txikiagoa dutela, osasun-egoerarako eta hilkortasun-kausetarako oro har gertatzen den bezala.

Lan-merkatuan, jarduera-tasak antzera jaitsi dira bi sexuetan, eta, beraz, bien arteko aldea ez da ia aldatu azken urtean (2019ko hirugarren hiruhilekoan 9,4 puntu izatetik 2020an 9,2 puntu izatera igaro da). Okupazioak, bestalde, beherakada handiagoa izan du gizonen artean (hala erakusten dute bai BJAk bai Gizarte Segurantzako afiliazioak) gure egitura ekonomikoaren ondorioz, baina langabezia-tasek arrakala mantendu dute hirugarren hiruhilekoan. Gizarte-babesari dagokionez, ez da aldaketa aipagarririk antzeman langabeziaren estalduraren arloko arrakaletan, ABEEE prestazioetan edo DSBEan. Nolanahi ere, emakumeek eta gizonek mekanismo horietara duten sarbide-maila berdintzeko joera dagoela ikusten da, eta horren jarraipena egin beharko da, ondorio arrazoituak atera ahal izateko eta egoeraren araberakoa baino ez izateko aukera baztertzeko.

## 4.2. EPE MOTZEKO ERANTZUNAK PANDEMIAREN SHOCKAREN AURREAN

Orain, sortutako arazo sozioekonomikoei aurre egiteko gure erakundeek premia eman dituzten erantzunetan jarri behar dugu arreta.

COVID-19aren krisiaren eragina iraunkorra eta sakonagoa izan ez dadin Euskadin ondorioak izan dituzten larrialdi-tresnak eta -neurriak aztertzeke garaian, Eusko Jaurlaritzaren eta gure foru-erakundeen jarduketak aztertzeaz gain, gure egoera sozioekonomikoan eragin zuzena duten eta estatuan nahiz nazioz gaindiko Europan abian jarritako ekintzak aztertu behar ditugu. Gure inguruko erakunde guztiek beren eskumenen eta baliabideen arabera jardun dute gastu-politika hedakorrek ezartzeko, gizarte- eta ekonomia-ehunari laguntzeko.

### 4.2.1. Europar Batasuna

Europako Banku Zentralak moneta-politikaren hedapen-neurriak hartu ditu finantza-merkatuetako tentsioak egonkortzeko eta ekonomia errealerako kreditu-hornidura bermatzeko. Larrialdi pandemikoko erosketa-programak (PEPP deitutakoa) finantza-merkatuak egonkortzea lortu du, pandemiaren hedapen azkarraren ondoriozko aldakortasunean murgilduta geundela, eta zor subirano gero eta handiagoa arrazoizko prezioetan jartzea ahalbidetu du. Europan, krisia arintzeak aurrekontu-ahalegin izugarri handia eskatzen du, baina Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunean eta estatu-laguntzen erregimenean bi muga garrantzitsu daude. Europar Batasunak malgutasun handiena erabili du estatu kideen zerga-politikak muga horretatik askatzeko. Gainera, segurtasun-sare hirukoitz bat adostu du 540.000 milioi euroko larrialdiko erantzun gisa, eta honako hauek ezarri ditu: SURE tresna, estatuei maileguak emateko, langileen eta autonomoen lanaldia murrizteko neurriak finantzatzeko; berme-funts bat, EIBren bidez ETEentzako maileguak mobilizatzeko; eta EEMren kreditu-lerro bat, gastu sanitario eta parekatuetarako.

Suspertze-prozesurako, Kontseilu Europarrak Next Generation EU sortzeko erabaki politikoa hartu zuen, suspertzerako tresna europar gisa, 750.000 milioi euroz hornitua; kopuru hori, izan ere, kapital-merkatuetan EBren zorpetzearen bidez lortu behar da. Lehoiaren zatia, 672.500 milioi euro, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagokio, zeina, berez, suspertzerako funts gisa identifika daitekeen tresna baita. Beste partida batzuk 2021-2027 Urte Anitzeko Finantza Esparruan aurreikusitako tresna eta programei esleitzen zaizkie, Next Generation indargarri bat izan dadin, suspertzearen mesedetan. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketa lortzeko, bai dirulaguntzaren zatiari bai maileguei dagokienez, estatu kideek Suspertze eta Erresilientzia Planak aurkeztu behar dituzte, 2021-2023 aldirako beren erreforma- eta inbertsio-programa azaltzeko. Plan horiek Batzordeak ebaluatuko ditu, eta Kontseiluak onartuko. Trantsizio ekologikoaren eta trantsizio digitalaren arloetan egindako inbertsioek berebiziko garrantzia izango dute plan horietan, garatu beharreko beste alderdi batzuen artean.

### 4.2.2. Estatua

Gobernuaren lehentasuna izan da ekoizpen- eta gizarte-ehuna babesteko eta sostengatzeko neurriak hartzea, ekonomia- eta gizarte-inpaktua minimizatzeko eta enpresen eta enpleguaren krisiari aurre egiten laguntzeko, eta, osasun-alarma amaitutakoan, ekonomiaren errebotea gerta dadin. Era berean, egoera ahulean dauden pertsonak artatzea eta pandemiaren aurkako egoeretan babestea.

### Sare ekonomikoari eta enpleguari eusteko neurriak.

Osasun-krisiaren ondorioz, enpresek likidezia-tentsio handiei aurre egin behar izan diete, diru-sarreraren beherakadaren ondorioz, bai eskaera txikiagoagatik edo jarduera eteteagatik, bai hornidurek huts egiteagatik eta kontratuak hutsaltzeagatik, eta plantillak egokitu behar izan dituzte, haiek jarduera-mailari egokitzeko. Enpresei eta enpleguari eusteko jarduera-ildoak, jarduera normalizatu arte beheraldian aurre egin ahal izateko, finantza-laguntzaren eta enpresen kargak arintzearen ingurukoak dira, eta neurri hauek hartu dira, besteak beste: zerga-zorrrak geroratzea araubide komunaren esparruan, edo gizarte-segurantzako kotizazioak eta maileguen itzultzea geroratzea. Enpresek eta autonomoek likidezia eta kreditua eskuratzeko aukera izan dezaten, premia-testuinguruan eta finantza-erakundeek baldintzak zorrotz dituztenean, Estatuaren kontura Kreditu Ofizialeko Institutuak (KOI) kudeatutako enpresa eta autonomoentzako abalen lerro bat jarri da abian, 100.000 milioi eurora artekoa. Maileguak berritzea eta finantzaketa-eragiketa berriak formalizatzea barne hartzen ditu. Ekainean agortu zenez, 40.000 milioi euroko lerro berri bat abiarazi zen.

ABEEEak lehentasunezko tokia hartzen ari dira pandemiaren esparruan hartutako neurrien artean, eta enpresei beharrezko malgutasuna ematen die plantillak doitzeko, enpresen egoeran eta hartutako euste-neurrietan COVID-19aren eragin negatiboa izanez gero, eta, aldi berean, enpleguari eusten laguntzen dute eta eragindako langileen babesa indartzen dute.

Langile autonomoentzat, mugikortasun-murrizketek eta euste-neurrien ondoriozko jarduerak geldiarazteak bereziki kaltetu baitituzte, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak ezohiko prestazio bat aitortzen eta arautzen du jarduera uzteagatik, alarma-egoera deklaratzaren ondorioz negozioak ixtearen ondorioz edo fakturazioaren beherakada handi baten ondorioz. Alarma-egoera amaituta, eta jarduerari berriro ekiteko karga pixkanaka arintze aldera, kotizatzeko betebeharretik pixkanaka beheranzko salbuespena aurreikusten da, ekainaren 30etik irailaren 30era. Aparteko prestazioa jasotzen ari zirenentzat, baldin eta pandemiak haien jarduerari eragin badie, jarduera uzteko prestazioa irailaren 30era arte jasotzea aurreikusten da, baina Gizarte Segurantzaren kuotaren diru-sarreratik salbuetsi gabe. Urriaren 1etik aurrera, hainbat kasuistikatarako luzapenak eta estaldura berriak aurreikusi dira.

### Neurri sozialak, lanekoak eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak babestekoak.

Martxoaren 10eko 6/2020 Errege Lege Dekretuak aldatu eta zabaldu egiten du maiatzaren 14ko 1/2013 Legea, hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurri buruzkoa, egoera bereziki ahulean zeuden pertsonen eragiten zieten kaleratzeak eteteari dagokionez. Arau hori 2008ko krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondoriozko salbuespenezko egoerei erantzuteko egin da, zeren eta krisian pertsona askok zailtasunak izan baitituzte beren ohiko etxebizitzaren gainean formalizatutako hipoteka-maileguaren ordainketei aurre egiteko. Pandemiaren egoerak bere ekintza-eremua zabaltzeko beharra eragin du, eta areagotu egin dira hipoteka-maileguaren kuotak ez ordaintzeagatik kalera botatzearen etendura estaltzeko kasuak.

2008ko finantza-krisialditik ikasitako esperientziaren ondorioz, halaber, handitu egiten da egoera ahulean dauden hipoteka-zordunei emandako babesa, bai eta krisi-egoeran dauden zailtasun ekonomikoko egoeretan etxebizitzarako dutenen eskubiderako babesa ere, hipotekaren ordainketan luzamendua eskuratu ahal izan dezaten, ohiko etxebizitza galtzea saihestuz. Pandemiak eragindako kalteberatasun ekonomikoko egoerek berekin ekarri dute, halaber, alokairuko etxebizitza batean bizi direnean kasuan, alokairua ezin ordaintzeko egoeran gertatzea. Ondorio horietarako, prozedura bat ezarri da errentaren ordainketaren aldi baterako eta ezohiko geroratzea eskatzeko, eta finantzaketa-lerro bat sortu da, Estatuak abalaturako eta diruz lagundutako maileguak emateko, COVID-19aren hedapenaren ondorioz kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeran dauden errentariek beren ohiko etxebizitzaren alokairu-gastuei aurre egin ahal izan diezaieten. Maileguak lurralde nazional osoan kokatutako ohiko etxebizitzaren errentariei ematen zaizkie.

Ikastetxeak ixteak eskola-jantokietara sartzeko ezintasuna ekarri zuen, eta jangelako beka jasotzen duten haurren kasuan, elikadura-gabeziako egoerak gertatzeko arriskua sortu zen. Egoera ahulean dauden haurren elikadura-eskubidea bermatzeko, martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuak haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleak dituzten familien aldeko dirulaguntzak edo elikagaien banaketaren zuzeneko prestazioa jasotzeko eskubidea ezarri zuen, autonomia-erkidegoek edo udal-zerbitzuek ikasturtean zehar eskola-jantokirako beka edo laguntzak ematen dizkieten familientzat.

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialaren aurre egiteko ezohiko premiazko neurri buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak baimena ematen du Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030en Ministerioaren aurrekontua 300 milioi eurotan handitzeko, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko ezohiko gizarte-funts bat finantzatzeko, autonomia-erkidegoei transferentziak eginez, foru araubidekoak barne, mendekotasuna duten pertsonen etxez etxeko laguntza bermatzen duten gizarte-zerbitzuen oinarritzako prestazioak finantzatzeko.

Alarma-egoerak irauten duen bitartean, zeina irailaren 30era arte luzatu baita, debekatu egiten da kontsumitzaile kalteberei beren ohiko etxebizitzan energia elektrikoaren, petroliotik eratorritako produktuen, gas naturalaren eta uraren hornidura etetea, nahiz eta aukera hori sinaturiko kontratuetan jasota egon.

Lan-eremuan, honako neurri hauek hartzeko legeak egin dira: isolamendu- edo kutsatze-aldiak lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat hartzea; lanaldia egokitzeko edo murrizteko eskubidea ezartzea senideak zaintzeko betebeharrak dituzten langileentzat; kaleratzeetatik babestea alarma-egoeran; edo telelana lehentasunezko neurri gisa hartzea aldi baterako etetearen edo jarduera murriztearen aurrean.

Azpimarratu behar da maiatzaren 29an 20/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez bizitzako gutxieneko diru-sarrera ezartzea onartu zela. Pandemiaren krisi betearen agertzen da, eta COVID-19ak eragindako kalteberatasun ekonomiko eta sozialaren hazkundeari erantzuten dio. Hala ere, ez da pandemiari lotutako neurri koiuntural eta salbuespenezkoa, egiturazko tresna bat baizik, zeinaren agerpena osasun-krisiak bizkortu egin baitu. Euskadin, dagoeneko, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kudeatzen da, eta Lanbideri esleitu zaio, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeatzaileari. Kasu batzuetan izan ezik, zenbateko handiagoko prestazioak eskaintzen ditu, eta Estatuko prestazioan sartzen ez diren talde batzuk hartzen ditu barnean, hala nola pentsiodunak. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera sortuta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio osagarri eta subsidiarioa izango da.

---

#### 4.2.3. Euskadi

##### Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak eta tresnak

Egoera ahulenean dauden pertsonen, familiei eta kolektiboentzako neurrien esparruan, handitu egin da gizarte-larrialdietarako laguntzetarako aurrekontua, udalen eta oinarritzako gizarte-zerbitzuen bidez eskariaren balizko igoerari erantzun ahal izateko. Bazterkeriaren aurkako funts berezi berri bat jarri da martxan, baliabide gehigarriak aktibatze eta familientzako laguntzen neurri osagarriak hartzeko, lana eta familia uztartzeari begira. Ahalegina egin da, halaber, familiek eskola-garraioko, laguntza-zerbitzuetako eta jantokiko gastuak ordaindu behar izan ez ditzaten konfinamenduan. Euskadiko etxebizitza-parke publikoetako etxebizitzaren alokairu-gastuak konpentsatzeko laguntzak aurreikusi dira. Azkenik, nabarmendu behar da soldata apalenak dituzten eta ABEEEaren pean dauden langileen prestazioarentzako osagarri bat sortu dela, ahal den neurrian haien premiak betetzea ahalbidetuko duen bizi-mailari eusten laguntzeko.

Enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei zuzendutako neurri dagokienez, 0 kostuko mikro-ETEentzat eta autonomoentzat 25 milioi euroko premiazko finantzaketa-lerro bat antolatu zen. "Zubi" tresna gisa sortu zen, abala zuen zirkulatzaila finantzatzeko lerroaren abiaraztea amaitu arte. Martxoan aktibatu zen, 500 milioi euroko zenbatekoan, eta apirilean beste 500 milioi eurotan handitu zen, eskari handia zegoelako. Alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz jarduerak etenda utzi behar izan zituzten beren konturako langileentzat, Lanbideren bidez ezohiko laguntzak antolatu ziren, eta onuradun bakoitzak 3.000 euro arteko dirulaguntzak eman zituen jarduerari eusten laguntzeko. 3 milioi euroko hasierako hornidura ez zen nahikoa izan, eta 16 milioi euroraino handitu zen.

Industriaren eta garapen ekonomikoaren eremuan premiazko neurri ugari hartu dira. Batzuk telelana ezartzeko laguntza finantzario eta tekniko emateko eta jarduera ez gelditzeko; beste batzuk berriz, COVID-19arekin lotutako ikerketa sustatzeko. Dauden laguntza-programak malgutu egin dira onuradunen diruzaintza hobetzeko, bai programa horiek zekartzaten laguntzen itzulketatik atzeratzeko aukera emanez, bai jaso beharreko laguntzen ordainketak aurreratuz. Euskadiko parke teknologikoetan eta Sprilur industrialdeetan alokairuak atzeratzea ere onartu da, eta arrantza-, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorearekin lotutako programen onuradunen aldeko neurri espezifikoak aurreikusi dira. Azpimarratzekoa da Bideratu Covid programaren abiaraztea: 20 milioi euro ditu berariaz COVID-19aren ondorioz krisian dauden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko.

Merkataritzaren eta turismoaren sektoreek, pandemiak bereziki zigortutakoek, neurri espezifikoak dituzte. 7,5 milioi euroko laguntza-programa baten helburua txikizkako merkataritza babestea eta hari zuzeneko laguntza ekonomikoa ematea da, jarduera berriz bultzatzeko. Hiriburuetako udalekin eta aldundiekin batera, turismo- eta merkataritza-bonuak merkaturatzeak ere jarduera horiek sustatu nahi ditu.

#### Foru aldundiek hartutako neurriak eta tresnak

Gure inguruko erakunde guztiek bezala, hiru aldundiek ere premiaz erantzun diote COVID-19ak Euskadin duen eragin sozioekonomikoa murrizteko ahaleginari. Euskadin zerga-izaerako neurrien aukera handia aktibatzeaz gain, hainbat neurri hartuta zergadunen zerga-eskubideak bermatzeko konfinamenduan zehar, eta krisiak eragindako zailtasun-uneetan euskal enpresei eta etxeei likidezia emateko, zerga-zamei aurre egiteko epeak malgutuz eta haiek geroratzuz, zatikatuz eta murriztuz, foru-aldundiek, era berean, modu desberdinetako neurri-sorta batzuk hartu dituzte pandemiaren eragin negatiboa arintzeko, jarduerara itzultzeko laguntza emateko eta susperraldia bultzatzeko, batez ere gehien zigortutako eragile eta sektoreena.

Arabako Foru Aldundiak oso aurreratuta dauka Arabako Ekonomia eta Suspertze Plana, PlanÁ deitutakoa. 29 milioi euro ditu, eta 50 neurri ekonomiko, fiskal, finantzario eta kontsumoa sustatzekoak, honako arlo hauetan egituratuta: zergatik abiatutako suspertzea (248,5 milioi euro jar ditzake), ETEentzako eta autonomoentzako finantza-arintzerako programak, enpleguaren sustapena, etxebizitzak berritzeko eta jasangarritasunerako sektoreari laguntzea, egoera ahulenean daudenen aldeko mezenasgoa eta kultura-, zientzia- eta kirol-intereseko jarduerak sustatzea, tokiko turismoa eta kontsumoa bultzatzea, Arabako lehen sektoreko produktuak sustatzea eta ingurumeneko eta trantsizio energetikoko proiektuetako inbertsioak sustatzea.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak "Bizkaia Aurrera" suspertzeko premiazko plana du martxan urte amaierara arte, 95,5 milioi euroko zuzkidurarekin. Haren 12 neurriak honako hauek dira: pertsona autonomoei laguntzeko mikrokredituak; Elkargik bermatutako maileguak birfinantzatzeko laguntza-programa; enplegu-plan berezi bat; ETEen eta enpresen suspertze ekonomiko adimendunerako laguntza zuzenak; sustapen-plan bat eta Bizkaiko tokiko merkataritzan, kulturaren, turismoan eta ostalaritzan kontsumoa sustatzeko bonuak; etxebizitzetarako Renove plan bat; digitalizazioan inbertitzeko eta prestatzeko plan bat; COVID-19aren arloko kultura-, kirol- eta ikerketa-jardueretarako mezenasgoa, eta, osasun-baldintzek ahalbidetzen dutenean, Bizkaiko jarduera, ekonomia, kultura, kirola eta aisialdia dinamizatuko duten jarduerak sustatzea.

Gipuzkoan, Ekonomia Suspertzeko Planak 28 milioi euroko aurrekontua du, eta jarduera-ardatz hauek ditu: kalitatezko enplegua sortzea eta finkatzea; enpresei laguntzeko baliabide ekonomikoak izatea; etorkizuneko enpresa-proiektuak finkatzen laguntzea; sektore estrategikoen finkapenean sakontzea; tokiko kontsumoari laguntzeko mekanismoak abian jartzea, eta enpresa-garapeneko ekosistemaren eginkizuna indartzea.